

Euskadiko gazteak 2000

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

KULTURA SAILA

*Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza*

PRESIDENCIA

Gabinete de Prospección Sociológica

DEPARTAMENTO DE CULTURA

*Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

Euskadiko gazteak 2000. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000
p. ; cm. — (EAEko Gazte Plana = Plan Joven de la CAPV; 5)
ISBN 84-457-1654-9
1. Jóvenes-Euskadi-Situación social. I. Euskadi. Gabinete de Prospección Sociológica.
II. Euskadi. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. III. Serie
308-053.7(460.15)

Argitaratutako tituluak:

1. *EAEko Gazte Plana 1999-2001*
2. *Plan Joven de la CAPV 1999-2001*
3. *Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000*
4. *Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000*
5. *Euskadiko gazteak 2000*

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Elkarteko Administrazioa
Kultura Saila

Internet www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazioa: Francisco Javier Gutierrez Paramo

Itzulpena: HAEeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala-BAKUN

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 480012 Bilbao

ISBN: 84-457-1654-9

L.G.: BI - 3114-00

AURKEZPENA

Gaur egun ez du inork zalantzan jartzen gazteek oraingo eta etorkizuneko gizartean duten garrantzia. Beraz, gizarteak oro har gaur egun inoiz baino garrantzi handiagoa ematen badio gazteen gizarte talde honi, arrazoizkoa da Administrazio Publikoak ere interes berezia adieraztea gazteak ezagutzeko, hau da, haien portaerak, sinesmenak, jarrerak eta, finean, gazteak beraiek hobeto ezagutzeko.

Oraingoan, bada, duela urte asko hasi zuen ikerketa etengabearen ildotik jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizartekintza Zuzendaritzak beste ikerketa soziologiko bat egin du Euskadiko gazteria zertan den aztertu nahian. Lan hori burutu ahal izateko eginkizunak hiru multzotan banatu dira: Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak ikerketaren diseinua egin eta enpresa kolaboratzaileen lana zuzendu du; Ikertalde-k inkestan oinarritutako informazioa jaso du, eta Galdiker-ek, berriz, emaitzen azterketak egiteaz gain, hemen aurkezten den txostena idatzi du.

Azterlan hau erabat «multidimentsionala» da. Izan ere, datozen orriotan ikuspuntu askotatik ezagutu ahal izango dugu gazteen kolektiboa, hain zuzen ere gazteen eguneroko bizitza nolakoa izango den zehazten laguntzen duten ikuspuntu ugariatik, esate baterako: familia, aisialdia, egokitu zaien gizarte-egoera baloratzeko modua, politika, erlijioa, gizarte-balioen esparrua, gizarte-tolerantzia, euskara eta sexualitatea.

Bestetik, azterlana diseinatzerakoan konparazioak ere egin dira bestelako inguru geopolitikoetako gazteen egoerarekin, Euskadiko gazteei buruzko aztergaiak beste inguruetakoekin alderatu ahal izateko.

EAEko Gazte Planaren bidez hobeto uztartu nahi dira erakundeetako politika publikoak eta Euskadiko gazteen premiak eta nahiak. Gainera, lan honetako orrialdeak irakurle guztiontzat interesgarriak izango direlakoan gaude, gain honek horrenbeste merezi baitu.

Azkenik, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gazteriaren Euskal Behatokiari (Gazte Planaren tresna den heinean) esleitutako eginkizunak bete nahian, egokitzat jo duela azterlan hau argitaratzea, interes zientifiko eta sozial handia duelako. Dena den, testuan esaten den guztiaren erantzukizuna liburuaren egileena da soil-soilik.

M. CARMEN GARMENDIA LASA
Kultura sailburua

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| <i>Sarrera</i> | 17 |
| 1. Lan-mundua | 19 |
| 1.1. <i>Gazteriaren lan-egoera</i> | 21 |
| 1.1.1. <i>Zer egiten du euskal gazteriak?</i> | 22 |
| 1.1.2. <i>Gazteen biztanleria aktiboa</i> | 23 |
| 1.2. <i>Lan-baldintzak</i> | 25 |
| 1.2.1. <i>Egonkortasuna</i> | 25 |
| 1.2.2. <i>Lanaldia</i> | 27 |
| 1.2.3. <i>Ahalmen ekonomikoa</i> | 28 |
| 1.3. <i>Autoenplegua lortzeko jarrerak</i> | 29 |
| 1.4. <i>Mugikortasun laboralerako prestutasuna</i> | 31 |
| <i>Ondorioak</i> | 33 |
| 2. Familia | 35 |
| 2.1. <i>Familia-egoera</i> | 37 |
| 2.2. <i>Emantzipazioa</i> | 38 |
| 2.2.1. <i>Independentzia ekonomikoa</i> | 38 |
| 2.2.2. <i>Emantzipaziorako adinik egokiena</i> | 40 |
| 2.2.3. <i>Emantzipatzeko eragozpenak</i> | 41 |
| 2.3. <i>Familiarekiko jarrerak</i> | 43 |
| 2.3.1. <i>Familiaren poztasun-asebetetze maila</i> | 43 |
| 2.3.2. <i>Familiaren betebeharrak</i> | 44 |
| 2.3.3. <i>Seme-alaben kopurua</i> | 46 |
| 2.3.4. <i>Etxeko lanen banaketa</i> | 48 |
| <i>Ondorioak</i> | 50 |
| 3. Aisialdia | 51 |
| 3.1. <i>Aisialdia edukitzea</i> | 53 |
| 3.2. <i>Aisialdiko jarduerak</i> | 55 |
| 3.2.1. <i>Aisialdiko jardueretarako denbora</i> | 55 |
| 3.2.2. <i>Aisialdi-motak</i> | 59 |

| | |
|--|------------|
| 3.3. Asoziazionismoa | 60 |
| 3.4. Internet: esperientzia eta erabilera | 61 |
| Ondorioak | 64 |
| 4. Egoeraren balorazioa | 65 |
| 4.1. Gazteek egoera nola ikusten duten | 67 |
| 4.1.1. Pertsonala | 67 |
| 4.1.2. EAEko gazteriarena | 68 |
| 4.1.3. Euskal Herriarena | 69 |
| 4.2. Kezka pertsonalak | 70 |
| 4.3. Hezkuntza-sistemaren balorazioa | 73 |
| Ondorioak | 75 |
| 5. Jarrera politikoak | 77 |
| 5.1. Politikan parte hartzea | 79 |
| 5.2. Jarrera ideologikoa | 80 |
| 5.2.1. Ezker/eskuin ardatza | 80 |
| 5.2.2. Euskaldun/espainiar ardatza | 82 |
| 5.2.3. Gertueneko alderdi politikoa | 84 |
| 5.2.4. Europarekiko nortasun-sentimendua | 85 |
| Ondorioak | 87 |
| 6. Erljioaren papera | 89 |
| 6.1. Gazteen erlijiozkotasuna | 91 |
| 6.2. Erljio-praktika | 93 |
| 6.3. Erljio-ospakizunak | 94 |
| Ondorioak | 95 |
| 7. Gizarte-balioak | 97 |
| 7.1. Gizarte-arloa | 99 |
| 7.1.1. Oinarrizko gizarte-balioak | 99 |
| 7.1.2. Gizarte-portaerak | 101 |
| 7.1.3. Osasunerako ohitura kaltegarriak | 104 |
| 7.2. Besteen arloa | 105 |
| 7.2.1. Auzokideekiko tolerantzia | 105 |
| 7.2.2. Tolerantzia ideologikoa | 109 |
| 7.2.3. Inmigrazioarekiko jarrerak | 111 |
| 7.2.4. Gaez kalera ateratzeko beldurra | 115 |
| Ondorioak | 116 |
| 8. Euskara | 119 |
| 8.1. Euskararen ezagutza | 121 |
| 8.2. Euskararen erabilera | 123 |
| 8.2.1. Benetako erabilera | 123 |
| 8.2.2. Euskararen erabilera ideala | 124 |
| 8.3. Herri-administrazioek euskara sustatzeari buruzko iritzia | 125 |
| Ondorioak | 127 |

| | |
|--|-----|
| 9. <i>Gazteak eta sexualitatea</i> | 129 |
| 9.1. <i>Sexualitatearen garrantzia</i> | 131 |
| 9.2. <i>Zerekin identifikatzen duten sexualitatea</i> | 132 |
| 9.3. <i>Sexualitateari buruzko komunikazioa familian</i> | 133 |
| Ondorioak | 135 |
| 10. <i>Ondorioak</i> | 137 |
| 11. <i>Metodologia</i> | 143 |
| 11.1. <i>Lagina</i> | 145 |
| 11.2. <i>Landa-lana</i> | 147 |
| 11.2.1. <i>Landa-lana</i> | 147 |
| 11.2.2. <i>Landa-lanaren kontrola</i> | 147 |
| 11.3. <i>Emaitzen azterketa</i> | 148 |
| 11.3.1. <i>Adierazle soziologikoak</i> | 149 |
| 11.3.2. <i>Segmentazio-faktoreak</i> | 150 |
| 11.3.3. <i>Galderak birkodetzea</i> | 151 |
| 1. <i>ERANSKINA: Erabilitako galderak</i> | 155 |
| 2. <i>ERANSKINA: Análisi faktorialaren matrizea</i> | 163 |
| <i>Bibliografia</i> | 169 |

TAULEN AURKIBIDEA

1. Lan-mundua

| | |
|---|----|
| 1. taula: Euskal gazteen lan-egoera | 22 |
| 2. taula: Gazteen lan-egoera (Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatua eta Katalunia) | 23 |
| 3. taula: Gazteen biztanleria aktiboa | 23 |
| 4. taula: Gazteen biztanleria aktiboa (Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatua, Katalunia eta Galizia) | 24 |
| 5. taula: Egonkortasuna lanean I: antzinasuna | 25 |
| 6. taula: Egonkortasuna lanean I: antzinasuna (Datu konparatiboak: EAE, Katalunia eta Galizia) | 26 |
| 7. taula: Egonkortasuna lanean II: kontratua | 26 |
| 8. taula: Lan egiten duten edo egiten zuten EAeko gazteen lanaldia | 27 |
| 9. taula: Lan egiten duten gazteen baliabide ekonomikoak | 28 |
| 10. taula: Lan egiten duten gazteen baliabide ekonomikoak (Datu konparatiboak: EAE-espainiar Estatua) | 28 |
| 11. taula: Autoenplegua lortzeko jarrera. Pentsatu al duzu zeure lanpostu propioa sortzea? | 29 |
| 12. taula: Autoenplegua lortzeko jarrera (Datu konparatiboak: EAE-Katalunia) | 30 |
| 13. taula: Lanak eraginda, bizitokia aldatzeko prestutasuna | 31 |
| 14. taula: Lanak eraginda espainiar Estatutik kanpo lekualdatzeko prestutasuna (Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatua eta Katalunia) | 32 |

2. Familia

| | |
|--|----|
| 15. taula: Familia-egoera | 38 |
| 16. taula: Zure kontura edo bikotekidearen kontura eta familiarik bereizita bizi al zara? | 39 |
| 17. taula: Zenbat diru izaten duzu hilero batez beste? | 39 |
| 18. taula: Zein da familiarengandik emantzipatzeko adinik egokiena? | 40 |
| 19. taula: Zein izan dira/izango lirake zeure kontura bizitzeko izan dituzun/izango zenuzuzkeen zailtasunak? | 41 |
| 20. taula: Zenbateraino zaude gustura zure familia-bizitzarekin? | 43 |
| 21. taula: Familiarekin gustura. (Datu konparatiboak EAE-Katalunia) | 44 |
| 22. taula: Zein garrantzi ematen diozu familiaren betebeharrak hauetako bakoitzari? | 45 |
| 23. taula: Familiaren betebeharren garrantzia (Datu konparatiboak EAE-Katalunia) | 46 |
| 24. taula: Zenbat seme-alaba dituzu? | 46 |
| 25. taula: Zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke? | 48 |
| 26. taula: Gogokoen duten seme-alaben kopurua (Datu konparatiboak EAE-Katalunia) | 48 |
| 27. taula: Zuk eta zure bikoteak egiten dituzuen etxeko lanetatik, zein egiten dituzu zuk? | 49 |

3. Aisialdia

| | |
|---|----|
| 28. taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan? | 54 |
| 29. taula: Astegunetan egiten diren aisialdiko jarduerak | 55 |

| | |
|---|-----|
| 30. taula: Asteburuetan egiten diren aisialdiko jarduerak | 56 |
| 31. taula: Aisialdia EAEn eta Katalunian, astegunetan | 58 |
| 32. taula: EAEn eta Katalunian, asteburuetan | 58 |
| 33. taula: Gazteen eta elkarteen arteko harremana | 60 |
| 34. taula: Gazteen eta elkarte-moten arteko harremana | 61 |
| 35. taula: Zenbat denbora daramazu internet erabiltzen? (Noizbait erabili dutenek erantzuteko) | 63 |
| 36. taula: Astean zenbat ordu egoten zara interneti konektatuta? (Noizbait erabili dutenek erantzuteko) | 63 |
| 4. Egoeraren balorazioa | |
| 37. taula: Zeure egoera pertsonalari begiratuta, nola zaude gaur egun? | 67 |
| 38. taula: Nola ikusten duzu gazteen egoera, oro har, gaur egun? | 69 |
| 39. taula: Nola ikusten duzu Euskal Herriaren egoera? | 69 |
| 40. taula: Gaztea zara. Zein dira gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak? | 71 |
| 41. taula: Gazteen kezka nagusiak (EAeko eta Kataluniako datuak, alderatuta) | 72 |
| 42. taula: Zein iritzi duzu hemengo hezkuntza-sistemari buruz? | 73 |
| 5. Jarrera politikoak | |
| 43. taula: Nahiko al zenuke gai publikoetan aktiboago parte hartu? | 80 |
| 44. taula: Eskuindar ala ezkertiar izateari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua? .. | 81 |
| 45. taula: EAeko gazteen jarrera ezker/eskuin ardatzean azken urteotan | 82 |
| 46. taula: Euskaldun edo espainiar izateari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua? .. | 83 |
| 47. taula: EAeko gazteen jarrera euskaldun/espainiar ardatzean azken urteotan | 83 |
| 48. taula: Bertako/espainiar jarrera zenbait Komunitate Autonomotan | 84 |
| 49. taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsamoldetik gertuen? | 84 |
| 50. taula: Zein neurritan duzu zure burua europartzat? | 86 |
| 6. Erljioaren papera | |
| 51. taula: Erljioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua? | 92 |
| 52. taula: Erljio-jarrera (Datu konparatiboak: EAE, Estatu, Katalunia eta Balearrak) | 93 |
| 53. taula: Katoliko praktikanteak eta ez-praktikanteak | 93 |
| 54. taula: Zein maiztasunez joaten zara Elizara? (Katoliko praktikanteak eta beste erljio batzuetako gazteak soilik) | 94 |
| 55. taula: Bizitzako zenbait egoeratan erljio-ospakizunak egitearen alde al zaude? | 94 |
| 7. Gizarte-balioa | |
| 56. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? | 100 |
| 57. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (EAE eta Kataluniako datuen konparazioa) | 101 |
| 58. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? | 102 |
| 59. taula: Honako portaera bortitzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? | 103 |
| 60. taula: Zure iritzi, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo egoerak? | 105 |
| 61. taula: Zure iritzi, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo egoerak? (EAE eta Kataluniako datuen konparazioa) | 106 |
| 62. taula: Axola al dizu honelako pertsonaren bat auzokide izatea? | 107 |
| 63. taula: Auzokideen arteko tolerantziarik eza (EAE eta estatuko datuen konparazioa) .. | 109 |
| 64. taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara? | 109 |
| 65. taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara? (EAE eta estatuko datuen konparazioa) | 110 |
| 66. taula: Politikaz hitz egiteko aske sentitzen al zara? | 111 |
| 67. taula: Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia | 113 |
| 68. taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke? | 114 |

| | |
|--|-----|
| 69. taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke? (EAE eta estatuko datuen konparazioa) | 115 |
| 70. taula: Gauzez herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten al zaitu? | 115 |
| 8. Euskara | |
| 71. taula: Nolako ezagutza-maila duzu euskaraz? | 122 |
| 72. taula: Zenbat hitz egiten/idazten duzu euskaraz eta zenbat (Euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten/idazten dutenen datuak baino ez ditugu kontuan hartu) | 123 |
| 73. taula: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean? | 125 |
| 74. taula: Zenbat inbertitu behar dute, zure ustez, euskal administrazioek euskararen alorrean: orain arte beste, gutxiago edo gehiago? | 126 |
| 9. Gazteak eta sexualitatea | |
| 75. taula: Nolako garrantzia du zuretzat sexualitateak? | 131 |
| 76. taula: Zerekin identifikatzen duzu sexualitatea? | 133 |
| 77. taula: Aipatu dituzue inoiz edo aipatzen dituzue etxean ondoren adieraziko dizkizuegun gaiak? | 134 |
| 11. Metodologia | |
| 78. taula: Bisitetan izandako gorabeherak | 146 |

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Lan-mundua

| | |
|--|----|
| 1. grafikoa: Okupazio batetik bestera igarotzea, sexuaren eta adinaren arabera | 22 |
| 2. grafikoa: Autoenplegua lortzeko jarrera, sexua, adin-taldeak eta egoera okupazionalaren arabera | 30 |
| 3. grafikoa: EAEko gazteen mugikortasunerako prestutasunaren eremua | 32 |

2. Familia

| | |
|--|----|
| 4. grafikoa: Emantzipaziorako zailtasunak (Datu konparatiboak EAE-Katalunia) | 43 |
| 5. grafikoa: EAEko seme-alabak dituztenen seme-alaba kopurua | 47 |

3. Aisialdia

| | |
|---|----|
| 6. grafikoa: EAEko gazteek aisialdirako duten denbora, lan-egoeraren arabera | 54 |
| 7. grafikoa: Inoiz erabili al duzu internet? | 62 |
| 8. grafikoa: Interneten erabiltzaileak, sexuaren, adin-taldearen eta lurraldeen arabera | 62 |

4. Egoeraren balorazioa

| | |
|--|----|
| 9. grafikoa: Egoera pertsonalarekin gustura, gizarte-mailaren arabera | 68 |
| 10. grafikoa: Gazteen kezka nagusiak | 70 |
| 11. grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa, lortutako ikasketen arabera | 73 |
| 12. grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa, lan-egoeraren arabera | 74 |

5. Jarrera politikoak

| | |
|---|----|
| 13. grafikoa: Ezkertiar/eskuindar ardatza (Guztira) | 81 |
| 14. grafikoa: Euskaldun/espainiar ardatza (Guztira) | 82 |

6. Erljioaren papera

| | |
|--|----|
| 15. grafikoa: Erljioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua? | 92 |
|--|----|

7. Gizarte balioak

| | |
|--|-----|
| 16. grafikoa: Gazteen artean ohikoak diren ohiturak | 104 |
| 17. grafikoa: Auzokideekiko tolerantziarik eza (2000ko eta 1990eko datuen konparazioa) | 108 |
| 18. grafikoa: Zeinek inongo parekatzen dituzu Euskal Herrian bizi diren etorkinak? | 112 |

8. Euskara

| | |
|---|-----|
| 19. grafikoa: Nolako ezagutza-maila duzu euskaraz? | 121 |
| 20. grafikoa: Gazte euskaldunek euskaraz eta gaztelaniaz zenbat hitz egin eta idazten duten | 124 |
| 21. grafikoa: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean? (1990-2000ko datuak) | 125 |

9. Gazteak eta sexualitatea

| | |
|---|-----|
| 22. grafikoa: Zerekin identifikatzen duzu sexualitatea? | 132 |
|---|-----|

SARRERA

Gazteria, etorkizuneko gizartearen oinarria da eta garatutako gizarte modernoetan problematika jakin batzuekin lotuta dago. Horren ondorioz, aztertu beharreko oso kolektibo interesgarria da, eta ez bakarrik soziologiarentzako, baita administrazio publikoentzako ere, bere lana gizartearen hainbat eskaera eta beharrei erantzutea denez, eskaera eta behar horiek egiten dituzten taldeak identifikatu eta ezagutu behar dituelako, politika eraginkor eta pertsona horiei zuzendutako politikak garatu ahal izateko.

Izan ere, eremu publikoak gazteriar buruzko ikerketenganako duen interes hori 60ko hamarkadaren bukaeran hasi zen, hasiera batean soziologiaren sorrerarekin batera egiten hasi berri ziren ikerketekin. Baina 70eko hamarkadan eta, batez ere, 80ko hamarkadan, gazteriak demografikoki hartu zuen garrantziaren ondorioz (hainbat problematikari lotuta, langabezia esate baterako) administrazio publikoak gazteriar zuzendutako sailak sortzen hasi ziren. Sail horien sorrerarekin batera, gazteei buruzko ikerketak areagotu eta aldian behin egiten hasi ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila 1986. urtean hasi zen gazteriar buruzko ikerketak egiten. Ikerketa horren ondoren 1990eko eta 1994ko ikerketak etorri ziren. Gainera, Gobernu autonomoaren Soziologia Azterketako Kabineteak, Euskadiko gazteei buruzko gobernu txostenak landu zituen 96, 97 eta 99. urteetan, datu base propioak ustiatu ondoren. Ikerketa horietan guztietan jasotako emaitzak honetarako balio izan dute: gazteriaren arazo nagusiak konpontzeko eta beraien bizi-kalitatea hobetzeko politika publikoak garatzeko.

Ikerketa hori Kultura Sailak bultzatu du; zuzendaritza teknikoa, berriz, Azterketa Soziologikorako Kabinetearen esku dago. Oraingo honetan eta Ikertalde enpresak egindako landa lanetik abiatuz, txosten bat egin dugu. Txosten hori egiteko azterketa orokor eta «multidimentsionala» egin dugu, bederatzi kapitulutan, Euskadiko gazteria deskribatzen duen ikuspegi bat eratuz. Horrez gain, EAEko eta beste lurralde batzuetako gazteei buruzko beste azterketa batzuetatik lortutako datuetara jo dugu, Euskadiko gazteen ezauzgarri nagusiak eskaintzeko asmoz.

Hona hemen bederatzi kapituluak eta euren edukiak:

- **Lan-mundua:** honako gai hauek jorratzen dira: gazteen lan egoera, autoenpleguaren aurrean duten jarrera edo lan joan-etorriak egiteko duten prestutasuna.

- ▶ *Familia: atal honek sakonki aztertzen ditu gazteriaren famili egoera, emantzipazioa eta emantzipazioa lortzeko zailtasunak eta familia gizarte-balore gisa.*
- ▶ *Aisialdia: atal hau xede hauetan zentratzen da: aisialdia, aisialdian egiten dituzten jarduerak, asoziazionismoa eta esperientzia eta interneten erabilera.*
- ▶ *Egoeraren balorazioa: atal honetan honako alderdi hauek aztertzen dira: gazteek gaur egungo egoerari buruz egiten duten balorazioa, bai maila pertsonalean eta baita maila soziopolitikoan ere, euren ardura pertsonalak eta hezkuntza sistemari buruz egiten duten balorazioa.*
- ▶ *Politika: atal honen helburua honakoa da: gai publikoetan politikak duen parte-hartzea ezagutzeko, norbere burua zein ardatzetan kokatzen duen jakitea, hau da, ezkerra/eskuina eta euskalduna/espainiarra, eta Europarenganako identitate sentimendua ezagutzea.*
- ▶ *Erlijioa: atal honetan Euskadiko gazteen erlijiotasun maila, ohitura erlijiosoak eta ospakizun erlijioso jakin batzueganako duten jarrera adierazten da.*
- ▶ *Balore sozialak: kapitulu honetan alderdi hauek aztertzen dira: alde batetik, oinarrizko gizarte-balore, portaera eta ohitura ez oso osasungarrietan zentratutako gizartearenganako gazteek duten jarrera eta, bestetik, besteenganako, hau da, tolerantzia (auzokoa eta ideologikoa), inmigrazioa edo gizartearen segurtasunarenganako duten jarrera.*
- ▶ *Euskara: Euskadiko gazteen errealitate soziolinguistikoan sakontzeko asmoz, honako datu hauek jasotzen dira: euskararen zein ezaguera maila duten, zenbat erabiltzen duten (bai erabilera erreala eta baita erabilera ideala ere) eta nolako balorazioa egiten den euskararen sustapen publikoari buruz.*
- ▶ *Sexualitatea: kapitulu honetan zera adierazten da: Euskadiko gazteek zer-nolako garrantzia ematen dioten sexualitateari, zein alderdirekin identifikatzen duten eta zein neurritan hitz egiten den sexualitateaz familian barruan.*



1

Lan-mundua

Atal honetan, EAeko gazteek lan-munduan sartzeko dituzten arazoak aztertzen ahal-eginduko gara. Arazo horren azterketa sakona egiterakoan ondorengo alderdiak kontuan hartzea nahitaezkoa dela uste dugu:

- ▶ Gazteriaren lan-egoera.
- ▶ Gazteen lan-baldintzak.
- ▶ Autoenplegua.
- ▶ Mugikortasun laborala.

1.1. GAZTERIAREN LAN-EGOERA

Gure inguru hurbilean (Europako Estatu gehienetan, hain zuzen ere) gertatu den bezala, azken hiru hamarkadetan gizarteko zenbait kolektibok zailtasun ikaragarriak izan dituzte lan-merkatuan sartu ahal izateko, eta ematen duenez, arazo horrek ez du konponbide errazik. Kolektibo horien artean, kaltetuenak suertatu direnak ondorengokak ditugu: langabezia luza roan egon diren 40 urtetik gorako pertsonak, emakumeak eta gazteak.

80. eta 90. hamarkadetan, EAeko (eta espainiar Estatuko) langabezia-tasa, %20tik gora egotera heldu zen. Orain, berriz, hedapen ekonomikoa bizi dugun garai hauetan, herri administrazio guztietatik (Europakoa, espainiar Estatukoa, autonomikoa eta udaletakoa) arazoa arintzeko bultzatu diren politiketara esker, emaitza positiboak lortu dituzte eta kopuru hori ia %10era jaistera lortu dute.

EAeko gazteen langabeziari dagokionez, langabeziaren larritasunak (berezi, Bizkai-ko zenbait eskualdetan, gazteen erdiak gutxi gorabehera langabezia baitzeuden) egoera askoz itxaropentsuagoari utzi dio tokia, lurralde historiko guztietan langabeziak nabarmen egin baitu behera. Berezi aipatzekoa da Gipuzkoako zenbait eskualdetan enplegu osoa lortu dela, nahiz eta oraindik, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde gehienak errealtate horretatik oso urruti dauden.

Jarraian, EAeko gazteak zer egiten duten aztertuko dugu, eta ondoren biztanleria aktiboaren ezaugarrietan sakonduko dugu.

1.1.1. Zer egiten du euskal gazteriak?

Ikerketa honen emaitzek (1. taula) ondorengoa erakusten digute: 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen %42,7k ikasi besterik ez dute egiten, %40,9k lan egiten dute, %7,9k aurreko biak bateratzen dituzte eta %7,2 langabezian daude. Horiez gainera, beste ehuneko txiki bat dago: %1,2k beste jarduera batzuk dituzte (etxeko lanak, edo aurreragokoe-kin zerikusirik ez duten beste batzuk).


Adinak desberdintasun handiak eragiten ditu gazteen lan-egoeran. 19 urte bitartean, ia %90k ikasten ari dira (ikasi besterik ez, edo ikasi eta lan). Adina gora joan ahala, kopuru horrek behera egiten du, horrela, poliki-poliki lan-munduan sartuz doa gaztea, lana lortu duelako edo lana bilatzen ari delako.

1. taula: Euskal gazteen lan-egoera

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|---------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Ikasten | 42,7 | 41,3 | 44,1 | 85,2 | 44,5 | 8,1 | 41,7 | 40,7 | 44,0' |
| Lanean | 40,9 | 45,9 | 35,7 | 8,1 | 33,9 | 73,5 | 39,7 | 45,2 | 38,8 |
| Ikasten eta lanean | 7,9 | 6,6 | 9,3 | 4,3 | 11,8 | 6,6 | 7,5 | 8,2 | 7,8 |
| Langabetua. Lanean aritua | 4,5 | 3,7 | 5,4 | 1,1 | 4,7 | 7,0 | 5,5 | 2,8 | 5,3 |
| 1. lanaren bila | 2,7 | 1,7 | 3,7 | 0,8 | 4,1 | 2,7 | 2,0 | 2,6 | 3,0 |
| Etxeko lanak | 0,7 | 0,1 | 1,5 | 0,0 | 0,4 | 1,7 | 1,5 | 0,5 | 0,7 |
| Beste aukera batzuk ... | 0,5 | 0,7 | 0,3 | 0,5 | 0,6 | 0,4 | 2,1 | 0,0 | 0,4 |
| Guztira ehunekotan ... | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 |

1. grafikoan ikus dezakegun bezala, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago luzatzen dute euren ikasketa-garaia. Ildo horretatik, 24 urte arte ikasi baino egiten ez duten emakumezkoen ehunekoa handiagoa da, eta baita ikasketak lanarekin bateratzen dituzten emakumeena ere. Bestalde, lanean hasten diren mutilak gehiago dira, eta, gainera, lehenago hasten dira.

1. grafiko: Okupazio batetik bestera igarotzea, sexuaren eta adinaren arabera



EAEko hiru lurralde historikoetako gazteriaren egoerari dagokionez (1. taula), hauek dira daturik azpimarragarrienak: gazte-ikasleen ehuneko handiena Bizkaian dago (%44,1) eta Gipuzkoan, berriz, lan egiten duten gazteen ehuneko handiena (%45,2). Azken datu hori lurralde horretako lanaren egoera hobeak eragiten du.

Euskal gazteen lan-egoera espainiar Estatukoarekin eta Kataluniakoarekin alderatzen badugu (2. taula), ondorengo emaitzak jasoko ditugu: a) EAEko langabetuen ehunekoa espainiar Estatukoa baino baxuagoa da, baina Kataluniakoa baino altuagoa, eta b) Kataluniako gazteek euskaldunak baino gehiago bateratzen dituzte ikasketak eta lana, nahiz eta EAEn lanean ari diren gazteak gehiago izan.

2. taula: Gazteen lan-egoera
(Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatua eta Katalunia)

| | EG'00 | Estatua'00 | Katalunia'98 |
|-------------------------------|-------|------------|--------------|
| Ikasten | 43 | 41 | 35 |
| Lanean | 41 | 33 | 37 |
| Ikasten eta lanean | 8 | 9 | 18 |
| Langabetua | 7 | 14 | 6 |
| Etxeko lanak | 1 | 3 | 3 |
| Beste aukera batzuk | 0 | 1 | 1 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan ... | 1.364 | 2.465 | 2.000 |

Iturria: bertan egina, ondorengo ikerketetan oinarrituta: CIS: 2000: 7 (Estatuko emaitzetarako) eta «Secretaria General de Joventut, 1999: 17 (Kataluniako emaitzetarako).

1.1.2. Gazteen biztanleria aktiboa

Gure ikerketak gazteen biztanleria aktiboan oinarrituz gero, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan, ondorengo emaitzak aurki ditzakegu: %56,1 lan egiteko egoeran daude (3. taula). %87 lanean ari dira (horietatik %14 ikasten jarraitzen duten bitartean) eta ehunetik ia hamahiruk langabezian daudela diote. Gipuzkoako emaitzak Bizkaia eta Arabakoak baino askoz hobeak dira, inkestatutakoek diotenaren arabera, %9,2 baino ez baitaude lanik gabe. Bi lurralde horietan, hurrenez hurren, lan egin nahi duten gazteen %15ek eta %13,8k ez dute lanik aurkitzen.

3. taula: Gazteen biztanleria aktiboa

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Lanean edo lanean + ikasten | 87,1 | 90,6 | 83,1 | 86,8 | 83,8 | 89,2 | 86,2 | 90,8 | 85,0 |
| Langabezian | 12,9 | 9,4 | 16,9 | 13,2 | 16,2 | 10,8 | 13,8 | 9,2 | 15,0 |
| Guztira ehunekotan ... | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 765 | 403 | 362 | 53 | 278 | 434 | 109 | 250 | 406 |

Datu horiek 15-29 urte bitarteko gazteei egindako galdeketatik atera dira, beti ere, eta eurek diotenari jarraituz, lanean ari dira edo lanean laster hastekotan, hau da, biztanleria aktibo multzoan sartzen dira.

Azpimarratu beharreko beste arlo bat emakumeek lan-munduari begira duten kontra-egoera da. Gai hori, gainera, ez da inorentzat berria, arlo horrekin lotutako edozein azterketatan behin eta berriz azaltzen den errealitatea baita. Beraz emaitzei kasu eginez gero, euskal emakume gazteen langabezia mutilen langabezia halako bi da, hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan, emaitza orokorretan, ez da inolako aurrerapenik aurreikusten arazo horri dagokionez, emaitzak baikorragoak izan arren. Gipuzkoan mutilen %6 langabezian daude; neska langabetuak, berriz, %12,9 dira; beste lurraldeetan ere antzeko egoera dute emakumeek: Bizkaian (%11,3-%19,2) eta Araban (%10,7-17).

Adin-taldeetako desberdintasunei so eginez gero, langabezia-tasarik handiena 20-24 urte bitartean ematen da (%16,2), gazte talde handienak lan-munduan sartzeko erabakia hartzen duten garaian, hain zuzen ere. Ondoren, 25 eta 29 urte bitarte horretan, langabezia %10,8ra jaisten da.

Gizonezko zein emakumezkoen egoera adin-talde desberdinetan aztertuz gero (1. grafikoa), biztanleriaren osotasuna kontuan hartuz ematen diren aldeak hor egonda ere, emakumeentzat are emaitza larriagoak adierazten dituzte: 25 eta 29 urte bitartean (gazteriaren gehiengoa lanean hasi den garaian), emakumezkoen langabeziak (%15,6) ia 9 puntu ateratzen dizkio gizonezkoenari (%6,3).

Gazteen biztanleria aktiboarekin lotutako emaitzak eremu geografikoekin (4. taula) alderatzen baditugu, emaitza hauek lortzen ditugu: EAEko aktibitate-tasak espainiar Estatuarekin ia bat egiten dute; Kataluniakoarekin, ordea, ez, lan egiteko egoeran dauden gazteen ehunekoa handiagoa delako; eta Galiziakoarekin ere ez, lan egiteko egoeran dauden gazteen ehunekoa txikiagoa delako.

4. taula: Gazteen biztanleria aktiboa

(Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatu, Katalunia eta Galizia)

| | EG'00 | Estatua'00 | Katalunia'98 | Galizia'98 |
|-----------------------------------|-------|------------|--------------|------------|
| BIZTANLERIA AKTIBOA | 56,1 | 56,0 | 60,6 | 52,6 |
| Lanean edo lanean + ikasten . . | 87,1 | 75,0 | 90,6 | 56,5 |
| Langabezian | 12,9 | 25,0 | 9,4 | 43,5 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 765 | 1.380 | 1.212 | 421 |

Inuzia: bertan egina, ondorengo ikerketetan oinarrituta: CIS: 2000: 7 (Estatuko emaitzetarako), «Secretaria General de Joventut, 1999: 17 (Kataluniako emaitzetarako) eta Pérez-Díaz, V. (Zuz.) eta Rodríguez, J. C. (Koord.), 1998: 5 (Galiziako emaitzetarako).

Baina zalantzarik gabe, alde handienak langabezia-tasan aurkitzen ditugu. Hainbat inkestaren emaitzak alderatuz gero, EAE espainiar Estatu (bere osotasunean hartuta) baino egoera hobean egongo litzateke, horren langabeziaren erdia duelako (%12,9 eta %25, hurrenez hurren). Baina Kataluniako lan-egoera EAEkoa baino hobea da, hango langabezia-tasa %9,4 baita. Bestalde, Galiziako gazteen langabezia-tasa, beti inkesta horien arabera, oso handia izango litzateke: %43,5.

Hala ere, euskal gazteek lan-munduarekin duten harremanaren azpimarragarriena langabezia-tasa izan arren, badira beste errealitate batzuk, besteak beste: lan-baldintzak,

autoenplegurako jarrera edo mugikortasun laborala. Guztiak garrantzia handia dute eta jarraian aztertuko ditugu.

1.2. LAN-BALDINTZAK

Gizartea bere biztanleei lan-baldintza egokiak eskaintzeko gai denean, gizarte aurreratuagoa eta aurrerakoiagoa dela esan dezakegu. Gainera, gazteak etorkizunaren isla direla kontuan izanik, gazteek lan-baldintza egokiak izateak, neurri handi batean, etorkizun baikorra iragartzen du. Alderantziz, behin-behinekotasun laboralak gazteak zalantzarako eremuetara lotzen dituzenez, etorkizuna kolokan jartzen da, gazteen etorkizun pertsonala ez ezik, gizartearena berarene ere bai.

Lan-baldintzei buruzko azterketa ikuspegi askotatik egin daitekeen arren, gure ikuspegitik, hiru dira bereziki lan-baldintzetan eragin zuzen-zuzena duten elementu nagusiak:

- ▶ Egonkortasuna (antzinatasuna lanean eta kontratu-mota).
- ▶ Lanaldi mota (erdia/osoa).
- ▶ Baldintza ekonomikoak.

1.2.1. Egonkortasuna

Gazteen lan-egonkortasuna aztertzeko orduan, bi arlotan ipini dugu arreta nagusia: batetik, lanean daramaten denbora edo euren azken lanean eman zuten denbora; eta, bestetik, enpresarekin duten kontratu-mota (behin betikoa edo behin-behinekoa).

Lanean diharduten edo inoiz lan egin izan duten gazteetatik (5. taula), hamarretik ia lauk duela urtebete baino gutxiago lortu zuten lana, edo euren azken lanean urtebete baino gutxiago aritu ziren. %36,1 urte bat eta hiru bitartean darama lanean eta %24,2 hiru urte edo gehiago.

5. taula: Egonkortasuna lanean I: antzinatasuna

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Urtebete baino gutxiago | 39,6 | 36,3 | 43,3 | 78,0 | 46,7 | 30,6 | 44,8 | 34,3 | 41,4 |
| 1-3 urte bitartean | 36,1 | 33,7 | 38,9 | 20,0 | 41,6 | 34,8 | 30,4 | 38,5 | 36,2 |
| 3 urte baino gehiago . . . | 24,2 | 29,7 | 17,8 | 2,0 | 11,7 | 34,4 | 24,8 | 27,2 | 22,1 |
| Ed./Ee. | 0,1 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,3 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolut. . . | 728 | 391 | 337 | 50 | 257 | 421 | 105 | 239 | 384 |

Sexuak, oraingoan ere, desberdintasun azpimarragarriak eragiten ditu lanaz hitz egi-terakoan. Gizonezkoen ia %30ek hiru urte baino gehiago lanean daraman arren (edo lanean ibili zen), emakumezkoen ehuneko hori %17,8ra jaisten da.

Jakina, adinak lanean egindako denborarekin lotura zuzena duenez, gazteagoek denbora gutxiago daramate lanean. Edozein modutara ere, 25-29 urte bitarteko adin multzori begiratzen badiogu (adin horrekin gazteek erabateko integrazioa beharko lukete lan-munduan), ondorengoa ikus genezake: lana duten emakumeen %30ek urtebetetik behera daramatela lanean, eta %34,4k, berriz, hiru urte edo gehiago daramala.

Lurraldeka aztertuta, oraingoan ere Gipuzkoan bizi diren gazteen lan-egoera hobea da, beste lurraldeekin alderatuz gero, gazteetako askok (%27,2k) hiru urte edo gehiago daramatelako lanean; alderantziz, urtebetetik hona lana aurkitu dutenen ehunekoa txikiagoa da. Aipatutakoa kontuan izanik, ondorengoa esan genezake: Gipuzkoako gazteen lanek iraunkorragoak diruditela.

Euskal gazteriaren lan-egonkortasuna (lan-antzinatasunaren ondoriozkoa) Katalunia-koarekin edo Galiziakoarekin alderatuz gero, emaitzak ondorengoak dira (6. taula): Kataluniako gazteak egoera hobean daude, hirutik ia batek hiru urte baino gehiago baitarama bere lanpostuan; euskal zein galiziar gazteek, berriz, lautik batek baino ez darama denboraldi hori. Bestalde, EAEn urtebetetik behera lanean daramaten gazteen ehunekoa galiziarrena baino baxuagoa da.

6. taula: Egonkortasuna lanean I: antzinatasuna
(Datu konparatiboak: EAE, Katalunia eta Galizia)

| | EG'00 | Katalunia'98 | Galizia'98 |
|---------------------------------|-------|--------------|------------|
| Urtebete baino gutxiago | 39,6 | 34,8 | 42,1 |
| 1-3 urte bitartean | 36,1 | 21,9 | 32,5 |
| 3 urte baino gehiago | 24,2 | 32,5 | 25,4 |
| Ed./Ee. | 0,1 | 10,9 | — |

~~Iturria~~ bertan egina, ondorengo ikerketetan oinarrituta: «Secretaria General de Joventut, 1999: 18 (Kataluniako emaitzetarako) eta Pérez-Díaz, V. (Zuz.) eta Rodríguez, J. C. (Koord.), 1998: 6 (Galiziako emaitzetarako).

Lan-egonkortasunarekin lotutako bigarren ezaugarria kontratu-mota da (behin-behinekkoa, behin betikoa, noizbehinkakoa edo norbere kontura). Ildo horretatik (7. taula), lan egiten duten (edo lan egin izan duten) gazteen %46,2k behin-behinekoko kontratua dute; behin betiko kontratua, berriz, %34,8k baino ez daukate. Gainera, %9k noizbehinka egiten dute lan (edo egin izan dute) eta %8k bere kontura egiten dute lan.

7. taula: Egonkortasuna lanean II: kontratua

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Behin betikoa | 34,8 | 39,4 | 29,7 | 12,0 | 24,9 | 43,6 | 38,1 | 37,2 | 32,6 |
| Behin-behinekkoa | 46,2 | 44,5 | 48,1 | 60,0 | 56,7 | 38,0 | 51,4 | 44,8 | 45,6 |
| Norbere kontura | 8,0 | 9,7 | 5,9 | 2,0 | 5,1 | 10,5 | 3,8 | 10,0 | 7,8 |
| Noizbehinkakoa | 9,1 | 4,9 | 13,9 | 22,0 | 11,7 | 5,9 | 5,7 | 6,3 | 11,7 |
| Ed/Ee | 1,9 | 1,5 | 2,4 | 4,0 | 1,6 | 1,0 | 1,0 | 1,7 | 2,3 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 728 | 391 | 337 | 50 | 257 | 421 | 105 | 239 | 384 |

Aldagai horren azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakume izatea behin betiko kontratua lortzeko eragozpena dela ikus genezake. Kontratu-mota horrek ondorengo emaitzak erakusten ditu: gizonezkoen %39,4 kontratatuta daude; emakumeak, berriz, %29,7 baino ez, hau da, gizonezkoek 10 puntuko aldea ateratzen diete emakumezkoiei. Bestalde, noizbehinkako kontratu-motei dagokionez, emaitzak oso bestelakoak dira: emakumeen %13,9k horrelako kontratuak dituzte; gizonezkoek, berriz, %4,9k baino ez.

Adinari dagokionez, ondorengo esan dezakegu: gaztea heldutasunera hurbildu ahala, bere lan-egonkortasuna ere handituz doa. Behin-behineko kontratua duten edo lana noiz-behinka egiten duten gazteen (15-19 urte bitartekoak) ehunekoak %82tik %54,2ra jaisten da 25-29 urtekoekin alderatuz gero, nahiz eta kopuru horrek handia izaten jarraitzen duen.

Lurralde historikoen arabera, behin-behineko kontratua duten gazteen ehunekoak berdintsua da Araban eta Gipuzkoan (%38,1 eta %37,2, hurrenez hurren) eta apur bat baxuagoa Bizkaian (%32,6). Gazteen norbere kontuko lanari dagokionez, aipatzekoa da, baita ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko ehunekoak (%10 eta %7,8, hurrenez hurren) Arabakoa baino (%3,8) handiagoak direla.

Emaitza horiek Kataluniako gazteen datuekin alderatuz gero («Secretaria General de Joventut, 1999: 19»), EAeko gazteek behin-behineko kontratu-mota gehiago dituzte (%46,2) Kataluniakoek baino (%40), eta, alderantziz, katalanek behin betiko kontratu gehiago dituzte (%40,2) EAekoek baino (%34,9). Beraz, ondorio gisa ondorengo esan genezake: Kataluniako gazteen langabezia-tasa EAekoa baino txikiagoa izateaz gain, gazteen lan-egonkortasuna handiagoa da, bai antzinatasunari eta bai kontratu-motari dagokionez.

1.2.2. Lanaldia

Lanaldi motak (egun osokoak zein aldi batekoak) ere EAeko gazteen lan-baldintzei buruzko informazioa eman diezaguke. Ildo horretatik (8. taula), lanean ari diren edo lan egin izan dutenen laurdenak baino gehiagok soil-soilik aldi bateko lanaldiak dituzte edo izan dituzte. Emakumeei dagokienez, euren egoera gordinagoa izaten jarraitzen du kopuru hori %37,1era iristen baita.

8. taula: Lan egiten duten edo egiten zuten EAeko gazteen lanaldia

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Egun osoko lanaldia . . | 71,7 | 81,1 | 60,8 | 54,0 | 64,2 | 78,4 | 72,4 | 74,9 | 69,5 |
| Aldi bateko lanaldia . . | 26,4 | 17,1 | 37,1 | 46,0 | 34,6 | 19,0 | 27,6 | 23,8 | 27,6 |
| Ed/Ee. | 1,9 | 1,8 | 2,1 | 0,0 | 1,2 | 2,6 | 0,0 | 1,3 | 2,9 |
| Guztira ehunekotan . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 728 | 391 | 337 | 50 | 257 | 421 | 105 | 239 | 384 |

Adin-taldeei dagokienez, 25-29 urte bitarteko gazteetatik %19k aldi bateko kontratuak dituzte; %78,4k, berriz, egun osoko kontratua dute.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoak erakusten ditu berriz ere emaitzarik positiboak: gazteen %74,9k egun osoko lanaldia du; Bizkaian, berriz, %69,5ek baino ez du.

1.2.3. Ahalmen ekonomikoa

Azkenik, gazteen lan-baldintzei buruzko informazioa osatzen duen datua aztertuko dugu: egiten duten lanaren truke jasotzen duten soldata.

Lana duten gazteei egindako inkestatik jasotako datuen arabera (9. taula), ondorengo esanenez gertatzen da: gazteen %43,5ek 100.000 pta. baino gutxiagoko soldata dute eta %48,8k kopuru hori gainditzen dute. Orokorrean, lan egiten duten emakumeek gizonek baino soldata baxuagoak jasotzen dituzte.

Bestalde, lan egiten duten Bizkaiko emakume gazteek baliabide ekonomikoa gutxiago dituzte. Lautik batek 50.000 pta. baino gutxiago jasotzen du hilero. Araban eta Gipuzkoan, berriz, ehuneko hori erdira jaisten da. Gainera, bi lurralde horietan, Bizkaian baino askoz gazte gehiagok 100.000 pta. tik gorako soldatak jasotzen dituzte.

9 taula: Lan egiten duten gazteen baliabide ekonomikoak

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|----------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| 10.000 pta. baino gutxiago | 0,8 | 0,5 | 1,0 | 2,2 | 1,3 | 0,3 | 1,1 | 0,4 | 0,9 |
| 10.001-50.000 pta. | 18,5 | 15,1 | 22,6 | 50,0 | 24,9 | 10,9 | 11,7 | 11,5 | 24,9 |
| 50.001-100.000 pta. | 24,2 | 20,5 | 28,6 | 21,7 | 27,0 | 22,7 | 27,7 | 20,7 | 25,5 |
| 100.001-150.000 pta. ... | 31,8 | 34,2 | 28,9 | 15,2 | 27,9 | 36,2 | 34,0 | 36,1 | 28,4 |
| 150.000 baino gehiago .. | 17,0 | 22,2 | 10,6 | 4,3 | 12,0 | 21,4 | 21,3 | 20,7 | 13,3 |
| Ed/Ee. | 7,7 | 7,5 | 8,3 | 6,6 | 6,9 | 8,5 | 4,2 | 10,6 | 7,0 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 666 | 365 | 301 | 46 | 233 | 387 | 94 | 227 | 345 |

Edozein modutara ere, EAEn lan egiten duten gazteen ahalmen ekonomikoa Estatuakoa (bere osotasunean hartuta) baino handiagoa da (10. taula). Espainiar Estatuan, hilean 100.000 pta. baino gutxiago jasotzen duten gazteen kopurua EAeko baino 10 puntu handiagoa da. Bestalde, EAeko gazteen ia erdiek hilero 100.000 pta. baino gehiago jasotzen dute; Estatuan, berriz, %35era besterik ez dira heltzen.

10. taula: Lan egiten duten gazteen baliabide ekonomikoak
(Datu konparatiboak: EAE-espainiar Estatuak)

| | EG'00 | Estatu'00 |
|---|-------|-----------|
| 50.000 pta./hileko baino gutxiago | 19 | 19 |
| 50.001-100.000 pta./hileko | 24 | 34 |
| 100.001-150.000 pta./hileko | 32 | 24 |
| 150.000 pta./hileko baino gehiago | 17 | 11 |
| Ed/Ee. | 8 | 12 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 666 | 1.269 |

Iturria: bertan egina, Estatuak emaitzetarako CIS: 2000: 9 ikerketan oinarritua.

1.3. AUTOENPLEGUA LORTZEKO JARRERAK

Esan dezakegu, autoenplegua baliabide oso garrantzitsua dela gazteak lan-merkatuan sartzeko. Hala ere, horren garapen praktikoa eman dadin baldintza minimoak behar dira; lehendabizikoa, jarduera horri hasiera emateko jarrera da eta hori da, hain zuzen ere, jarrera aztertuko dugun arazoa (11. taula).

11. taula: Autoenplegua lortzeko jarrera. Pentsatu al duzu zeure lanpostu propioa sortzea?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lan-egoera | | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|------------|--------|---------------------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ikasten | Lanean | Ikasten + Lanean | Langabe |
| Ez dut planteatu | 60,9 | 59,3 | 62,5 | 69,5 | 61,8 | 53,2 | 64,8 | 59,1 | 57,4 | 47,5 |
| Agian aztertuko dut . . | 16,0 | 14,8 | 17,3 | 15,6 | 18,0 | 14,3 | 18,4 | 12,5 | 20,4 | 20,2 |
| Aztertzen ari naiz . . . | 11,1 | 10,9 | 11,2 | 10,2 | 11,0 | 11,8 | 12,0 | 9,1 | 12,0 | 16,2 |
| Dagoeneko egin dut . . | 10,0 | 12,7 | 7,3 | 2,4 | 7,6 | 18,4 | 2,9 | 17,2 | 9,3 | 13,1 |
| Ed/Ee. | 2,0 | 2,3 | 1,6 | 2,2 | 1,6 | 2,3 | 1,9 | 2,1 | 0,9 | 3,0 |
| Guztira ehunekotan . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 582 | 558 | 108 | 99 |

Hasieran, gazte gehienek ez dute autoenpleguaren aurrean jarrera irekiegirik azaltzen. Ikus ditzagun emaitzak: %60,9k ez dute aukera horretan pentsatu ere egin; %21,1ek seriotasunaz azertu dute edo ahalegina egin dute eta %16k diote etorkizunean aztertuko dutela agian. Ez dut planteatu, Agian aztertuko dut... Aztertzen ari naiz... Dagoeneko egin dut...

Arazo horri dagokionez, faktore bereizgarria da sexua. Gizonezkoek emakumezkoek baino jarrera zertxobait positiboagoa dute euren kontura lanean hasteko, baina benetako aldea, jarrera hori praktikara eramaterakoan dago: gizonezkoen %12,7k autoenpleguaren aldeko apustua egin du; emakumei dagokienez, %7,3k baino ez du egin.

Aukeratutako adin-talde desberdinei kasu eginez gero, ondorengo emaitzak ikus ditzakegu: gazteak lan egiteko garaira hurbildu ahala, autoenpleguaren aukera aztertzen ez dutenen ehunekoak behera egiten du eta aztertzen hasten direnen ehunekoak gora egiten du. Ildo horretatik, 25-29 urte bitarte horretan %18,4k autoenplegu jarduera propioak garatu ditu.

Langabezian dauden gazteen artean aukera hori aztertzeko, alde aurretiko jarrera handiagoa dagoela esan daiteke: %30 seriotasun handiarekin ari dira aztertzen edo horren aldeko apustua egin dute dagoeneko; hala ere, langabezian dagoen %47,5ek diote euren lanpostu propioa sortzeko saiakerarik ez dutela egingo. Dena dela, %20,2k diote etorkizunean, agian, aukera hori planteatu beharrean aurkituko direla.

Gure azterketarako beste talde garrantzitsu bat ikasleak dira, etorkizuneko langileak baitira. Ildo horretatik, ikasi baino egiten ez duten gazteen artean ematen da lanpostu propioa sortzeko aukera aztertzen ez dutenen ehunekorik handiena, hain zuzen ere, %64,8; %14,9k, ordea, aukera serioa iruditzen zaiela diote, edo dagoeneko saiakera egin dutela. Horrek guztiak ondorengo ondorioa garamatza: lan-merkatuan sartzeko unea heltzen denean hasten dira autoenplegua lana izateko benetako aukera gisa aztertzen, eta ez lehenago.

Kataluniako gazteei galdera bera egin ondoren ateratako datuei dagokienez (12. taula), norbere kontura lanean hasia aztertzen dutenen kopurua handiagoa da. Hala ere, dagoeneko jarduera hori abian ipini dutela dioten gazteen kopurua zertxobait handiagoa da EAEn (%10 eta %8,6, hurrenez hurren), hau da, katalan gazte gehiagok pentsatzen badute ere, EAEn gehiago dira benetako urratsa ematen dutenak.


12. taula: Autoenplegua lortzeko jarrera
(Datu konparatiboak: EAE-Katalunia)

| | EG'00 | Katalunia'98 |
|----------------------------------|-------|--------------|
| Ez dut aukera hori aztertu | 60,9 | 54,1 |
| Agian aztertuko dut | 16,0 | 19,3 |
| Aztertzen ari naiz | 11,1 | 13,4 |
| Dagoeneko egin dut | 10,0 | 8,6 |
| Ed/Ee. | 2,0 | 4,6 |
| Guztira ehunekatuta | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 2.000 |

Iturria: bertan egin, Kataluniako emaitzetarako «Secretaria General de Joventut, 1998: 23 ikerketan oinarrituta.

Laburbilduz, (2. grafikoa)¹, autoenpleguak ez du gazteen arreta gehiegi erakartzen. 25-29 urte bitarteko mutil langileak, batetik, eta langabetuak, bestetik, dira autoenpleguaren aldeko jarrera baikorrena dutenak. Emakumeak, gaztetxoak eta ikasleak dira, bestalde, euren kabuz lanpostua sortzeko jarrera ezkorrena dutenak.

2. grafikoa: Autoenplegua lortzeko jarrera, sexua, adin-taldeak eta egoera okupazionalaren arabera



¹ Grafikoa honetan adierazten diren «positiboa», «zalantzakoa» eta «negatiboa» kategoriak galdetegi 11. galderako erantzunak gehituz egin dira eta azkenean honela geratu da: Positiboa (Pentsatzen ari naiz, dagoeneko egin dut). Zalantzakoa (Oraindik ez dut planteatu, baina agian etorkizunean planteatuko dut, Ed/Ee). Negatiboa (Ez dut planteatu).

1.4. MUGIKORTASUN LABORALERAKO PRESTUTASUNA

Azkenik ondorengo gaia aztertuko dugu: gazteria zenbateraino dagoen prest lanaren eraginez bizitokia aldatzeko.

Hasteko (13. taula), EAEko gazteen %74,4 bizitokia aldatzeko prest egongo lirateke lanaren eraginez; %12,8k zalantzak azaltzen dituzte erabaki hori hartzeko orduan eta %11k diote, lan interesgarria eskainiko baliete ere, ez luketela inondik inora bizitokia aldatuko.

Bizitokiz aldatzeko jarrera irekiena duten kolektiboak ondorengoak dira: emakumeak (%76,2), nahiz eta gertuko mugikortasuna nahiago duten, aurrerago ikusiko dugun bezala; 20-24 urte bitarteko gazteak (%81,4); ikasleak (%77) eta bereziki, lana eta ikasi batera egiten dutenak (%80,6).

Egonkortasuna mugikortasunerako muga da, beraz, normala da lanean dabiltzanak eta adin handiagoa dutenak (teorian egonkortasun handiena dutenak) izatea lanaren eraginagatik bizitokia aldatzeko aurkako jarrera nabarmenena dutenak. Edozein modutan ere, eta baita aipatutako egoeretan ere, hamar gaztetik zazpi baino gehiago prest egongo lirateke euren bizitokia aldatzeko.

13. taula: Lanak eraginda, bizitokia aldatzeko prestutasuna

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lan-egoera | | | |
|-------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|------------|--------|---------------------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ikasten | Lanean | Ikasten + Lanean | Langabe |
| Bai..... | 74,4 | 72,7 | 76,2 | 69,7 | 81,4 | 71,4 | 77,0 | 71,5 | 80,6 | 73,7 |
| Agian..... | 12,8 | 13,5 | 12,0 | 14,3 | 10,6 | 13,9 | 10,8 | 14,0 | 11,1 | 18,2 |
| Inondik inora | 11,0 | 11,5 | 10,5 | 12,4 | 7,3 | 13,9 | 8,9 | 13,6 | 8,3 | 8,1 |
| Ed/Ee. | 1,8 | 2,3 | 1,3 | 4,6 | 0,7 | 0,8 | 3,3 | 0,9 | 0,0 | 0,0 |
| Guztira ehunek..... | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio abs. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 582 | 558 | 108 | 99 |

Gai horren inguruko azterketa beste maila batean eginez gero, EAEko gazteak nora aldatzeko prest egongo liratekeen aztertzeraz garrantzitsua. Ildo horretatik (3. grafikoa), %22,5ek munduko edozein tokitaraz leku aldatuko liratekeela diote. %6,7k diote joango liratekeela, baina Europar Batasuneko beste estatu batera joatekotan. %17k, ordea, euren mugak espainiar Estatuaren barnean ipintzen dituzte. Horrek guztiak esan nahi du, lanaren eraginez, EAEko gazteen %46,3 Euskal Autonomia Erkidegotik joateko prest daudela. Bestalde, EAE barnean leku aldatuko liratekeen kopurua %20koa da eta inguruko beste herri batera egingo luketenena %8,3. Azken bi horiek eta euren bizitokia inondik inora aldatuko ez luketenak (%11) kontuan hartuz %39,2ra heltzen dira.

EAEko gazteen mugikortasunerako prestutasuna oso antzekoa da espainiar Estatuan ematen diren emaitzekin. Ondorengo taulan (14. taula) ikus dezakegun bezala, espainiar Estatutik beste toki batera euren bizitokia aldatzeko prest azaltzen direnak heren batetik gertu daude (inguru geografiko batean zein bestean); bestalde, hamarretik ia zazpi diote ez daudela prest hori egiteko.

14. taula: Lanak eraginda espainiar Estatutik kanpo lekualdatzeko prestutasuna (Datu konparatiboak: EAE, espainiar Estatua eta Katalunia)


| | EG'00 | Estatua'97 | Katalunia'98 |
|-------------------------------|-------|------------|--------------|
| Bai | 29,3 | 31,5 | 41,6 |
| Ez | 68,9 | 67,2 | 55,9 |
| Ed/Ee. | 1,8 | 1,3 | 2,5 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan ... | 1.364 | 2.433 | 2.000 |

Iturria: bertan egina, ondorengo ikerketetan oinarrituta: CIS: 1999: 17 (Estatuko emaitzetarako) eta «Secretaria General de Joventut, 1999: 24 (Kataluniako emaitzetarako).

Konparazioa Kataluniako gazteekin eginez gero, oso bestelako datuak ezagutuko ditugu (14. taula), gazte horiek espainiar Estatutik kanpo bizitzeko duten prestutasuna EAE eta Estatuko gazteek dutena baino 10 puntu handiagoa baita.

Aztertu ditugun kolektiboak alderatuz gero, ondorengo emaitzak aurki ditzakegu (3. grafikoa): munduko edozein tokitara edo Europar Batasunaren baitako beste edozein tokitara lekualdatzeko eragozpen gutxien azaltzen dituztenak ikasten dabilzan (ikasten soilik zein lanarekin uztartuz) 20-24 urte bitarteko mutilak dira. Espainiar Estatu barruko mugikortasunaz hitz egiterakoan, sexua ez da faktore bereizgarria. Amaitzeko, emakumeek euren mugikortasunerako muga eremu hurbilagoan kokatzen dute (EAE barnean edo bizi diren inguruko herrietan); mutilek onartzen dituzten mugak, berriak, zabalagoak dira.

3. grafikoa: EAEko gazteen mugikortasunerako prestutasunaren eremua



ONDORIOAK

- Langabeziak EAEko gazteen ia %13ri eragiten die, emakumeei gizonetzkoen baino askoz modu gordinagoan eta are gehiago 20-24 urte bitartean daudenei nagusia-
goei baino. Gipuzkoa da langabetu gutxien dituen lurraldea, eta ondoren Araba.
- Lana duten gazteen lan-baldintzak ondorengoak dira: a) egonkortasun eskasa (10etik 6 langile gaztek lanean urtebete baino gehiago daramatela dioten arren, ia erdiak behin-behineko kontratua du); b) nolabaiteko lanaldi laburretan (lan egiten duten edo lan egin izan zuten gazteen laurdenak lanaldi laburretan ari-
tzen da) eta c) baldintza ekonomiko eskasak (lan egiten duten gazteen erdiak baino gutxiago dira 100.000 pta. irabazten dutenak hiler). Lan-baldintza horiek, emakumeen kasuan, are okerragoak dira nabarmen. Lurraldeka, gipuzkoar gaz-
teak dira lan-baldintza onenak dituztenak, eta bizkaitarrak, berriz, txarrenak di-
tuztenak.
- Orokorrean, autoenpleguak ez ditu gazteak erakartzen; autoenpleguaren aurre-
an jarrera irekiagoa dutenak gizonetzkoak, 25-29 urte ingurukoak, lanean dabil-
tzanak eta emakume langabetuak dira. Alderantziz, emakumeak, gaztetxoak
eta ikasleak dira euren kabuz lanpostua sortzeko jarrera ezkorrena dutenak.
- Munduko edozein tokitara lekualdatzeko eragozpen gutxien ipintzen dituztenak
ikasten ari diren edo ikasi eta lan egiten duten 20-24 urte bitarteko gizonetzkoak
dira. Lekualdatzeko tokia Europar Batasuna denean, antzeko profilarekin egiten
dugu topo, baina mugikortasun hori espainiar Estatuan bertan baldin bada, se-
xua ez da faktore bereizgarri izaten. Baina lekualdaketa inguru hurbilean denean
(EAEren barruan edo inguruko herrietara), emakumeek gizonak baino prestuta-
sun handiagoa azaltzen dute. Beraz, emakumeek, neurri handi batean, euren
mugikortasunerako muga eremu hurbilagoan kokatzen dute
- Amaitzeko, lan-munduan arreta berezia merezi duten bi arazo nagusi:
 - Garapen pertsonal egokia eta gizartean erabateko integrazioa bermatuko
duen lana eta lan-baldintza egokiak bilatzeko orduan, emakume izatea gazte
izateari eransten zaion zailtasuna da.
 - Bizkaia da gazteak lan-munduan modu egokian sartzeko zailtasun bereziak
azaltzen duen lurraldea.



2

Familia

Familiak, erakunde gisa ulertuta, historian zehar aldaketak jasan izan dituen arren, gizarteari oinarria ematen dion nahitaezko sare soziala izaten jarraitzen du, bereziki eragile sozializataile gisa betetzen duen funtzioagatik.

Atal honetan gazteek familiarekin duten harremana aztertzen ahaleginduko gara, eta horretarako ondorengo alorretan sakonduko dugu bereziki:

- ▶ *Familia-egoera.*
- ▶ *Emantzipazioa (independentzia ekonomikoa, adin ideala, zailtasunak).*
- ▶ *Familiarekiko jarrerak (asebetetze-poztasuna, funtzioak, seme-alaba kopurua, etxeko lanen banaketa).*

2.1. FAMILIA-EGOERA

EAEko gazteriaren familia-egoera aztertzen badugu (15. taula), ezkongabe daudenak gehiengoak direla ikus dezakegu. Hain zuzen ere, euskal gazte gehienak 30 urtera ezkongabe heltzen da, edo bere bikotearekin bizitzera joan gabe (%95). Aipatu bi aukera horiek, hurrenez hurren, %3k eta %1,7k baino ez dute betetzen.

Espainiar Estatuan (bere osotasunean hartuta), 1997. urtean, ezkongabe gazteen ehunekoa askoz txikiagoa zen, hain zuzen ere %85,8. 30 urte bete aurretik %14,2 ezkontuta zeuden (%13,2 ezkontuta, eta %1 dibortziatuta edo bananduta) (Centro de Investigación Sociológica, 1997: 20).

Hala ere, ez dugu uste egoera hori EAEko gazteek ezkontzaren edo bikote bizitzaren aurka duten jarrera gisa ulertu behar denik, baizik eta gurasoen etxebizitza uzteko ematen ari den atzerapenaren ondorio gisa, bereziki irteera hori gero eta beranduago ematen ari delako. Ildo horri jarraituz, euskal gazteak 25 urtetik aurrera hasten dira ezkontzen eta zerbait lehenago euren bikotearekin bizitzen, nahiz eta aukera horiek, adin horietan, gutxi batzuenak izaten jarraitzen duten.

Sexuaren araberako desberdintasun txikia hauteman daiteke, emakume gazte gehiago daudelako ezkontuta edo bikotekideekin bizitzen. Horrek erakusten du ema-

kumezkoak gizonezkoak baino gazteago uzten duela zelibatua. Ildo horri jarraituz, 30 urtetik beherako 100 gizonezkoetatik bakarra baino ez dago ezkondua, eta ia bi baino ez bere bikotekidearekin bizitzen. Emakumeei dagokienez, hurrenez hurren, bost eta bi dira.

15. taula: Familia-egoera

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Gizarte-klasea | | |
|-----------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|----------------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Ezkongabea | 95,0 | 97,1 | 92,9 | 99,7 | 98,2 | 88,0 | 98,4 | 95,1 | 91,2 |
| Ezkondua | 3,0 | 0,9 | 5,2 | 0,0 | 0,6 | 7,9 | 0,8 | 2,9 | 7,0 |
| Bikotekidearekin bizitzen . | 1,7 | 1,6 | 1,8 | 0,0 | 1,2 | 3,5 | 0,8 | 1,6 | 1,8 |
| Banandua, dibortziatua | 0,2 | 0,3 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,6 | 0,0 | 0,3 | 0,0 |
| Alarguna | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Ed/Ee | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 128 | 1100 | 114 |

Hala ere, alde handienak ez dira sexuaren arabekoak, gizarte-klaseen arabekoak baizik. Ezkondu edo bikotekidearekin bizitzera joateko orduan, beranduen gizarte-klase altukoak ibili ohi dira.

2.2. EMANTZIPAZIOA

2.2.1. Independentzia ekonomikoa

Gazteriaren arazoa aztertzerakoan behin eta berriz irteten da gazteek gurasoen etxebizitza berandu uzten dutela. Gazteak gurasoen etxebizitzan erosoegi daudela esaten da sarritan eta ildo horretatik, Ruiz Olabuenagak egoera horri «juventud liberta» izena eta definizio hau eman dio:

Kulturalki, etikoki eta politikoki libreak diren baina oraindik helduak ez diren hiritarren andana osatzen dute, hiritarren eskubide guztiak dituzte, baina sozialki esklabotzan daude, gainera kendu ezin duten langabezia-dirulaguntzen eta familiaren laguntzaren menpe. Eskubide demokratiko guztiak dituzte, gazte izateari uzteko eskubidea izan ezik eta gizaki helduak bezala bizitzen hasteko. (Ruiz Olabuenaga, 1998: 14)

Familiaren etxean bizitzen jarraitze hori EAEko gazteen artean agerian jartzen da, ia kasu gehienetan gurasoekin bizitzen jarraitzen dutelako. Hau da, 30 urtetik beherako gazteen (16. taula) ehunetik bederatzik bakarrik familiarekiko independentzia ekonomikoa dutela diote.

Familiaren etxebizitzan luzaroan egote hori adin-talderik handiengan suertatzen da bereziki harrigarria, 25-29 urte bitarteko gazteen artean, bostetik bat baino ez delako emantzipatu.

Dena dela, EAEko gazteriaren jokabidea ez da berdina hiru lurralde historikoetan; arabarrak dira gurasoengandik independizatzen lehenak. Araban 30 urtetik beherako gazteen artean, independentzia ekonomikoa dutela diotenak %14,6 dira.

16. taula: Zure kontura edo bikotekidearen kontura eta familatik bereizita bizi al zara?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Gizarte-klasea | | |
|-------------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Bai | 9,2 | 0,5 | 4,9 | 20,5 | 14,6 | 7,6 | 8,6 | 5,5 | 9,1 | 14,9 |
| Ez | 90,5 | 99,2 | 94,7 | 79,3 | 85,4 | 92,4 | 90,8 | 93,8 | 90,6 | 85,1 |
| Ed/Ee | 0,3 | 0,3 | 0,4 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,7 | 0,3 | 0,0 |
| Guztira ehunekot | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio abs. | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 128 | 1100 | 114 |

Dirudienez, gizarte-klasea euskal gizartea segmentatzen duen faktorea da berriz ere, familatik independizatzeaz hitz egiterakoan. Gizarte-klase baxuko 30 urtetik beherako gazteen %15ek gurasoengandik independentzia ekonomikoa lortu dute; gizarte-klase altuko gazteek, berriz, %5,5 baino ez dira independizatu.

Edozein modutara ere, independentzia ekonomikoa diru-sarrerek zehazten dute. Ildo horretatik, euskal gazteriari hilero batez beste jasotzen duen diru-kopuruaz galdetzera-koan (17. taula), %54k 50.000 pta. baino gutxiago lortzen dutela jakin dezakegu; ildo beretik, lautik ia batek 10.000 pta. baino ez dute jasotzen hilero. Kontrako muturrean, talde txiki batek (%9k) 150.000 pta. baino gehiago lortzen du hilero eta, azkenik, %17 inguruk 100.000 eta 150.000 pta. inguru jasotzen dute.

17 taula: Zenbat diru izaten duzu hilero batez beste?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Egoera okupazionala | | | | |
|---------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|---------------------|--------|---------------------|---------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ikasten | Lanean | Ikasten + Lanean | Langabe | Besteak |
| 10.000 pta.tik behera ... | 23,0 | 21,7 | 24,4 | 61,2 | 14,5 | 2,7 | 50,1 | 0,7 | 0,9 | 15,2 | 11,8 |
| 10.001 - 50.000 pta..... | 31,0 | 27,8 | 34,3 | 29,9 | 44,1 | 18,0 | 43,0 | 12,5 | 49,1 | 48,5 | 11,8 |
| 50.001 - 100.000 pta.... | 14,1 | 13,1 | 15,1 | 3,2 | 15,5 | 20,9 | 2,6 | 23,1 | 29,6 | 14,1 | 11,8 |
| 100.001 - 150.000 pta. .. | 16,8 | 19,0 | 14,5 | 1,9 | 13,7 | 31,5 | 0,5 | 36,3 | 9,3 | 10,1 | 23,5 |
| 150.000 pta.tik gora | 9,1 | 12,4 | 5,7 | 0,8 | 6,7 | 18,0 | 0,9 | 19,0 | 6,5 | 1,0 | 29,3 |
| Ed/Ee | 6,0 | 6,0 | 6,0 | 3,0 | 5,5 | 8,9 | 2,9 | 8,4 | 4,6 | 11,1 | 11,8 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 582 | 558 | 108 | 99 | 17 |

Diru-sarreraren maila hori sexuaren arabera aldatzen da, gizonezkoek emakumezkoek baino baliabide ekonomiko handiagoak baitituzte. Adibidez, 10.000 pta. hileko lortzen ez duten nesken kopurua mutilena baino askoz handiagoa da, eta alderantziz, 100.000 pta. baino gehiago jasotzen duten nesken kopurua askoz txikiagoa da.

Hala ere, alderik nabarmenenak adinaren eta egoera okupazionalaren arabera aurkituko ditugu. Zentzuzkoa den bezala, adinak gora egin ahala diru-sarrerak eta lan-merkatuan sartzeak ere gora egiten dute. Beraz, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeak eta ikasleak dira, neurri handi batean, hilean 10.000 pta. baino gutxiago eskura dezaketenak. Bestalde, langabezia daudenak eta ikasi eta lan egin egiten duten gehienak 10.000 eta 50.000 pta. bitarteko diru-sarrerak dituzte hileko. 25-29 urte bitarte horretan, lan egiten dutenek 100.000 eta 150.000 pta. inguru izaten dute hileroko.

Aipagarria da, bestalde, 25-29 urte bitarteko gazteen artean, bostetik batek 50.000 pta. baino gutxiago jasotzen duela hileroko. Errealitate horrek argi adierazten du oraindik helduak ez diren gazte askok gurasoengandik independentzia osoa eta heldutasun pertsonal osoa lortzeko zailtasun ugari dituztela.

2.2.2. Emantzipaziorako adinik egokiena

Errealitate sozial hori, hau da, gazteak familiaren etxebizitzan luzaroan egon behar izatea, kontraesan sakonean dago gazte horiek duten idealarekin.

Kontraste hori ederki ikus dezakegu ondorengo datuekin: EAEko 30 urtetik beherako gazteen %90,5ek diote ez direla independente ekonomikoki. Hala ere, ia erdiek uste dute emantzipatzeko adinik egokiena 20-25 urte bitartekoa dela (18. taula); adin egokiena 26-30 urte ingurukoa dela pentsatzen duten gazteen kopurua baxuagoa da. Espainiar Estatuko (bere osotasunean hartuta) gazte gehienek diote emantzipaziorako adinik egokiena, batez beste, 24,04 urteak direla (CIS, 1997: 3). Edozein modutara ere, EAEko gazteriaren %91,3k uste dute emantzipazioa 31 urte bete aurretik eman behar dela. Aurrerago ikusi ahal izan dugun bezala, egunerokotasunetik nahiko urruti dago ideal hori.

Gaztetxoena, hau da, 15 eta 19 urte bitartekoek dira gurasoengandik emantzipatzeko adin idealik goiztiarrena jartzen dutenak (gehienez, 26 urte bete aurretik). Alderantziz, 25-29 urte dituztenek emantzipatzeko unerik egokiena 26-30 urte bitartea dela diote. Badirudi horrek zera esan nahi duela: gaztaroko lehen urteetan planteatutako idealak urteak betetzearekin batera atzeratu egiten direla.

Arestian esan dugun bezala, arabarrak dira euren familiengandik independentzia ekonomikoa lortzen duten lehenak. Hala ere, horrek ez du txikitzen emantzipatzeko adin

18. taula: Zein da familiarengandik emantzipatzeko adinik egokiena?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Gizarte-klasea | | |
|------------------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| 20 urte baino lehen | 3,4 | 7,5 | 1,8 | 2,1 | 2,5 | 3,3 | 3,8 | 4,7 | 3,1 | 5,3 |
| 20-25 urte bitartean | 45,9 | 61,7 | 44,9 | 34,8 | 53,8 | 46,4 | 43,5 | 43,8 | 45,0 | 57,0 |
| 26-30 urte bitartean | 42,0 | 24,0 | 44,9 | 52,8 | 40,7 | 39,1 | 44,1 | 47,7 | 42,9 | 29,8 |
| 31-35 urte bitartean | 2,5 | 1,1 | 2,7 | 3,3 | 0,5 | 2,1 | 3,2 | 0,8 | 2,5 | 4,4 |
| 35 urtetik aurrera | 0,4 | 0,0 | 0,6 | 0,4 | 0,5 | 0,7 | 0,1 | 0,8 | 0,3 | 0,9 |
| Ed/Ee | 5,8 | 5,7 | 5,1 | 6,6 | 2,0 | 8,4 | 5,3 | 2,2 | 6,2 | 2,6 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 128 | 1100 | 114 |

ideala eta errearen artean dagoen tartea, gazte horiek emantzipazio goiztiarrago baten alde egiten dutenak baitira. Hain zuzen ere, arabar gazteen %56,3k pentsatzen dute gazteek 26 urte bete aurretik emantzipatu behar dutela (iritzi berekoak dira gipuzkoarren %49,7 eta bizkaitarren %47,3).

Gizarte-klasea ere faktore bereizgarria da, gizarte-klase baxuko gazteek lehenago emantzipatu behar dutela uste baitute. Horietako %62,3rentzat emantzipatzeko adin ideala 26 urte dira; gizarte-klase altuko eta erdikoentzat, berriz, horrela pentsatzen dutenen ehunekoa %48ra jaisten da.

2.2.3. Emantzipatzeko eragozpenak

Horregatik guztiagatik ondorio hau atera dezakegu: EAEko gazteriak familiarekin duen dependentzia ekonomikoko garaia emantzipatzeko idealtzat hartzen duen adina baino gehiago luzatzen du. Kontraesan garrantzitsu horri erantzuna bilatzeko, zenbaitzuek ez dute zalantzarik izan eta arazo estrukturaletan bilatu dute, besteak beste, arrazoi hauek emanez: prestakuntza garaia luzea (horrek lan-merkatuan sartzeko darraren atzerapenarekin), lehendabiziko lana aurkitzeko dituzten zailtasunak eta gazteen langabezia tasa handiak, etxebizitza lortzeko dauden arazoak eta abar.

Beste batzuek, berriz, familia uzterakoan ematen den atzerapenari erantzuna bilatzeko orduan gazteen erosotasuna aipatzen dute. Erosotasun horrek, familiaren gehiegizko babesa estal lezake, erantzukizunak hartzeko beldurra eragin lezake eta gazte garaia amaierarik gabe luzatzea gerta liteke, gazteak Peter Panak izango balira bezala.

Gazte horien erantzunak aztertuz gero (19. taula), guztien artean arrazoi ekonomikoak dira behin eta berriz errepikatzen direnak. Ildo horretatik, EAEko 30 urtetik beherako gazteen %91,1k diote etxetik joateko duten eragozpenik handiena etxebizitzaren prezio garestia (erosteko zein alokatzeko) dela. Eragozpen hori inkestatutako gazteetatik ia guztiek aipatu dute, sexuak, adinak edo gizarte-klaseak desberdintasunik eragin gabe. Lurraldeka, arabarrak izan dira gehien aipatu dutenak (%94,5), eta gizarte-klase altukoak %87,5ek aipatu dute.

19. taula: Zein izan dira/izango lirake zeure kontura bizitzeko izan dituzun/izango zenituzkeen zailtasunak?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | | Gizarte-klasea | | |
|-----------------------------|---------|--------|------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | Gizon. | Ema. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Etxeb. prezioak | 91,1 | 91,1 | 91,0 | 91,9 | 92,2 | 89,2 | 94,5 | 89,6 | 90,9 | 87,5 | 91,1 | 93,9 |
| Diru-sarrera ezak | 64,0 | 57,3 | 71,0 | 76,8 | 70,6 | 47,2 | 58,3 | 61,6 | 66,9 | 60,9 | 63,5 | 71,9 |
| Erosotasuna | 49,6 | 51,1 | 41,9 | 66,3 | 54,5 | 31,7 | 45,7 | 50,4 | 50,3 | 51,6 | 50,8 | 36,8 |
| Familia aurka | 7,8 | 7,2 | 8,5 | 19,7 | 5,3 | 1,4 | 4,0 | 10,6 | 7,3 | 7,0 | 8,0 | 4,4 |
| Guztira balio abs. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 128 | 1100 | 114 |

Galderak independenteak dira.

Garrantziari jarraituz, bigaren arrazoiak ondoko hau da: berezko diru-iturria lortzeko duten zailtasuna, arazo hori %64k aipatu baitute, eta hemen bai azaltzen dira sexuen, adi-

nen, lurraldeen eta gizarte-klaseen arteko aldeak. Arazo hori gehien aipatu duten sektoreak ondorengoak dira: emakumeak, gaztetxoak (15-19 urte bitartekoak), bizkaitarrak eta gizarte-klase baxuena dutenak bereziki.

Bestalde, EAEko gazteen familiek ez dute eragozpenik jartzen gazteak euren kabuz bizitzera joateko. Eragozpen hori gazteen %7,8ri baino ez zaie azaltzen, eta gehienetan 15-19 urte bitartekoei, kasu horietan %19,7ra igotzen baita. Datu horien arabera, gazteak gurasoen etxean egoteak ez du esan nahi gurasoek euren kabuz bizitzen uzten ez dietenik, baizik eta egoerak eragiten duela edo gazteak etxean jarraitu nahi duela; edozein modutara ere, gurasoak egoera hori onartu egiten dute.

Aurrerago aipatutakoaren arabera, gazteak gurasoen etxean bizitzen jarraitzeko eta euren kabuz bizitzera ez joateko ezintasunaren arrazoi nagusiak bi dira: a) etxebizitza lortzeko arazoa eta b) diru-iturri propioak lortzeko eragozpenak.

Hala ere, ondorengo galdera egin beharra daukagu: ustezko ezintasun horren azpian, gazteak gurasoen etxean bizitzen jarraitzeko arazoia ez al da izango gazteek hartzen duten jarrera eroso? Galdera hori egiteko arazoiak badaude, bereziki, gurasoen etxetik kanpo bizitzera doazen gazteen kopurua euren ahalmen ekonomikoa handitzen den neurrian handitzen bada ere, hilean 150.000 pta. baino gehiago irabazten duten eta gurasoekin bizi diren gazteen kopurua %22,6koa baita.

Ildo horretatik, horri buruzko iritziak oso banatuta dauden arren, EAEko gazteriaren erdiak uste du gurasoekin erosoago bizitzen egotea euren kabuz bizitzera joateko eragozpen bat dela. Iritzi berri horrek susmo bat indartzen du: zenbait gaztek gurasoen etxean bizitzen jarraitzea nahiago dutela.


Iritzi horrek, dena dela, behera egiten du gazteak helduz doazen neurrian eta emantzipazioaren errealtateari aurre egiten dioten neurrian. Adibidez, 25-29 urte bitarteko hiru gaztetik batek baino gutxiagok uste du erosotasuna etxetik joateko arazoi bat dela; 15-19 urte bitarteko gazteen artean, berriz, hirutik bik uste dute hori (19. taula). Uste dugu horrek zera esan nahi duela: eroso sentitzen direlako gurasoekin bizitzen jarraitzea nahi duten gazte helduen multzoa egon daitekeen arren, gehienek gurasoekin bizitzeko beste aukerarik ez dutela, gehienetan arrazoi ekonomikoengatik.

EAEko gazteen iritzia Kataluniako gazteenarekin alderatzen badugu (4. grafikoa), ikus dezakegu gazte katalanek arrazoi materialak gutxiago aipatzen dituztela, besteak beste, etxebizitza garestiak (%51,2rentzat benetako eragozpena da) eta diru-iturri propioen eskasiak (%57,6). Hala ere, gazte katalan gehiagok (hain zuzen ere, %15,1ek) uste dute etxetik joateko eragozpenak gurasoek jartzen dituztela.

15 eta 24 urte bitarteko Europako gazteriarentzat² ere (Commission Européenne, 1997: 2) bitarteko materialen gabezia da gurasoen etxetik ez irteteko arrazoi garrantzitsuenetako bat (%74,1), nahiz eta etxebizitzarena arazo txikiagoa den (%27,9).

² Kontuan izan behar da Europako ikerketan emantzipazioari buruzko galdera ez datorrela bat gure ikerketan egindakoarekin, eta, gainera, hiru erantzunetarako aukera baino ez du ematen.

4. grafikoa: Emantzipaziorako zailtasunak
(Datu konparatiboak EAE-Katalunia)



Iturria: Bertan egina, «Secretaria General de Joventut, 1998: 40-42»-an oinarritua (Kataluniako datuetarako).

2.3. FAMILIAREKIKO JARRERAK

2.3.1. Familiaren poztasun-asebetetze maila

EAEko gazteek gurasoen etxetik emantzipatzeko garaia eurek adierazten duten adin ideala baino gehiago luzatzea frustrazio-elementua izan liteke, etxeko giroa nahastu eta gaztea eta familiaren arteko harremana oker lezake. Hala ere, 20. taularen datuak ikusi eta gero, ematen duenez ez da hori gertatzen. Ildo horretatik, ikus dezakegu 30 urtetik beherako EAEko gazteen %96 oso gustura daudela familiarekin duten harremanekin; hain zuzen ere, %59k diote oso gustura daudela eta %37k nahiko gustura daudela.

20. taula: Zenbateraino zaude gustura zure familia-bizitzarekin?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Familia-egoera | | |
|------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|----------------|----------|----------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkongai | Ezkondua | Bikotean |
| Oso | 58,8 | 53,7 | 64,1 | 58,5 | 59,6 | 58,2 | 58,4 | 78,0 | 47,8 |
| Nahiko | 37,2 | 41,2 | 33,2 | 36,9 | 36,3 | 38,5 | 37,6 | 22,0 | 47,8 |
| Ez hain gustura | 3,1 | 3,9 | 2,2 | 3,8 | 2,9 | 2,7 | 3,2 | 0,0 | 0,0 |
| Batere ez | 0,6 | 0,9 | 0,3 | 0,3 | 0,8 | 0,6 | 0,5 | 0,0 | 4,3 |
| Ed/Ee | 0,3 | 0,3 | 0,2 | 0,5 | 0,4 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 |
| Guztira ehunekat ... | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio abs. ... | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 1296 | 41 | 23 |

Poztasun-maila emakumezkoen artean handiagoa da: %64k diote familia-giroarekin oso gustura daudela; gizonezkoetatik, berriz, %54k esaten dute. Gainera, gustura ez dau-

den (ez hain gustura edo batere ez) gizonezkoen multzoak, txikia izanik ere (%4,8), neskena bikoizten du.

Bestalde, adin-taldean desberdintasun gutxi antzematen dugu familiarekiko poztasun-mailari dagokionez; agian, 15-19 urte bitarteko gazteak dira ez hain gustura ageri direnak, eta nahiko zentzuzkoa dirudi, nerabezaroan sortzen baitira guraso eta seme-alaben arteko belaunaldi-arazo handienak, eta gehienetan, gaztea heldutasunera hurbildu ahala, gatazkak indarra galduz joaten dira. Edozein modutara ere, ez dirudi alde horiek euskal gazteen familia giroan ondorioak izatera hel daitezkeenik.

Zalantzarik gabe, ezkontza da familia-poztasunik handiena sortzen duen errealitatea. Ezkondutako gazte gehienak pozik daude hartutako erabaki horrekin: hamarretik zortzik oso pozik daudela diote eta hamarretik bik nahiko pozik daudela euren familia-bizitzarekin. Hala ere, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteek poztasun-maila baxuagoa azaltzen dute, eta gainera badira batere pozik ez daudela diotenak. Dena dela, talde horretako lagina txikia denez, arestian esandakoa kontu handiz erabili behar da.

Edozein modutara ere, dirudenez gurasoen etxeko giroak poztasun handia eskaintzen die EAEko gazteei. Gauza bera gertatzen da espainiar Estatuko (bere osotasunean hartuta) gazteekin; 1997. urtean jasotako datuen arabera, gazteen %97,2 familiarekin nahiko gustura zeudela esaten zuten (CIS, 1997: 4).

EAEko gazteen poztasun-maila Kataluniakoekin alderatuz gero, ondorengo emaitzak ditugu (21. taula): Kataluniako gazteen poztasun-maila zertxobait baxuagoa da; %91,6 gustura daude (EAEn %96) eta %45 oso gustura daude (EAEn %58,8). Dena dela, bai Katalunian eta bai EAEn, familiak betetzen omen du gazteenek berarengan ezarri duten itxaropena.

21. taula: Familiarekin gustura.
(Datu konparatiboak EAE-Katalunia)

| | EG'00 | Katalunia'98 |
|---------------------------------|-------|--------------|
| Oso gustura | 58,8 | 45,0 |
| Nahiko gustura | 37,2 | 46,6 |
| Ez oso gustura | 3,1 | 6,5 |
| Inondik inora gustura | 0,6 | 0,9 |
| Ed/Ee | 0,3 | 1,0 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 2.000 |

Iturria: bertan egina, «Secretaria General de Joventut, 1998: 40» oinarritua (Kataluniako emaitzetarako) ikerketan oinarritua.

2.3.2. Familiaren betebeharrak

Bere kideak kohesionatzen duen oinarritzko erreferentzia-marko gisa irudikatu du soziologiak familia. Kohesio hori pertsonen arteko harremanetan zenbait eremutan ematen diren elkartasun-maila handietan islatzen da. Ildo horretatik, zenbait elkartasun motari

buruz hitz egin genezake: a) elkartasun funtzionala: familiaren eremuan eta horrek zenbait funtzio material edo asistentziazkoak betetzen dituenean; b) elkartasun afektiboa: familiako kideen artean sentimendu baikorrek elkar trukatzeko dituztenean; c) adostasunezko elkartasuna: familiako kideek balio-, jarrera- eta sinesmen-multzo komunak dituztenean, eta, azkenik, d) elkartasun elkarkorra: familiako kideak hainbat ekintzatan sarritan elkartzen direnean.

Familiak bete dezakeen elkartasun funtzional eta afektiboarekin harremana duten zenbait funtziori EAEko gazteek ematen dioten garrantzia aztertzen ahaleginduko gara jarraian:

Elkartasun funtzionalaren adierazgarri nabarmenena behar materialen asebetetzea da (22. taula). Funtzio horri buruz, 15-29 urte bitarteko EAEko gazteek iritzi nahiko polarizatuak dute: hirutik birentzat garrantzitsua da (%18rentzat oso garrantzitsua eta %46rentzat nahiko garrantzitsua); bestalde, hirutik batek ez dio balorazio onik ematen (%31rentzat ez du garrantzirik). Aipatzekoa da, baita ere, gaztea helduz doan neurrian funtzioak garrantzia galtzen duela, agian gero eta gaitasun gehiago duelako aipatutako behar material horiek berak zuzenean lortzeko.

22. taula: Zein garrantzi ematen diozu familiaren betebeharrak hauetako bakoitzari?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Familia-egoera | | |
|------------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|----------------|----------|----------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkongai | Ezkondua | Bikotean |
| BEHAR MATERIALAK ASETU | | | | | | | | | |
| Garrantzi handia. | 17,9 | 17,3 | 18,5 | 21,8 | 16,5 | 16,4 | 18,0 | 2,0 | 8,7 |
| Nahiko garrantzi. | 45,8 | 46,2 | 45,5 | 49,3 | 44,7 | 44,3 | 40,1 | 39,1 | 47,8 |
| Garrantzi txikia. | 30,7 | 32,5 | 28,8 | 24,8 | 31,6 | 34,4 | 30,6 | 34,1 | 34,8 |
| Inolako garrantzirik ez. | 3,3 | 2,4 | 4,2 | 1,9 | 4,7 | 2,9 | 3,3 | 2,4 | 0,0 |
| Ed/Ee. | 2,3 | 1,6 | 3,0 | 2,2 | 2,5 | 2,0 | 2,0 | 2,4 | 8,7 |
| KONPAINIA | | | | | | | | | |
| Garrantzi handia. | 61,6 | 54,3 | 69,2 | 60,9 | 61,4 | 61,3 | 61,0 | 82,9 | 56,5 |
| Nahiko garrantzi. | 35,0 | 41,7 | 28,1 | 35,0 | 34,5 | 35,6 | 35,7 | 14,6 | 34,8 |
| Garrantzi txikia. | 2,3 | 2,6 | 1,9 | 3,0 | 2,5 | 1,4 | 2,3 | 2,4 | 0,0 |
| Inolako garrantzirik ez. | 0,6 | 0,7 | 0,4 | 0,5 | 0,8 | 0,4 | 0,5 | 0,0 | 4,3 |
| Ed/Ee. | 0,5 | 0,7 | 0,4 | 0,6 | 0,8 | 0,3 | 0,5 | 0,1 | 4,4 |
| LAGUNTZA MORALA ETA AHOLKUA | | | | | | | | | |
| Garrantzi handia. | 66,9 | 58,8 | 75,3 | 67,7 | 66,9 | 66,5 | 66,7 | 80,5 | 60,9 |
| Nahiko garrantzi. | 29,8 | 36,5 | 22,9 | 28,3 | 29,4 | 31,5 | 30,2 | 17,1 | 30,4 |
| Garrantzi txikia. | 2,3 | 3,2 | 1,3 | 3,5 | 2,4 | 1,2 | 2,3 | 2,4 | 0,0 |
| Inolako garrantzirik ez. | 0,5 | 0,7 | 0,3 | 0,0 | 0,8 | 0,6 | 0,5 | 0,0 | 4,3 |
| Ed/Ee. | 0,5 | 0,8 | 0,2 | 0,5 | 0,5 | 0,2 | 0,3 | 0,0 | 4,4 |
| MAITASUNA | | | | | | | | | |
| Garrantzi handia. | 74,3 | 66,2 | 82,7 | 72,0 | 73,5 | 76,8 | 73,8 | 92,7 | 60,9 |
| Nahiko garrantzi. | 24,0 | 31,1 | 16,7 | 25,6 | 24,7 | 22,2 | 24,5 | 7,3 | 30,4 |
| Garrantzi txikia. | 1,0 | 1,4 | 0,4 | 1,6 | 0,6 | 0,8 | 1,0 | 0,0 | 0,0 |
| Inolako garrantzirik ez. | 0,4 | 0,7 | 0,1 | 0,5 | 0,6 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 4,3 |
| Ed/Ee. | 0,3 | 0,6 | 0,1 | 0,3 | 0,6 | 0,2 | 0,4 | 0,0 | 4,4 |
| Guztira ehunetotan. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 1296 | 41 | 23 |

Elkartasun afektiboarekin harremana duten funtzioek babes handiagoa jasotzen dute EAEko gazteen aldetik. Izan ere, %62rentzat oso garrantzitsua baita lagunartea, %67rentzat laguntza morala eta aholkua eta %74rentzat maitasuna. Hiru adibide horiei garrantzi handiagoa ematen diete emakumezkoek gizonezkoek baino eta ezkonduak ezkongabeek edo ezkondu gabe bikotekidearekin bizi direnek baino.

Orokorrean, laburbilduz, ondorengo esan genezake: EAEko gazteriak familian gehien baloratzen duena elkartasun afektiboarekin lotutako baloreak direla (maitasuna, laguntza morala eta aholkua edo lagunartea), elkartasun funtzionalarekin lotutakoen gainetik (adibidez, behar materialen asebetetzearen gainetik).

Kataluniako gazteriar dagokionez, antzekoa esan genezake (23. taula), salbuespen batekin: gazte katalanentzat behar materialen asebetetzeak EAEko gazteentzat baino garrantzi gehixeago hartzen du. Bestalde, afektibitatearekin lotutako funtzioak oso edo nahiko garrantzitsuak direla uste dutenak ehunekotan gutxiago badira ere, horrela uste dutenek garrantzi handiagoa ematen diote.

23. taula: Familiaren betebeharren garrantzia
(Datu konparatiboak EAE-Katalunia)

| | Garrantzi handia | | Nahiko garrantzi | | Garrantzi txikia | | Inolako garrantzirik ez | | Ed/Ee | |
|----------------------------|------------------|--------|------------------|--------|------------------|--------|-------------------------|--------|-------|--------|
| | EG'00 | Kat'98 | EG'00 | Kat'98 | EG'00 | Kat'98 | EG'00 | Kat'98 | EG'00 | Kat'98 |
| Behar materialak | 17,9 | 33,0 | 45,8 | 34,5 | 30,7 | 21,9 | 3,3 | 8,1 | 2,3 | 2,6 |
| Konpainia. | 61,6 | 66,4 | 35,0 | 25,8 | 2,3 | 5,3 | 0,6 | 0,8 | 0,5 | 1,5 |
| Laguntza morala + aholkua | 66,9 | 75,4 | 29,8 | 18,4 | 2,3 | 4,0 | 0,5 | 0,6 | 0,5 | 1,6 |
| Maitasuna | 74,3 | 84,2 | 24,0 | 11,8 | 1,0 | 1,8 | 0,4 | 0,3 | 0,3 | 1,9 |

Iturria: bertan egina, Kataluniako emaitzetarako «Secretaria General de Joventut, 1999: 37-39» ikerketan oinarrituta.

2.3.3. Seme-alaben kopurua

Gazteek familiarekiko duten jarreraz hitz egiterakoan, ezin dugu ahaztu seme-alaben gaia. Arazo horrek garrantzi berezia hartzen du EAEn, jaiotza-tasak kezkatzeko modukoak baitira.

24. taula: Zenbat seme-alaba dituzu?

| | Guztira | Sexua | | Familia-egoera | | |
|--------------------------|---------|-----------|---------|----------------|----------|----------|
| | | Gizonezk. | Emakum. | Ezkongabea | Ezkondua | Bikotean |
| Bat ere ez | 97,4 | 99,1 | 95,7 | 99,5 | 31,7 | 95,7 |
| Bat | 1,5 | 0,3 | 2,7 | 0,2 | 39,0 | 4,3 |
| Bi | 1,0 | 0,3 | 1,6 | 0,2 | 26,8 | 0,0 |
| Hiru | 0,1 | 0,3 | 0,0 | 0,1 | 2,5 | 0,0 |
| Guztira ehunekot. . . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio abs. . . . | 1.364 | 695 | 669 | 1.295 | 41 | 23 |


Jaiotza-tasa baxua (24. taula) agerian gelditzen da, inkestatutako 30 urtetik beherako gazteek esandakoaren arabera %2,6k bakarrik dutelako seme-alabaren bat. Ehuneko hori espainiar Estatukoa baino askoz txikiagoa da, 1994. urtean gazteen %16k seme-alabaren bat baitzuen (CIRES, 1997: 254).

Aitatasunari edo amatasunari buruz hitz egiterakoan, alde txikiak daude sexuaren arabera: emakumezkoak gizonezkoak baino zerbait lehenago hasten dira haurrak izaten. 30 urtetik behera ama diren lau emakumetik, gizonezko bakarra baino ez dago.

Hala ere, seme-alabak izateko elementurik erabakigarriena egoera zibila da: ezkontutakoen %68,3k seme-alabak dituzte; ezkongabeek, berriz, %0,5ek baino ez dute eta bikoteidearekin (ezkondu gabe) bizi direnen %4,3k. Horrekin guztiarekin zera esan nahi dugu: seme-alabak izatea ala ez dela hainbeste bikote-bizitzaren ondorioa, baina bai, ordea, ezkontzarena. Beraz, argi dagoela esan genezake, EAEko gazteek nahiago dutela familia-eredu tradizionala eta seme-alabak ezkontzaren baitan izatea.

Bestalde, aurrerago aipatu izan dugun gurasoen etxebizitzatik berandu irtete horrek garrantzi handia du, eta ez bakarrik seme-alabak izan ala ez erabakia hartzerakoan, baizik eta zenbat seme-alaba izan erabakitzerakoan ere bai. Ildo horri jarraituz zera ikus genezake: seme-alabak dituzten 30 urtetik beherako gazteen gehiengoak (hain zuzen ere, %57,1ek) seme-alaba bakarra baino ez duela; hirutik batek baino gehiagok bi ditu eta %5,7k baino ez dute familia ugaria (5. grafikoa).

5. grafikoa: EAEn seme-alabak dituztenen seme-alaba kopurua



Zenbat seme-alaba izan nahiko luketen galdetzerakoan (25. taula), %50ek bi izan nahi dituela erantzun dute; familia ugaria izan nahi dutela dioten kopurua, berriz, %14tik beherakoa da. %6,6k seme-alabarik ez duela izan nahi esaten duela kontuan izanik, ezin dugu esan EAEko belaunaldi-ordezkapena bermatuta dagoenik.

25. taula: Zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldea | | | Seme-alabak dituzte | |
|------------------------------|---------|--------|-------|-------------|-------|-------|---------------------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Bai | Ez |
| Bat ere ez | 6,6 | 6,0 | 7,2 | 6,2 | 6,5 | 7,0 | 2,9 | 6,9 |
| Bat | 7,8 | 6,6 | 9,0 | 6,7 | 6,7 | 9,7 | 22,9 | 7,4 |
| Bi | 50,5 | 49,8 | 51,3 | 52,6 | 50,8 | 48,7 | 42,9 | 50,7 |
| Hiru | 11,3 | 7,3 | 5,4 | 12,1 | 11,8 | 10,1 | 5,7 | 11,4 |
| Lau edo gehiago | 2,6 | 2,3 | 2,8 | 2,7 | 2,6 | 2,5 | 5,7 | 2,5 |
| Datozenak | 2,2 | 2,4 | 1,9 | 1,9 | 2,2 | 2,5 | 5,7 | 2,1 |
| Ez du pentsatu | 18,0 | 24,5 | 11,4 | 17,3 | 19,0 | 17,6 | 5,7 | 18,4 |
| Ee. | 1,0 | 1,1 | 1,0 | 0,5 | 0,4 | 1,9 | 8,6 | 0,8 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio abs. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 35 | 1.329 |

Gizonezkoak eta seme-alabarik ez dituztenak dira horretan gutxien pentsatu dutenak.

Gainera, datu horiek 1997koekin (26. taula) alderatzen baditugu, ondorengoa ikus dezakegu: orduan, bi edo hiru seme-alaba izan nahi zuten EAEko gazteen kopurua espainiar Estatuko gazteena baino baxuagoa bazen ere, ehuneko horrek oraindik beherago egin duela azken hiru urteotan.

26. taula: Gogokoen duten seme-alaben kopurua (Datu konparatiboak EAE-Katalunia)

| | EG'00 | EAE'97 | Estatua'98 |
|-------------------------------------|-------|--------|------------|
| Bat ere ez | 7 | 1 | 1 |
| Bat | 8 | 5 | 4 |
| Bi | 50 | 53 | 58 |
| Hiru | 11 | 18 | 26 |
| Lau edo gehiago | 3 | 4 | 6 |
| Datozenak | 2 | 1 | 2 |
| Ez du pentsatu | 18 | — | — |
| Ez dago kopuru idealik | — | 17 | — |
| Ed/Ee. | 1 | 2 | 3 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 1.799 | 2.497 |

Iturria: Bertan egina, ondorengo ikerketetan oinarrituta: Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1997: 86 (1997ko EAEko emaitzetarako) eta «Centro de Investigaciones Sociológicas, 1998: 4» (Estatuko emaitzetarako).

2.3.4. Etxeko lanen banaketa

Bikote gazteek (ezkonduak zein ezkongabeek) etxeko lanak nola banatzen dituzten aztertuz gero, familia-eredu berrietan inposatzen ari diren balioei buruzko ideia orokorra ikus dezakegu. Balio horiek elkartasun funtzionalari (hau da, bikotekideen artean dagoen lotura sozialari) zein sexuen arteko berdintasunari dagozkie.

Aipatzekoa da, halaber, ezkontuta zein ezkondu gabe egon arren bikote-bizitza duten gazte askok (%40 inguruk) etxeko lanak bikotekidearekin zuzenean banatuta egiten dituztela. Ematen duenez, ardurak berdin banatzeak eta elkartasun funtzionalak nabarmen egin du aurrera, 30 urtetik beherako gazteen jokabidea aurreko belaunaldikoekin alderatzen badugu behintzat.

27. taula: Zuk eta zure bikoteak egiten dituzuen etxeko lanetatik, zein egiten dituzu zuk?

| | Guztira | Sexua | |
|---|---------|--------|-------|
| | | Gizon. | Emak. |
| Denak ni bakarrik | 9,4 | 0,0 | 12,9 |
| Gehiena nik, bikoteak laguntzen dit | 34,4 | 5,9 | 44,7 |
| Banaketa zuzena egiten dugu | 40,6 | 41,1 | 40,4 |
| Gehienak nire bikoteak, nik lagundu | 10,9 | 41,2 | 0,0 |
| Denak nire bikoteak | 3,1 | 11,8 | 0,0 |
| Ed/Ee | 1,6 | 0,0 | 2,1 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 64 | 17 | 47 |

ONDORIOAK

- EAEko gazteen gehiengoa, ezkondu gabe edo bikotearekin bizitzera joan gabe heltzen da 30 urtera, emakumezkoak eta gizarte-klase baxuko gazteak zertxobait goiztiarragoak badira ere.
- Gazteek gurasoen etxean ematen dituzten urteei dagokienez, kontraesan nabarmena dago pentsatzen dutenaren eta benetan gertatzen denaren artean. 30 urtetik beherako gazteen %9k gurasoengandik ekonomikoki independizatuta bizi direla dioten bitartean, %91,3k uste dute emantzipazioa 31 urte bete aurretik eman behar dela.
- EAEko gazteak gurasoen etxean nahi baino luzaroago bizitzeko arrazoiak, nagusiki, etxebizitza eta diru-iturri propioak lortzeko zailtasun ekonomikoak dira; hau da, euren kabuz bizitzera joateko aukerarik ez dutelako.
- 30 urtetik beherako EAEko ia gazte gehienek diote euren familia-bizitzarekin oso gustura edo nahiko gustura daudela.
- EAEko gazteek gehien estimatzen dituzten baloreak elkartasun afektiboarekin lotutakoak dira (besteak beste, maitasuna, laguntza morala eta aholkua edo lagunartea), elkartasun funtzionalaren gainetik (adibidez, behar materialen asebetetzea).
- EAEko gazte gehienek ez dute seme-alabarik; hala ere, diotenez, izatekotan bi izango lituzkete.
- Bikote gazteen artean hamarretik lauk etxeko lanak modu zuzenean banatzen dituzte, nahiz eta oraindik gehiengoa den lan guztiak bakarrik edo bikotekideak lagunduta egiten dituzten emakumeen kopurua.
- Amaitzeko, gazteak eta familia gaiarekin lotutako bi ondorio nagusi:
 - Familia ez da erakunde ahula eta zentzu gutxikoa; are gehiago, gizarte modernoan nahitaezko funtzioa betetzen jarraitzen du, funtzio berriak osatzeko egoera berrietara egokitu bada ere, adibidez, gazteak emantzipatzeko dituen arazoan aurrean babesleku bilakatu.
 - EAEko gazteek dituzten zailtasun ekonomikoak (langabezia eta lan-baldintza eskasen eraginez) familia berriak beranduago sortzea eragiten ari da eta horrek, bere aldetik, ondorio nabarmenak eragingo ditu aldagai sozio-demografikoetan (jaiotza-tasa baxuak, biztanleriaren zahartzea eta abar) eta euskal gizartearen etorkizuna baldintzatuko du.



3

Aisialdia

Gizarte, garai eta kultura guztietan, betidanik egon izan da aisia deitzen diogunaren antzeko zerbait; baina, hala ere, aisiaren jatorria, jende ororentzako gizarte fenomeno gisa ulerturik behintzat, industrializazio eta industrializazio ondorengo prozesuetan bilatu beharra dago, eta, batik bat, bi prozesu horien ondorio diren hiru gertakaritan:

- ▶ Lanaldiaren murriztapena. Izan ere, lanaldi laburragoari esker denbora libre gehiago izaten baita eta eguneko denbora bi alditan banantzen nabarmen: lanaldia (beharrari, obedientziari, zorrotasunari, eta abarri lotua) eta denbora libre (desobedientziari, arauak hausteari, eta abarri lotua).
- ▶ Ongizate Estatuaren garapena. Ongizateari esker, familiek baliabide ekonomiko handiagoak dituzte, eta, horren ondorioz, denbora libre erabiltzeko aukera gizarte-klase guztietara zabaltzen da.
- ▶ Aisialdiko industriaren hedapena. Sektore honetan indar handiko merkatua dagoela ikusi ahal izan da.

Gertakari horiekin batera kultura-aldaketa batzuk ere gertatu ziren, noski, eta ideologietatik bizi-estiloetara iragaitean adierazten dira. Horrela, aisialdiko jarduerak, kultura aldetik, gizabanakoek hautatutako eta amestutako bizi-estiloak gauzatzeko baliabide zehatzak bihurtu ziren, nahiz eta baliabide horiek marketing-mundutik eta masa-hedabideetatik sortuak eta sustatuak izan.

Kapitulu honetan zehar, EAEko gazteriaren aisialdiarekin zerikusia duten hainbat alderdi aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, ondorengo gaiak jorratuko ditugu:

- ▶ Aisialdia edukitzea.
- ▶ Aisialdiko jarduerak.
- ▶ Asoziazionismo-motak.
- ▶ Internet: esperientzia eta erabilera.

3.1. AISIALDIA EDUKITZEA

Kataluniako gazteriarekin alderatuta, EAEko gazteek nahikoa denbora libre dute. Hori adierazten dute, behintzat, astegunetan aisialdirako dauzkaten ordu-kopuruek (ikus 28. taula; Kataluniako gazteriaren datuak: Secretaria de Joventut, 1998: 49). Hain zuzen ere, EAE-

ko gazteen %34,2k hiruzpalau ordu libre dituzte egunero eta %38,7k lau ordu baino gehiago; katalanek, berriz, %29,7k hiruzpalau ordu dituzte eta %29k lau ordu baino gehiago. Denbora libre gutxien daukatenei dagokienez, EAEko gazteen %4,2k ordubete baino gutxiago daukate libre; katalanek, berriz, %6,7k daukate libre denbora tarte labur hori.


Dirudienek, emakumezkoek denbora libre gehiago daukate gizonezkoek baino; halaber, gazteenek diote denbora gutxiago dutela, eta berdina diote gizarte-klase gorenetan kokatutakoek. Nolanahi ere, aldeak oso txikiak dira, eta horrek adierazi nahi du aisialdia oso gizarte-balio hedatua dela, ia guztien eskura dagoela.

28. taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Gizarte-klasea | | |
|----------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|----------------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Ordubete baino gutxiago | 4,2 | 3,2 | 5,2 | 2,7 | 4,9 | 4,6 | 3,1 | 4,0 | 6,1 |
| Ordubete-bi ordu | 21,9 | 23,7 | 20,0 | 26,1 | 18,4 | 22,4 | 25,8 | 21,7 | 19,3 |
| Hiruzpalau ordu | 34,2 | 34,4 | 33,9 | 34,8 | 32,9 | 35,0 | 33,6 | 34,1 | 38,6 |
| Lau ordu baino gehiago . . | 38,7 | 37,4 | 40,2 | 35,6 | 42,7 | 37,0 | 35,2 | 39,5 | 36,0 |
| Ed/Ee | 1,0 | 1,3 | 0,6 | 0,8 | 1,1 | 1,0 | 2,3 | 0,7 | 0,0 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 128 | 1.100 | 114 |

Alabaina, aldagai hori gazteen lan-egoera kontuan izanik aztertuz gero (6. grafikoa), aldeak nabarmenagoak dira. Horrela, langabezian daudenek denbora libre gehiago daukate lanean ari direnek, ikasten dutenek edo ikasi eta lan egiten dutenek baino.

6. grafikoa: EAEko gazteek aisialdirako duten denbora, lan-egoeraren arabera



Horrez gain, adierazgarria da «etxeko lanetan» aritzen direnek (guztiak emakumezkoak) gainerako guztiak baino denbora libre gutxiago izatea (kontuan izan beharra dago, ordea, gure laginaren barruan oso talde txikia dela). Nolanahi ere, datu horrek gauza bat adierazten digu: aisialdia gizarte-balio orokortutzat hartzea gizarte-aurrerape-na baldin bada, gerta litekeela etxekoandreen kolektiboa aurrerapen horretatik bazter-tuta geratzea.

3.2. AISIALDIKO JARDUERAK

Gazteriaren aisialdia bi ikuspegitatik aztertu dugu. Alde batetik, gazteek aisialdian gehien egiten dituzten jarduerak zein diren jakin nahi izan dugu, hau da, batez ere ikus-pegi orokorra ezagutu nahi izan dugu. Baina, bestalde, gure ikerketa aberasgarriagoa izan dadin, EAEko gazteriak aisialdian egiten dituen jarduera-mota nagusiak ere bildu di-tugu, asko edo gutxi egiten diren kontuan izan gabe.

3.2.1. Aisialdiko jardueretarako denbora

Denbora librean egiten diren aisialdiko jarduerak hainbat eragileren baitan daude, besteak beste, norberaren zaletasunak eta gustuak, denbora librearen zenbatekoa eta abar (ezin ahaztu, halaber, eragile ekonomikoa, garrantzitsua baita). Alabaina, aurreko guztiez gain, gizarte-ohiturek ere eragin handia daukate, itxuraz dirudiena baino han-diagoa.

29. taula: Astegunetan egiten diren aisialdiko jarduerak

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | | Gizarte-klasea | | |
|--|---------|-------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | Giz. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Telebista ikusi | 90,5 | 89,2 | 91,9 | 95,1 | 89,4 | 88,2 | 91,5 | 89,4 | 90,9 | 89,1 | 90,7 | 90,4 |
| Lagunekin ibili | 86,0 | 87,3 | 84,6 | 91,9 | 86,5 | 81,0 | 85,9 | 85,4 | 86,4 | 88,3 | 85,5 | 89,5 |
| Prentsa, aldizkariak | | | | | | | | | | | | |
| irakurri | 79,8 | 77,8 | 81,9 | 75,9 | 80,4 | 83,9 | 74,9 | 81,2 | 80,4 | 84,4 | 79,4 | 78,9 |
| Liburuak irakurri | 61,1 | 51,7 | 71,0 | 55,3 | 63,5 | 63,1 | 61,3 | 57,2 | 63,4 | 62,5 | 60,4 | 64,0 |
| Tabernetara joan | 57,0 | 53,8 | 60,2 | 42,3 | 64,5 | 60,2 | 50,8 | 56,7 | 58,8 | 53,9 | 57,0 | 60,5 |
| Paseatu | 56,7 | 51,9 | 61,6 | 52,8 | 59,6 | 56,5 | 56,8 | 55,8 | 57,2 | 65,6 | 55,6 | 58,8 |
| Kirola egin | 53,5 | 63,3 | 43,3 | 66,6 | 51,6 | 45,5 | 53,8 | 59,1 | 50,3 | 64,8 | 53,2 | 41,2 |
| Ordenagailua | 40,2 | 44,2 | 36,9 | 44,2 | 41,6 | 38,9 | 39,7 | 42,6 | 39,7 | 43,8 | 40,2 | 38,6 |
| Kultura-ikuskizunak . . | 36,4 | 36,3 | 36,5 | 28,6 | 38,2 | 40,4 | 35,7 | 39,5 | 34,7 | 47,7 | 35,4 | 36,0 |
| Mendian ibili | 19,3 | 20,1 | 18,4 | 22,9 | 18,2 | 17,6 | 9,5 | 22,6 | 20,0 | 15,6 | 19,5 | 19,3 |
| Kirol-ikuskizunak | 15,2 | 18,7 | 11,5 | 18,1 | 14,7 | 13,5 | 18,1 | 16,0 | 13,9 | 20,3 | 14,6 | 16,7 |
| Asoziazionismoa/ boluntario-lanak | 9,5 | 8,8 | 10,2 | 9,7 | 10,0 | 8,7 | 11,1 | 11,5 | 7,8 | 13,3 | 9,0 | 8,8 |
| Diskoteketara joan . . . | 6,5 | 6,8 | 6,1 | 4,9 | 6,9 | 7,2 | 5,0 | 5,4 | 7,4 | 7,0 | 6,1 | 8,8 |
| Jarduera politikoak . . . | 5,1 | 4,9 | 5,4 | 5,7 | 5,3 | 4,6 | 3,5 | 4,7 | 5,8 | 6,3 | 4,8 | 7,9 |
| Jarduera erlijiosoak . . | 4,2 | 4,7 | 3,6 | 5,7 | 4,5 | 2,7 | 3,5 | 5,6 | 3,5 | 7,0 | 3,7 | 5,3 |
| Beste batzuk | 36,1 | 36,8 | 35,4 | 39,9 | 36,9 | 32,5 | 46,2 | 36,0 | 33,5 | 42,2 | 34,6 | 43,9 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 199 | 740 | 425 |

Galdera independenteak dira; horregatik, ehunekoan batuketa 100etik gorakoa da.
Datu hauek gazteek «egunero» eta «noizean behin» egiten dituzten jarduerari dagozkie.

Horrela, EAeko gazteriak aisialdian egiten dituen jarduerak aztertuz gero, jardueretako asko 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazte gehienek egiten dituztela ikusiko dugu, adibidez, telebista ikusi, lagunekin ibili eta prentsa irakurri. Jarduera horiek hamar gaztetik zortzi-bederatzik egiten dituzte, bai astegunetan (29. taula), bai asteburuetan (30. taula), eta egunero-egunero erdiek baino gehiagok egiten dituzte. Telebista ikustea eta prentsa irakurtzea gizarte modernoko ohitura soziokulturalak dira (eta mendebaldeko munduko ohitura unibertsal ere badirela esan genezake); lagunekin ibiltzea, berriz, oso ohitura errotua da gure artean.

Gazte askok astegunetan zein asteburuetan egiten dituzten beste ohitura batzuk hauexek dira: tabernetara joan, paseatu, liburuak irakurri, kirolen bat egin eta ordenagailuarekin entretenitu. Baina, arestian aipatutako jarduerekin alderatuta, gutxiago egiten dituzte.

Jarraian, batez ere asteburuetako aisialdian egiten diren jarduerak nabarmenduko ditugu, astegunetan egiten direnetatik bereizteko. Horien artean, bereziki nabarmendu beharra dago tabernetara joatea; izan ere, jarduera hori EAeko gazteen erdiek baino gehiagok egunero egiten baitute asteburuetan, eta %92,3k, berriz, sarritan.

30. taula: Asteburuetan egiten diren aisialdiko jarduerak

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | | Gizarte-klasea | | |
|--|---------|-------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | Giz. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Lagunekin egon | 96,3 | 96,1 | 96,6 | 97,8 | 96,9 | 94,6 | 97,0 | 96,9 | 95,8 | 96,1 | 96,4 | 95,6 |
| Tabernetara joan | 92,3 | 91,1 | 93,6 | 87,9 | 95,5 | 92,3 | 94,5 | 91,1 | 92,4 | 94,5 | 92,4 | 88,6 |
| Telebista ikusi | 88,1 | 87,6 | 88,6 | 92,2 | 88,2 | 84,9 | 85,4 | 85,9 | 90,1 | 90,6 | 88,5 | 82,5 |
| Prentsa, aldizkariak irakurri | 84,7 | 83,6 | 85,8 | 79,2 | 86,1 | 87,4 | 84,9 | 85,9 | 83,9 | 90,6 | 84,1 | 83,3 |
| Kultura-ikuskitunak | 78,7 | 77,0 | 80,6 | 74,4 | 79,4 | 81,4 | 73,9 | 81,2 | 78,6 | 82,0 | 78,8 | 75,4 |
| Paseatu | 72,1 | 66,5 | 78,0 | 67,1 | 73,5 | 74,5 | 75,4 | 69,6 | 72,7 | 75,8 | 72,0 | 71,9 |
| Diskoteketara joan | 66,8 | 67,1 | 66,5 | 74,1 | 69,8 | 58,0 | 68,8 | 58,8 | 70,8 | 74,2 | 66,7 | 57,0 |
| Mendian ibili | 58,1 | 59,0 | 57,2 | 59,0 | 59,0 | 56,5 | 59,8 | 59,1 | 57,2 | 53,9 | 58,2 | 61,4 |
| Liburuak irakurri | 57,0 | 48,3 | 65,9 | 49,9 | 59,8 | 59,4 | 53,8 | 51,3 | 61,1 | 62,5 | 56,1 | 57,0 |
| Kirola egin | 56,8 | 70,8 | 42,3 | 59,3 | 58,6 | 53,0 | 60,3 | 58,8 | 54,7 | 65,6 | 56,8 | 48,2 |
| Kirol-ikuskitunak | 43,5 | 55,3 | 31,4 | 48,0 | 43,1 | 40,6 | 47,2 | 45,4 | 41,5 | 48,4 | 43,7 | 36,8 |
| Ordenagailua | 35,9 | 40,1 | 31,4 | 43,1 | 36,3 | 29,8 | 39,7 | 36,7 | 34,3 | 38,3 | 35,6 | 33,3 |
| Jarduera erlijiosoak | 11,0 | 10,6 | 11,4 | 14,3 | 10,2 | 9,3 | 12,1 | 12,5 | 9,9 | 20,3 | 10,4 | 6,1 |
| Asoziazionismoa/ boluntario-lanak | 10,1 | 9,4 | 10,9 | 10,8 | 11,0 | 8,7 | 13,6 | 11,3 | 8,5 | 14,8 | 9,5 | 9,6 |
| Jarduera politikoak | 5,9 | 5,9 | 6,0 | 6,5 | 5,7 | 5,8 | 4,0 | 6,4 | 6,2 | 9,4 | 5,4 | 7,9 |
| Beste batzuk | 41,7 | 43,0 | 40,4 | 44,5 | 42,7 | 38,5 | 51,8 | 39,5 | 40,3 | 45,3 | 40,6 | 49,1 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 199 | 740 | 425 |

Galdera independenteak dira; horregatik, ehunekoan batuketa 100etik gorakoa da. Datu hauek gazteek «egunero» eta «noizean behin» egiten dituzten jarduerari dagozkie.

Tabernetara joateaz gain, EAeko gazte asko asteburuko egunen batean kultura-ikuskitunetara ere joaten da, adibidez, kontzertuetara, zinemara edo antzerkara (zehazki, gazteen %78,7); edo paseatzera (%72,1), diskoteketara (%66,8) edo mendira ere bai (%58,1). Jarduera horiek guztiak oso gutxitan egiten dira astegunetan.

Beste alde batetik, EAeko gazteen artean gutxi batzuek baino ez dituzte egiten jarduera asoziatiboak edo boluntario-lanak, jarduera erlijiosoak edo politikoak. Hala ere, inkestari erantzun dioten gazteen %10 inguruk euren aisialdiko denbora noizean behin asteburuetan lehenengo bi jardueretan pasatzen dute, eta %6k hirugarrengoa.

Ondorengo lerrootan, kolektiboen arteko aldeak aztertuko ditugu (hau da, sexua-
ren, adin-taldearen, gizarte-klasearen eta lurraldearen arabera desberdintasunak ikusi-
siko ditugu), orokortasunean ez erortzeko eta gazte guztiek euren denbora librean ber-
din jokatzen dutela ez pentsatzeko (29. eta 30. taulak). Horrela, sexuaren arabera
aztertuz gero, ikusiko dugu neskek gehiago paseatzen eta irakurtzen dutela (bai libu-
ruak, bai aldizkariak eta egunkariak) mutilek baino; kirola egitea, kirol-ikuskizunetara
joatea eta ordenagailuaren aurrean entretenitzea, berriz, mutilek sarriago egiten dituz-
te neskek baino.

Adinak ere eragina izaten du egiten den aisialdiko jardueran. Horrela, 15-19 urteko
nerabeek, gainerakoekin alderatuta, ondorengo jarduerak sarriago egiten dituzte: tele-
bista ikusi, kirola egin (batik bat astegunetan), ordenagailuarekin entretenitu eta aste-
buruetan diskoteketara joan; halaber, gazteenek gutxiago irakurtzen dute, tabernetara
ez dira hainbeste joaten, ezta kultura-ikuskizunetara ere, baina bai, ostera, kirol-ikuski-
zunetara.

Lurralde historikoei dagokienez, Arabako gazteek euren denbora librea batez ere pa-
seatzen pasatzen dute; bizkaitarrak, berriz, asteburuetan batez ere telebista ikusten ari-
tzen dira, diskoteketara joaten dira eta liburuak irakurtzen dituzte, Arabakoak eta Gi-
puzkoakoak baino gehiago, behintzat. Azkenik, Gipuzkoako gazteak gehiago joaten dira
kultura-ikuskizunetara, eta astegunetan kirol gehiago egiten dute eta mendian gehiago
ibiltzen dira beste herrialdeetakoak baino.

Gizarte-klaseari dagokionez, klase altuetako gazteek mota askotako jarduerak egiten
dituzte aisialdian. Horrela, klase altuetako gazteek aisialdian egunkariak eta aldizkariak
irakurtzen dituzte, paseatzen ibiltzen dira, asteburuetan diskoteketara joaten dira, kirola
egiten dute, ordenagailuarekin entretenitzen dira, kultura- eta kirol-ikuskizunetara joaten
dira eta asoziazionismo-, boluntario- eta erlijio-jardueretan parte hartzen dute, beti ere
klase baxukoek baino gehiago.

Beste alde batetik, EAeko gazteriaren aisialdiko jarduerak Kataluniako gazteenekin
alderatuz gero (31. eta 32. taulak), jarduerak gutxi gorabehera antzekoak direla ikusiko
dugu eta bien arteko aldeak aurkitzeko jarduera bakoitza egiten duen gazte-kopuruetara
jo beharko dugu.

Horrela, EAeko gazteriak, astegunetan zein asteburuetan, telebista gehiago ikusten
du eta proportzioan prentsa, aldizkari eta liburu gehiago irakurtzen ditu; Kataluniako
gazteak, berriz, gehiago joaten dira diskoteketara eta kirol-ikuskizunetara, gehiago ari-
tzen dira jarduera politikoetan (nahiz eta gutxi izan, EAeko gazteen ehunekoak bikoiztu
egiten dituzte) eta asoziazionismoan eta boluntario-lanetan ere ibiltzen dira.

Jarduerak noiz egiten direnaren arabera (astegunetan, asteburuan), alde nabarmenak
daude. Horrela, Kataluniako gazteak, astegunetan, EAekoak baino gehiago joaten dira
kultura-ikuskizunetara, baina asteburuetan EAekoak zertxobait gehiago joaten dira kata-
lanak baino. Jarduera erlijiosoetan ere gaiza bera gertatzen da.

31. taula: Aisialdia EAEn eta Katalunian, astegunetan

| ASTEGUNETAN | EG'00 | ASTEGUNETAN | Katalunia'98 |
|-------------------------------------|-------|-------------------------------------|--------------|
| Telebista ikusi | 90,5 | Lagunekin ibili | 85,4 |
| Lagunekin ibili | 86,0 | Telebista ikusi | 76,9 |
| Prentsa, aldizkariak irakurri | 79,8 | Prentsa, aldizkariak irakurri | 69,0 |
| Liburuak irakurri | 61,1 | Paseatu | 59,4 |
| Tabernetara joan | 57,0 | Liburuak irakurri | 57,7 |
| Paseatu | 56,7 | Kirola egin | 56,5 |
| Kirola egin | 53,5 | Kultura-ikuskizunak | 48,4 |
| Ordenagailua | 40,2 | Kirol-ikuskizunak | 44,4 |
| Kultura-ikuskizunak | 36,4 | Ordenagailua | 41,2 |
| Mendian ibili | 19,3 | Diskoteketara joan | 29,8 |
| Kirol-ikuskizunak | 15,2 | Asoziazionismoa/boluntario-lanak .. | 17,2 |
| Asoziazionismoa/boluntario-lanak .. | 9,5 | Jarduera politikoak | 11,5 |
| Diskoteketara joan | 6,5 | Jarduera erlijiosoak | 10,5 |
| Jarduera politikoak | 5,1 | Tabernetara joan | — |
| Jarduera erlijiosoak | 4,2 | Mendian ibili | — |
| Gutzira balio absolututan | 1.364 | Gutzira balio absolututan | 2.000 |

Galdera independenteak dira; horregatik, ehunekoan batuketa 100etik gorakoa da. Datu hauek gazteek «egunero» eta «noizean behin» egiten dituzten jardueri dagozkie. ~~Iturria~~ bertan egina, oinarri gisa Secretaria de Joventut, 1998: 49-60 hartuta.

32. taula: Aisialdia EAEn eta Katalunian, asteburuetan

| ASTEBURUETAN | EG'00 | ASTEBURUETAN | Katalunia'98 |
|-------------------------------------|-------|-------------------------------------|--------------|
| Lagunekin ibili | 96,3 | Lagunekin ibili | 89,9 |
| Tabernetara joan | 92,3 | Telebista ikusi | 76,3 |
| Telebista ikusi | 88,1 | Paseatu | 75,3 |
| Prentsa, aldizkariak irakurri | 84,7 | Kultura-ikuskizunak | 72,6 |
| Kultura-ikuskizunak | 78,7 | Diskoteketara joan | 71,2 |
| Paseatu | 72,1 | Prentsa, aldizkariak irakurri | 65,2 |
| Diskoteketara joan | 66,8 | Mendian ibili | 59,6 |
| Mendian ibiltzea | 58,1 | Kirola egin | 57,3 |
| Liburuak irakurri | 57,0 | Liburuak irakurri | 53,0 |
| Kirola egin | 56,8 | Kirol-ikuskizunak | 51,4 |
| Kirol-ikuskizunak | 43,5 | Ordenagailua | 37,1 |
| Ordenagailua | 35,9 | Asoziazionismoa/boluntario-lanak .. | 15,0 |
| Jarduera erlijiosoak | 11,0 | Jarduera politikoak | 10,1 |
| Asoziazionismoa/boluntario-lanak .. | 10,1 | Jarduera erlijiosoak | 8,7 |
| Jarduera politikoak | 5,9 | Tabernetara joan | — |
| Gutzira balio absolututan | 1.364 | Gutzira balio absolututan | 2.000 |

Galdera independenteak dira; horregatik, ehunekoan batuketa 100etik gorakoa da. Datu hauek gazteek «egunero» eta «noizean behin» egiten dituzten jardueri dagozkie. ~~Iturria~~ bertan egina, oinarri gisa Secretaria de Joventut, 1998: 49-60 hartuta.

Hau da, EAEko eta Kataluniako gazteen aisialdiko ezaugarri nagusietako bat gizarte-harremanak badira ere, EAEko gazteen aisialdia, batez ere astegunetan, etxetiarragoa dela dirudi.

Aisialdi-egoera hau 15-24 urteko Europako gazteenaren oso antzekoa da (Commission Européenne, 1997: 13-15); izan ere, Europako gazteek diotenez, hauexek dira euren jar-

duerarik gustukoenak: lagunekin elkartzea (%73,4), musika entzutea (%63,7) eta telebista ikustea (%62,3).

3.2.2. Aisialdi-motak

Orain arte, EAEko gazte gehienek egiten dituzten jarduera ohikoenak azaldu ditugu. Alabaina, esan beharra daukagu, orokortasun horren atzean, aisialdiaz gozatzeko era desberdinak daudela. Horregatik, hainbat aisialdi-mota bereizten saiatu gara, horietako bakoitza jarduera zehatz eta bereizgarri batzuekin. Beraz, osagai nagusien faktore-analisia eginda, sei motatako aisialdiak bereizi ditugu.

- ▶ **Ludiko-soziala**
Ziur aski, hau izango da EAEko gazteen artean aisialdirik hedatuena. Denbora librea gizarte-harremanen ikuspegitik erabiltzen da eta erabateko gozamina lortzea da helburua. Horrela, tipologia honetako jarduera nagusiak bi hauek dira: lagunekin ibiltzea eta tabernetara (helduenak) edo diskoteketara (gazteenak) joatea.
- ▶ **Kulturala-indibidualista**
EAEko gazteriaren aisialdi-mota hau estu-estu lotzen zaie kultura-jarduerari, batez ere banaka egiten direnei. Hona hemen jarduera nagusiak: liburuak, prentsa eta aldizkariak irakurtzea, kultura-ikuskizunetara joatea eta ordenagailuarekin entretenitzea.
- ▶ **Asoziatiboa**
Aisialdi-mota honetan gazte konprometituak biltzen dira, hau da, denbora libre gehiena euren elkarteko edo elkarteetako lanetan ematen dutenak. Gazte hauen aisialdiak zerkusi handia izaten du euren elkarte(ar)en jarduerekin eta gizarte-harreman gehienak ere horren ingurukoak izaten dira.
- ▶ **Kirola**
Kirol-aisialdia gazte kirolzaleei dagokie. Horrela, gazte horiek euren denbora gehiena kirola egiten edo kirol-ikuskizunak ikusten pasatzen dute, eta noizean behin mendian ibiltzen ere bai.
- ▶ **Lasaia-kanpoko ekintzak**
Aisialdi-mota honetako gazteek nahiago dituzte jarduera lasaiak, adibidez, paseatu eta, gutxiago bada ere, mendian ibili. Ez dute atsegin diskoteketako zarata eta, horregatik, inoiz ez dira joaten horrelako lekuetara. Beraz, gazte hauen ezaugarri nagusia kanpoko aisialdi lasia gozatea da.
- ▶ **Etkezale pasiboa**
Azkenik, pasibo izena eman diogun aisialdi-mota daukagu. Bere ezaugarri nagusia etxean geratzea da, orduak eta orduak telebistaren aurrean. Aisialdi-mota honetakoek ez dute interesik asoziazionismoarekiko eta, elkarteren batekoak izatekotan, erlijiosoren batekoak izango lirateke. Ez dute atsegin paseatzera irtetea eta are gutxiago mendian ibiltzea. Ez dituzte lantzen gizarte-harremanak, eta, beraz, gizartearekiko ezkutatu egiten direla ematen du.

3.3. ASOZIAZIONISMOA

Badirudi asoziazionismoa nahikoa hedatuta dagoela EAeko gazteen artean. Izan ere, oso gutxi dira elkarteren bateko kide izan ez direnak edo elkarte bati lagundu ez diotenak (EAeko gazteen %23,2 baino ez; ikus 33. taula). Gazteen %42,3 gaur egun elkarteren batekoak dira (eta gazte asko batekoa baino gehiagokoa), eta %32,2 noizbait izan dira elkarteren bateko kide. Horrez gain, %2,2k nola edo hala elkarteren bati laguntzen diote, nahiz eta kide ez izan.

EAeko gazteei dagokienez, elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoa (%42,3) Balearretako enberdina da (Direcció General de Joventut i Família del Govern Balear, 1997: 201), eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa, Estatukoa %38koa baita (Elzo, 1999: 244); halaber, EAeko gazteen ehunekoa Kataluniakoa (%34,9) (Secretaria de Joventut, 1998: 63) eta Galiziakoa baino handiagoa da, Galizian gazteen %27,6 baino ez baitira elkarteren bateko kide (Sabucedo, 1992: 55).

Mutilek asoziazionismorako joera nabarmenagoa dute neskek baino, eta neska gehiago dira elkarrekin inoiz harremanik izan ez dutenak.

33. taula: Gazteen eta elkarrekin arteko harremana

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | | Gizarte-klasea | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|----------------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Altua | Erdikoa | Baxua |
| Kide da | 42,3 | 47,9 | 36,3 | 50,1 | 40,4 | 38,1 | 54,3 | 42,9 | 38,6 | 53,1 | 42,1 | 33,3 |
| Kide izan da | 32,2 | 31,1 | 33,3 | 28,0 | 32,7 | 34,8 | 31,2 | 37,6 | 29,4 | 29,7 | 31,9 | 37,7 |
| Lagundu egiten du ... | 2,2 | 2,0 | 2,7 | 2,2 | 1,6 | 3,3 | 2,0 | 1,7 | 2,8 | 3,9 | 2,1 | 3,5 |
| Harremanik ez | 23,2 | 18,8 | 27,7 | 19,7 | 25,3 | 23,6 | 12,5 | 17,6 | 20,2 | 13,3 | 23,8 | 25,5 |
| Ed/Ee | 0,1 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 740 | 425 | 199 | 740 | 425 |

Bestalde, badirudi asoziazionismoan batez ere gazteetan gazteenak aritzen direla. Izan ere, zenbat eta helduago izan, elkarrekin bateko kide diren ehunekoak behera egiten du eta, aldiz, kide ohien ehunekoak gora.

Lurraldeka, asoziazionismoa batez ere Araban dago hedatuta. Inoiz elkarrekin ibili ez diren ehunekorik altuena, berriz, Bizkaiko gazteena da.

Gizarte-klaseak ere eragina du gazteen asoziazionismoan. Izan ere, klase altukoak dira elkarrekin gehien aritzen direnak, hain zuzen ere, erdiko klasekoak baino hamar puntu gehiago eta klase baxukoak baino hogeita puntu gehiago dira.

Gazteria zein motatako elkartetan ibiltzen den aztertuz gero (34. taula), bi ondorio atera ditzakegu: alde batetik, mota askotako elkarrekin daudela; eta, bestetik, gazte asko elkarrekin batean baino gehiagotan ibiltzen direla.

Gazteak, nagusiki, kirol-elkarrekin ibiltzen dira (%20,3). Gainera, gaur egun kirol-elkarrekin ibiltzen ez badira ere, gazteen %34,4 noizbait horietako kide izan dira. Kirol-elkarrekin ondoren, jolasarako elkarrekin datoz (txokoak, elkarrekin, konpartsak, blusak, lagunartek...),

hain zuzen ere, gazteen %9,9 biltzen dituzte; eta horien ondoren kultura- eta arte-elkarteak datoz, gaur egun gazteen %5ek hartzen baitute parte horietan.

Alabaina, elkarte batzuek, gaur egun bazkide askorik ez badute ere, noizbait gazte asko bildu dituzte; horren arrazoia garbi dago: elkarte horiek gazteentzakoak dira eta gazteak helduz zihoazen neurrian, utzi egin dituzte. Besteak beste, hor ditugu eskaut-taldeak, gazte-klubak edo -elkarteak eta ikasle-elkarteak; gaur egun, hurrenez hurren, gazteen %4,2 eta %3,7 biltzen dituzte, baina gazteen %19,9 eta %13,3 noizbait horietakoren bateko kide izan dira.

Beste gazte batzuk elkartei laguntzen aritzen dira, baina kide izan gabe. Elkarte horien artean, laguntza gehien jasotzen dutenak euskararen aldekoak (%7,3) eta hirugarren munduko garapenaren alde lan egiten dutenak (%6,5) dira.

34. taula: Gazteen eta elkarte-moten arteko harremana

| (Ehuneko horizontalak) | Kide da | Kide izan da | Lagundu egiten du | Inoiz ez da kide izan eta ez du lagundu | Ed/Ee |
|---|---------|--------------|-------------------|---|-------|
| Kirol-elkarteak | 20,3 | 34,4 | 2,2 | 43,0 | 0,1 |
| Txokoak, elkarteak, lagunarteak, konpartsak . . | 9,9 | 9,7 | 1,7 | 78,6 | 0,1 |
| Kultur- edo arte-elkarteak | 7,6 | 13,8 | 1,9 | 76,5 | 0,2 |
| Eskaut-taldeak | 4,2 | 19,9 | 1,7 | 74,1 | 0,1 |
| Euskararen defentsa | 3,9 | 4,9 | 7,3 | 83,8 | 0,1 |
| Ikasle-elkarteak | 3,7 | 13,3 | 2,1 | 80,7 | 0,2 |
| Sindikatuak | 3,2 | 1,2 | 1,5 | 93,7 | 0,4 |
| Hirugarren munduaren garapenerako laguntza | 2,9 | 4,8 | 6,5 | 85,7 | 0,1 |
| Osasunarekin zerikusia dutenak | 2,9 | 2,4 | 2,3 | 91,3 | 0,1 |
| Politikoak | 2,8 | 2,6 | 2,1 | 92,1 | 0,4 |
| Ekologistak | 2,5 | 2,9 | 2,3 | 92,1 | 0,2 |
| Giza eskubideak | 2,0 | 1,8 | 2,8 | 93,3 | 0,1 |
| Elbarritasunekin zerikusia dutenak | 1,8 | 1,5 | 2,4 | 94,0 | 0,3 |
| Antimilitaristak | 1,5 | 2,1 | 2,6 | 93,5 | 0,3 |
| Bakezaleak | 1,3 | 1,2 | 2,1 | 95,2 | 0,2 |
| Inmigrantei laguntzekoak | 1,1 | 0,7 | 1,7 | 96,4 | 0,1 |
| Emakumeekin zerikusia dutenak | 0,6 | 1,0 | 2,1 | 96,0 | 0,3 |


Galderak independenteak dira.

EAEko gazteriak elkarteetan duen parte-hartzea Europako 15-24 urteko gazteenarekin alderatuz gero, datuak zertxobait europarren aldekoak direla ikusiko dugu. Horrela, European (Commision Européenne, 1997: 20), gazteen %52,4k elkarteren bateko kide direla diote; EAEn, berriz, %44,56 dira partaideak. EAEkoek bezala, europarrek gehien atsegin dituzten elkarteak kirolen ingurukoak dira (%27,6), eta horien atzetik elkarte erlijiosoak (%8,7) eta gazte-elkarteak (%7,4).

3.4. INTERNET: ESPERIENTZIA ETA ERABILERA


Internet-en erabilera ez dago oso hedatuta EAEko gazteen artean. Horren adierazle da ondorengo datua: EAEko gazteen erdiak baino gehiago inoiz ez dira sartu sarean (7. grafikoa).

7. grafikoa: Inoiz erabili al duzu internet?



EAEko gazteen %45,7k, berriz, noizbait nabigatu du interneten. Nabigatzaile horiei dagokienez, ez dago alde handirik mutil eta nesken artean, mutilak gehiago badira ere; eta adinari dagokionez, gehienak 20-24 urte bitarteko mutilak eta neskek dira (8. grafikoa).

8. grafikoa: Interneten erabiltzaileak, sexuaren, adin-taldean eta lurraldeen arabera



Lurraldeei dagokienez, noizbait interneten ibili diren gazteen ehunekorik handiena Gipuzkoari dagokio, hain zuzen ere, Bizkaian baino sei puntu gehiagokoa da, eta Araban baino hamar puntu gehiagokoa.

Beraz, interneten erabilera ez dago oso hedatuta EAEko gazteen artean. Baina, horrez gain, gertakari nahikoa berria da. Izan ere, noizbait erabili duten gazteen %62,8k urtebete baino gutxiago daramate nabigatzen. Hala ere, beste batzuk (gazteen %17,7) internauta nahikoa zailduak dira, duela bi urte baino gehiagotik ezagutzen baitute internet (35. taula).

Horrez gain, beste pare bat datu: neskek geroago deskubritu dute ziberespazioa mutilek baino, eta gipuzkoarrek (mutilek zein neskek) bizkaitarrek eta arabarrek baino lehenago.

35. taula: Zenbat denbora daramazu internet erabiltzen?
(Noizbait erabili dutenek erantzuteko)

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|---|---------|-------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Giz. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| 6 hilabete baino gutxiago .. | 40,1 | 38,0 | 42,3 | 50,0 | 37,4 | 35,2 | 43,4 | 35,3 | 42,3 |
| 6 hilabete baino gehiago, baina urtebete baino gutxiago | 22,7 | 19,4 | 26,5 | 27,0 | 22,4 | 19,7 | 21,7 | 20,9 | 24,2 |
| Urtebete baino gehiago, baina 2 urte baino gutxiago | 19,5 | 19,9 | 19,1 | 15,3 | 22,0 | 20,2 | 20,5 | 21,9 | 17,8 |
| 2 urte baino gehiago, baina 3 urte baino gutxiago | 9,8 | 12,9 | 6,4 | 4,1 | 10,8 | 13,1 | 12,0 | 12,6 | 7,4 |
| 3 urte baino gehiago, baina 4 urte baino gutxiago | 5,0 | 5,8 | 4,0 | 2,4 | 4,1 | 8,0 | 2,4 | 6,5 | 4,6 |
| 4 urte baino gehiago | 2,9 | 4,0 | 1,7 | 1,2 | 3,3 | 3,8 | 0,0 | 2,8 | 3,7 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan .. | 624 | 326 | 298 | 170 | 241 | 213 | 83 | 215 | 326 |

Beste alde batetik, interneten erabiltzaileek ez dute askorik erabiltzen (36. taula). Izan ere, gazteen %46 orubete baino gutxiago konektatzen baitira asteen. Gazteen %8,7k, ordea, zazpi ordu baino gehiago pasatzen du asteen ziberespazioan nabigatzen. Are gehiago: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehuneko txiki batek (%2,9k) batez beste egunean bi ordu baino gehiago pasatzen ditu interneten nabigatzen.

36. taula: Asteen zenbat ordu egoten zara interneti konektatuta?
(Noizbait erabili dutenek erantzuteko)

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|---------------------------|---------|-------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Giz. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Orubete baino gutxiago | 46,0 | 45,4 | 46,6 | 45,9 | 49,4 | 42,3 | 42,3 | 48,8 | 45,1 |
| 1-7 ordu bitartean | 39,9 | 39,9 | 39,9 | 44,1 | 36,5 | 40,4 | 41,0 | 36,7 | 41,7 |
| 7-15 ordu bitartean | 5,8 | 7,7 | 3,7 | 2,9 | 5,0 | 8,9 | 7,2 | 6,5 | 4,9 |
| 15 ordu baino gehiago .. | 2,9 | 3,0 | 2,7 | 1,2 | 2,5 | 4,7 | 2,3 | 1,9 | 3,7 |
| Ed/Ee | 5,4 | 4,0 | 7,1 | 5,9 | 6,6 | 3,7 | 7,2 | 6,1 | 4,6 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 624 | 326 | 298 | 170 | 241 | 213 | 83 | 215 | 326 |

Emakumezkoek denbora gutxiago pasatzen dute nabigatzen gizonetzkoek baino. Baina alderik nabarmenenak adin-taldeen artekoak dira, eta, horien artean, 25-29 urtekoak dira ordu gehien pasatzen dituztenak nabigatzen. Lurraldeka, berriz, Gipuzkoako gazteak dira interneten ordu gehien pasatzen dituztenak.

ONDORIOAK

- EAEko gazteen %34,2k, astegunetan, hiruzpalau orduko denbora libre izaten dute egunero; %38,7k, berriz, lau ordu baino gehiago; denbora gutxien dutenei dagokienez, %4,2k diote ordubete baino gutxiago dutela libre egunean. Dirudie-nez, emakumezkoek denbora libre gehiago dute gizonezkoek baino, eta gaztee-nek eta klase altukoek diote zertxobait gutxiago dutela. Nolanahi ere, taldeen arteko aldeak oso txikiak dira eta esan dezakegu aisialdia guztien esku dagoen gizarte-balio bihurtu dela.
- EAEko gazteek egiten dituzten jardueri dagokienez, badirudi mendebaldeko gi-zarte modernoko ereduari jarraitzen dietela. Horrela, astegunetan eta asteburue-tan sarrien egiten diren jarduerak ondorengoak dira: lagunekin ibili, telebista iku-si eta prentsa eta aldizkariak irakurri. Beste jarduera batzuk ere astegunetan eta asteburuetan egiten dira, baina ez hainbesteko maiztasunez, adibidez, paseatu, liburuak irakurri, kirola egin eta ordenagailuarekin entretenitu. Azkenik, astegu-netako eta asteburuetako jarduerak batzuetan desberdinak izaten dira, eta haue-xek dira batik bat asteburuetan egiten direnak: tabernetara joan, kultur- eta kirol-ikuskizunetara joan, diskoteketara joan eta mendian ibili.

| Egunero | | Noizean behin | |
|--|--|---|---|
| Astegunetan | Asteburuetan | Astegunetan | Asteburuetan |
| <ul style="list-style-type: none"> • Telebista ikusi • Lagunekin ibili • Prentsa eta aldizkariak irakurri | <ul style="list-style-type: none"> • Lagunekin ibili • Tabernetara joan • Telebista ikusi • Prentsa eta aldizkariak irakurri | <ul style="list-style-type: none"> • Liburuak irakurri • Paseatu • Kirola egin • Ordenagailua | <ul style="list-style-type: none"> • Paseatu • Liburuak irakurri • Kirola egin • Ordenagailua • Kultura-ikuskizunak • Diskotekak • Mendia • Kirol-ikuskizunak |

- Gazteen %42,3 gaur egun elkarteren bateko kide dira, eta horietako asko bate-koa baino gehiagokoa; gazteen %32,2, berriz, noizbait izan dira kide, baina gaur egun ez dira. Noizbait elkarteren bati laguntza eman ez diotenak edo elkarteren bateko kide izan ez direnak, berriz, %23,2 dira.
- Gaur egun gazte gehien biltzen dituzten elkarte-motak kirola egitekoak dira (%20,3), batez ere. Bigarren lekuan jolaserako elkarteak daude (txokoak, elkarteak, konpartsak, blusak, lagunarteak...), gazteen %9,9 biltzen baitituzte; eta, horien on-doren, kultur- eta arte-elkarteak (gazteen %7,6). Gainerako elkarte-motetan, gaz-teen parte-hartzea askoz ere txikiagoa da, beti ere %5en azpitik.
- Interneten erabilera ez dago oso hedatuta EAEko gazteen artean; izan ere, er-diak baino gehiago inoiz ez dira sartu sarean. Horrez gain, interneten erabiltzai-leek gutxi erabiltzen dute, %46 astean ordubete baino gutxiago egoten baitira konektatuta sarera. Gazteen %8,7k, ordea, batez beste egunean ordubete baino gehiago pasatzen dute nabigatzen ziberespazioan.
- Lehentasunezko arretarako puntua:
 - Aisialdia gizarte-talde guztietara iristen da, eta, oro har, balio onartua da.



4

**Egoeraren
balorazioa**

Kapitulu honetan, gazteek gaur egungo egoera nola baloratzen duten aztertuko dugu, bai egoera pertsonala, bai soziopolitiko, eta bereziki nabarmenduko ditugu EAEko gazteekin zerikusia duten zenbait gai, batik bat hezkuntza-sistemaren balorazioa.

4.1. GAZTEEK EGOERA NOLA IKUSTEN DUTEN

4.1.1. Pertsonala

EAEko gazteen %64,4 (37. taula) gustura daude euren egoera pertsonalarekin eta ehunetik zazpik baino ez dute adierazten ez daudela gustura. Datu horiek, Kataluniako gazteekin alderatuz gero, alde nabarmenak antzematen dira. Izan ere, Kataluniako gazteetatik %51,4 baitaude gustura euren gaur egungo egoera pertsonalarekin eta %21,3k ez daudela gustura adierazten dute (Secretaria General de Joventut, 1999: 69).

37. taula: Zeure egoera pertsonalari begiratuta, nola zaude gaur egun?


| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|---|---------|-------|------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Giz. | Ema. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Gustura | 64,4 | 65,5 | 63,2 | 73,3 | 65,1 | 56,7 | 62,3 | 67,8 | 63,0 |
| Gustura ez, baina gogobete gabe ere ez .. | 27,6 | 27,3 | 27,8 | 21,6 | 26,3 | 33,6 | 29,2 | 25,4 | 28,4 |
| Gogobete gabe | 7,0 | 6,5 | 7,5 | 3,5 | 7,3 | 9,3 | 8,5 | 5,2 | 7,6 |
| Ed/Ee | 1,0 | 0,7 | 1,5 | 1,6 | 1,3 | 0,4 | 0,0 | 1,6 | 1,0 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 |

Baina itzul gaitezen atzera EAEko gazteengana. Datuak aztertuta, esan dezakegu kasik ez dagoela alderik sexu aldetik, baina bai adinari dagokionez. Horregatik, gazteak

zenbat eta helduagoak, orduan eta beherago egiten du gustura daudenen kopuruak. Horrek, itxuraz, zera adierazten du: EAEko gazteek etorkizun hurbilean jartzen dituzten itzaropenak ez direla betetzen. Bestalde, lurraldeka aztertuta ere aldeak nahikoa nabarmentzen dira; horrela, egoera pertsonala aztertzean, gipuzkoarrak gusturago agertzen dira bizkaitarrak eta arabarrak baino.

Badirudi gizarte-mailak ere eragiten duela egoera pertsonala baloratzerakoan. Hori adierazten dute, behintzat, 9. grafikoan jasotako datuek. Horrela, gaur egungo egoera pertsonala dela-eta, goi-mailako gazteak gusturago agertzen dira maila ertainekoak baino, eta maila ertainekoak gusturago behe-mailakoak baino; horrela, zenbat eta beherago egin gizarte-mailan, orduan eta gehiago dira gustura ez daudenak. Beraz, pertsonalki gustura egoteak badirudi zerikusia duela egoera sozioekonomikoekin.

9. grafikoa: Egoera pertsonalarekin gustura gizarte-mailaren arabera



4.1.2. EAEko gazteriarena

Beraz, EAEko gazte gehienak euren egoera pertsonala baloratzerakoan gustura ageri dira; baina oro har EAEko gazteriaren egoera baloratzerakoan, bestelakoa da iritzia. Horrela (38. taula), soilik %18,5k uste dute ona dela; gazteen %62,9k, berriz, uste dute erdipurdikoa dela, eta %17,9k txarra dela. Hala ere, balorazioa onegia ez bada ere, Kataluniako gazteena baino baikorragoa da. Izan ere, gazte katalanen %32,5k uste baitute gazteen egoera txarra dela (Secretaria General de Joventut, 1999: 69).

Gazteriaren egoera baloratzerakoan, beraz, eszeptizismoa da nagusi, baina ezkontasun hori are azpimarragarriagoa da emakumeengan, agian lan-egoera okerragoetan aritzen direlako; eta balorazio nahikoa txarra egiten dute, halaber, ideologia aldetik ezkerrekoak diren gazteek, hau da, gizarte-gaietan aldarrikatzaileagoak direnek.

38. taula: Nola ikusten duzu gazteen egoera, oro har, gaur egun?

| | Guztira | Sexua | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | | Euskaldun/espainiar ardatza | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|-----------------------------|------------------------|------------|
| | | Gizon. | Emak. | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Espainiarra | Euskalduna Espainiarra | Euskalduna |
| Ona | 18,5 | 22,9 | 13,9 | 12,3 | 18,9 | 18,9 | 22,5 | 13,4 | 18,2 | 19,1 |
| Erdipurdikoa | 62,9 | 59,0 | 67,0 | 63,2 | 69,5 | 60,4 | 62,2 | 73,2 | 65,2 | 60,7 |
| Txarra | 17,9 | 17,6 | 18,2 | 24,3 | 10,5 | 19,8 | 14,2 | 13,4 | 15,9 | 19,5 |
| Ed/Ee | 0,7 | 0,5 | 0,9 | 0,2 | 1,1 | 0,9 | 1,1 | 0,0 | 0,7 | 0,7 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 470 | 95 | 111 | 688 | 67 | 422 | 768 |

4.1.3. Euskal Herriarena

Azkenik, interesgarria iruditu zaigu Euskal Herriaren egoerari buruz gazteek zer iritzi duten jakitea (39. taula). Ildo horretan, esan dezagun gehienek (%63,3k) egoera erdipurdikotzat jotzen dutela; ontzat jotzen dutenak %18,4 dira; eta txartzat jotzen dutenak %16,5; gutxi gorabehera gazteriaren egoera orokorrari buruzko antzeko ehunekoak dira, beraz. Kataluniako gazteen balorazioarekin alderatuta, EAeko gazteena baikorragoa da; izan ere, gazte katalanen artean, %30,9ren ustez Kataluniako egoera txarra baita (Secretaria General de Joventut, 1999: 70).

39. taula: Nola ikusten duzu Euskal Herriaren egoera?

| Ehuneko horizontalak | Ona | Erdipurdikoa | Txarra | Ed/Ee | Guztira ehunekotan | Guztira balio absolututank |
|---------------------------------------|------|--------------|--------|-------|--------------------|----------------------------|
| GUZTIRA | | | | | | |
| | 18,4 | 63,3 | 16,5 | 1,8 | 100 | 1.364 |
| LURRALDEA | | | | | | |
| Araba | 19,1 | 65,3 | 14,1 | 1,5 | 100 | 199 |
| Bizkaia | 17,8 | 63,9 | 16,8 | 1,5 | 100 | 740 |
| Gipuzkoa | 19,1 | 61,4 | 17,2 | 2,3 | 100 | 425 |
| EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA | | | | | | |
| Espainiarra | 10,4 | 68,7 | 19,4 | 1,5 | 100 | 67 |
| Euskalduna/espainiarra | 18,5 | 64,5 | 15,2 | 1,8 | 100 | 422 |
| Euskalduna | 20,2 | 62,1 | 16,3 | 1,4 | 100 | 768 |
| Ed/Ee | 10,3 | 64,5 | 21,5 | 3,7 | 100 | 107 |
| GERTUEN DUEN ALDERDI POLITIKOA | | | | | | |
| PP | 9,7 | 71,0 | 19,3 | 0,0 | 100 | 31 |
| EAJ-PNV | 28,0 | 60,2 | 11,2 | 0,6 | 100 | 161 |
| PSE-EE | 13,2 | 75,5 | 11,3 | 0,0 | 100 | 53 |
| IU-EB | 11,9 | 66,1 | 22,0 | 0,0 | 100 | 59 |
| EH/HB | 11,3 | 56,0 | 31,4 | 1,3 | 100 | 159 |
| UA | 100 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100 | 1 |
| EA | 20,6 | 67,5 | 11,9 | 0,0 | 100 | 34 |
| Beste batzuk | 0,0 | 77,8 | 22,2 | 0,0 | 100 | 9 |
| Batere ez | 18,4 | 63,6 | 15,9 | 2,1 | 100 | 515 |
| Ed/Ee | 19,9 | 64,3 | 12,9 | 2,8 | 100 | 342 |

Euskal Herriko egoera baloratzeari dagokionez, EAEko lurralde historikoak banaka hartuta, ia ez dago alderik batetik bestera. Hala ere, beharrezkoa da euskaldun/espainiar ardatza bereziki aipatzea; izan ere, batez ere espainiar sentitzen direnek balorazio negatiboagoa egiten baitute euskaldun bakarrik edo espainiar baino euskaldunago sentitzen direnek baino.


Alderdi politikoekiko gertutasuna adierazterakoan, alde batzuk ere nabarmentzen dira. Horrela, EAJ-PNV eta EAtik gertuago dauden balorazioa gainerako gazteena baino positiboagoa da; aldiz, EH/HB, IU/EB eta PPTik gertuago daudenak kritikoagoak dira Euskal Herriko egoera baloratzerakoan.

4.2. KEZKA PERTSONALAK

Arestian ikusi dugunez, inkestari erantzun dioten gazte gehienak gustura daude egoera pertsonalari dagokionez, baina gazteriaren eta Euskal Herriko egoera baloratzerakoan erdiek baino gehiagok erdipurdikoa dela uste dute. Orain, berriz, balorazio horien atzean zein arrazoi dauden jakitea komeni zaigu, ezbairik gabe gazteen kezken adierazle izango baitira.

Ildo horretan, esan dezakegu (10. grafikoa) EAEko gazteen kezka nagusia lana dela; izan ere, gazteen %64,4k adierazten baitute espontaneoki. Adinaren arabera erantzunetan aldeak daude, 20 urtetik beherakoentzat lana ez baita hainbesteko arazo; hortik gorakoentzat, aldiz, arazo larriagoa da (40. taula). Herrialdeen arabera ere alde handiak daude; horrela, nabarmena da Bizkaiko gazteen lan-egoera gainerako herrialdeetako baino kaskarragoa dela eta Bizkaiko gazteak bereziki kezkatuta daudela langabezia dela-eta. Halaber, PSE/EE, EA eta IU/EBtik gertu dauden gazte gehiago daude kezkatuta arazo honekin; ez dira hainbeste kezkatzen, berriz, EH/HB eta PPTik gertu daudenak.

10 grafikoa: Gazteen kezka nagusiak



40. taula: Gaztea zara. Zein dira gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?

| | Lana | Etxebiz. | Terroris. | Politika | Ikasket. | Dirua | Drogak |
|------------------------------------|------|----------|-----------|----------|----------|-------|--------|
| GUZTIRA | | | | | | | |
| | 64,4 | 31,2 | 19,3 | 15,3 | 12,4 | 10,2 | 9,9 |
| SEXUA | | | | | | | |
| Gizonezkoa | 60,1 | 32,5 | 20,1 | 17,0 | 11,1 | 9,9 | 9,6 |
| Emakumezkoa | 60,8 | 29,7 | 18,4 | 13,6 | 13,8 | 10,5 | 10,2 |
| ADINA | | | | | | | |
| 15-19 | 42,3 | 11,3 | 10,8 | 10,0 | 30,5 | 12,4 | 12,9 |
| 20-24 | 72,0 | 33,1 | 20,2 | 15,3 | 9,4 | 12,5 | 8,0 |
| 25-29 | 73,3 | 44,3 | 24,8 | 19,5 | 1,7 | 6,0 | 9,5 |
| LURRALDEA | | | | | | | |
| Araba | 62,3 | 54,8 | 22,6 | 13,6 | 10,6 | 6,5 | 5,5 |
| Bizkaia | 67,3 | 26,1 | 20,0 | 12,2 | 13,9 | 11,6 | 8,2 |
| Gipuzkoa | 60,2 | 28,9 | 16,5 | 21,6 | 10,6 | 9,4 | 12,0 |
| EZKERRA/ESKUINA ARDATZA | | | | | | | |
| Ezkerra | 71,1 | 35,3 | 18,5 | 22,8 | 9,6 | 8,5 | 8,3 |
| Zentroa | 68,4 | 38,9 | 29,5 | 12,6 | 13,7 | 15,8 | 9,5 |
| Eskuina | 69,4 | 33,3 | 24,3 | 23,4 | 9,9 | 9,9 | 9,9 |
| Ed/Ee | 58,4 | 26,9 | 17,6 | 9,3 | 14,5 | 10,6 | 11,0 |
| EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA | | | | | | | |
| Espainiarra | 55,2 | 22,4 | 22,4 | 4,5 | 9,0 | 20,9 | 7,5 |
| Euskalduna/espainiarra | 68,5 | 30,6 | 27,3 | 8,5 | 11,8 | 10,2 | 13,0 |
| Euskalduna | 63,3 | 30,6 | 14,2 | 21,0 | 13,3 | 9,2 | 8,5 |
| Ed/Ee | 61,7 | 43,0 | 22,4 | 8,4 | 10,3 | 10,3 | 9,3 |
| GERTUEN DUEN ALDERDI POL. | | | | | | | |
| PP | 64,5 | 32,3 | 32,3 | 9,7 | 16,1 | 16,1 | 9,7 |
| EAJ-PNV | 69,6 | 37,3 | 23,0 | 18,6 | 12,4 | 9,3 | 7,5 |
| PSE-EE | 83,0 | 35,8 | 20,8 | 13,2 | 5,7 | 13,2 | 13,2 |
| IU-EB | 76,3 | 27,1 | 40,7 | 11,9 | 5,1 | 13,6 | 3,4 |
| EH/HB | 61,0 | 27,7 | 6,3 | 33,3 | 11,3 | 8,8 | 6,9 |
| UA | 0,0 | 100 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| EA | 82,4 | 23,5 | 17,6 | 41,2 | 5,9 | 8,8 | 17,6 |
| Beste batzuk | 88,9 | 44,4 | 22,2 | 22,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Batere ez | 63,7 | 32,0 | 22,9 | 11,8 | 12,2 | 10,3 | 11,7 |
| Ed/Ee | 57,3 | 28,7 | 13,2 | 9,4 | 16,1 | 9,9 | 9,9 |

Lanaren ondoren, gazteek gehien aipatzen duten arazoa etxebizitzarena da. Inkestari erantzun dioten gazteetatik, ehunik hogeita hamarrek aipatzen dute; bereziki aipatzen dute Araban, ziur aski Gasteizko etxebizitzaren garestitze nabarmenak eta azkarrak eraginda. Lanean gertatzen zen bezala, etxebizitzaren arazoaz gehiago kezkatzen dira gazte «helduak» nerabeak baino.

Hirugarren lekuan terrorismoaren arazoa azaltzen da, hamar lagunetik bik aipatzen baitute euren kezken artean. Berriz ere, «helduen» arazotzat jotzen diren gainerako gaie-tan bezala, kezka hori are handiagoa da hain gazteak ez direnengan. Arazo horren aurre-an kezkatien ageri direnak IU/EB eta PP alderdietatik gertuen daudenak dira; gutxien kezkatuta daudenak, berriz, EH/HBtik gertu daudenak dira. Halaber, terrorismoa ez daukate

hainbesteko arazotzat Gipuzkoan bizi direnek eta bakarrik euskaldunak sentitzen direnek. Alabaina, gerta liteke indarkeria dela-eta azken kolektibo horiek adierazten duten arduragabekeria ez izatea hainbeste gaiarekiko interesik eza, baizik eta arazoa ikuspegi politikotik ikustea. Horregatik, hain zuzen ere, arazo politikoek eragin handiagoa dute talde horietan. Horrela, arazo politikoak euren kezka pertsonaltzat jotzen dituzten EAEko gazteen %15,3 hori aztertuz gero, ohartuko gara ehuneko horretan gehienak gipuzkoarrak direla, batez ere euren burua euskalduntzat jotzen dutenak eta EA, EH/HB eta, hainbeste ez bada ere, EAJ-PNVtik gertu.

Ikasketei dagokienez, gazteen %12,4k jotzen dituzte euren kezka pertsonaltzat, eta hemen bai, gazteenak dira kezkatien azaltzen direnak.

Arazo ekonomikoei dagokienez, gazteen %10,2k aipatzen dituzte, batez ere Bizkaian eta gutxiago Araban, eta arazo hori aipatzen dutenetatik, espainiarrago sentitzen direnak euskaldunago sentitzen direnak halako bi dira ehunekotan.

Azkenik, drogak arazotzat jotzen dituzte EAEko gazteen ehunetik hamarrek, batez ere gipuzkoarrek eta gazteenek.

EAEko gazteen kezkak katalanenekin alderatuz gero (41. taula), ohartuko gara lan-egoera dela bietan kezka gehien eragiten dituen, bai EAEn, bai Katalunian (ehuneko handiagoa da azkenekoan). Baina bi komunitateak horretan baino ez datoz bat. Izan ere, Kataluniako gazteek gehien aipatzen duten bigarren arazoa drogena da (%40,7); EAEko gazteen artean, ordea, arazo horrek %9,9 baino ez du kezkatzen.

41. taula: Gazteen kezka nagusiak
(EAEko eta Kataluniako datuak, alderatuta)

| | EG'00 | Katalunia'98 |
|--|-------|--------------|
| Lana/langabezia | 64,4 | 69,0 |
| Etxebizitza | 31,2 | 7,0 |
| Terrorismoa | 19,3 | — |
| Politika | 15,3 | — |
| Ikasketak | 12,4 | 7,9 |
| Dirua | 10,2 | — |
| Drogak | 9,9 | 40,7 |
| Emantzipatzeko zailtasunak | — | 13,2 |
| Delinkuentzia/indarkeria/intolerantzia | — | 12,4 |
| Gizarte-marjinazioa | — | 7,8 |

Iturria: bertan egina, Kataluniako datuetarako oinarri gisa Secretaria General de Joventut, 1999: 70 erabilia.

Euskaldunak, ordea, kezkatuago daude etxebizitzaren gaiaren inguruan, arazotzat jotzen baitute 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %31,2k (katalanei dagokienez, ehuneko %7koa da). Etxea erosterakoan edo alokairuan hartzerakoan EAEko gazteek adierazten duten kezka hori lehen ere hauteman dugu, emantzipatzeko zailtasunei buruz aritu garenean.

Beste alde batetik, Kataluniako gazteak kezkatuago daude gizarte-gaiez euskaldunak baino, adibidez, gizarte-marjinazioaz, delinkuentziaz eta drogez (lehen ere aipatu dugu). EAEko gazteek, ordea, gehiago aipatzen dituzte politika-gaiak.

4.3. HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALORAZIOA

Gaztaroko ezaugarri nabarmenetako bat prestakuntzan eta hezkuntzan buru-belarri aritzea da. Horregatik, ez da harrizkoa gazteak kolektibo egokitzat jotzea hezkuntza-sistema baloratzeko, bai gaur egun ikasten ari direlako, bai duela gutxi ikasi zutelako.


Hezkuntza-sistemari buruzko gazteen iritzia (42. taula) honela banatuta dago: gehienek nahikoa ona edo oso ona dela uste dute (%44,2); beste ehuneko handi batek tarteko iritzia du (%39); eta gutxiengo batek (%13k) uste du hezkuntza-sistema nahikoa txarra edo oso txarra dela. Emakumezkoen balorazioa gizonetzkoena baino positiboagoa da (alde handirik gabe bada ere); 20 eta 24 urte bitartean dituztenak eta Bizkaian bizi direnak, berriz, zertxobait kritikoagoak dira.

42. taula: Zein iritzi duzu hemengo hezkuntza-sistemari buruz?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------|---------|-------|-------|--------------|-------|-------|-----------|---------|----------|
| | | Giz. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Oso ona | 5,1 | 4,9 | 5,2 | 5,4 | 5,7 | 4,1 | 6,0 | 4,3 | 5,9 |
| Nahikoa ona | 39,1 | 37,5 | 41,0 | 38,8 | 38,3 | 40,2 | 42,7 | 35,8 | 43,3 |
| Ez ona eta ez txarra .. | 39,0 | 38,4 | 39,7 | 42,6 | 37,5 | 37,9 | 38,2 | 40,9 | 35,2 |
| Nahikoa txarra | 9,7 | 10,5 | 8,8 | 9,2 | 12,0 | 7,7 | 6,0 | 11,5 | 8,2 |
| Oso txarra | 3,3 | 3,7 | 2,8 | 2,4 | 4,1 | 3,1 | 2,0 | 3,6 | 3,3 |
| Ed/Ee | 3,8 | 5,0 | 2,5 | 1,6 | 2,4 | 7,0 | 5,0 | 3,9 | 3,1 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 740 | 425 |

Lortutako ikasketen mailak aztertuz gero (11. grafikoa), berriz, zera ikusiko dugu, beti ere balorazio orokor positiboaren barruan: ikasketa-maila handiagoa dutenak kritikoagoak


11. grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa, lortutako ikasketen arabera



direla, eta horietatik, batik bat, ikasketa ertainak edo goi-mailakoak egin dituztenak (Diplomatura).

Azkenik (12. grafikoa), azter dezagun hezkuntza-sistemaren balorazioa, baina lan-egoeraren arabera. Horrela, ikusiko dugu lanean ari direnen iritzia positiboagoa dela lan-gabezia daudenena eta ikasten ari direnena baino.

12. grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa, lan-egoeraren arabera



Emitza horiek Kataluniako gazteen artean egindako antzeko beste inkesta baten emaitzekin alderatuz gero (Secretaria General de Joventut, 1999: 30), aipagarria da EAEko hezkuntza-sistema hobeto ikusita dagoela katalana baino: EAEko gazteen %44,2k nota ona ematen diote eta Katalunian %37,4k baino ez diote nota ona ematen. Hezkuntza-sistema txartzat jotzeari dagokionez, antzeko ehunekoak daude EAEn eta Katalunian.

ONDORIOAK

- Egoera pertsonalari begiratuta, EAEko gazteak gustura daude, baina EAEko gazteriaren egoera baloratzerakoan erdipurdikoa dela diote, eta baita Euskal Herriko egoera orokorra baloratzerakoan ere. Egoera pertsonalarekin gustuen daude-nak gazteenak dira (15 eta 19 urte bitartekoak).
- EAEko gazteek espontaneoki aipatzen dituzten kezka nagusiak ondorengoak dira, aipatuenetik hasita gutxien aipatuenera: lana, etxebizitza, terrorismoa, arazo politikoak, ikasketak, arazo ekonomikoak eta drogak.
- Hezkuntza-sistemari dagokionez, gazteen iritzia honela dago banatuta: gehienek oso ona edo nahikoa ona dela uste dute (%44,2k); ez ona eta ez txarra dela uste dutenak ere asko dira (%39); eta oso txarra edo nahikoa txarra dela uste dutenak %13 baino ez dira.
- Lehentasunezko arretarako puntua:
 - EAEko gazteek euren egoera eta Euskal Herrikoa erdipurdikotzat jotzeak euskal gizartearekiko nolabaiteko eszeptizismoa eta konfiantzarik eza adierazten du.



5

Jarrera politikoak

Kapitulu honetan EAEko gazteen jarrera politikoak aztertuko ditugu. Bi alderdi hauek jorratuko ditugu: batetik, gai publikoetan politikoki parte hartzeko asmoa, eta bestetik, ideologiaren inguruko alderdirik garrantzitsuenak, hala nola, norberak jarrera hartzea ezker/eskuin eta euskaldun/espainiar ardatzetan, alderdi politikoren baten jarraitzaile izatea eta Europarekiko nortasun-sentimendua.

5.1. POLITIKAN PARTE HARTZEA

Gai publikoetan parte hartzeari dagokionez, herritar gehienek botoa eman baino ez dute egiten, horretara deitzen zaienean. Beraz, gehienek ez dute inolako interesik politikarekiko. Bi arrazoi ematen dira hori justifikatzeko: alde batetik, sistema politikoa herritarren errealitateak eta arazoetatik urruti dagoela nolabait; edo, bestalde, herritarrek ideologiarik ez dutela, gizarte modernoak eredu indibidualistetara jotzen duelako, hau da, bizimodu pertsonal, propio eta autosufizienteak bilatzera bideratutako eredutara jotzen dutelako.

Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko interesean eragiten duten arrazoiak alde batera utzita, gazteen jarrera zein den aztertu behar dugu. Gai publikoetan aktiboago parte hartu nahiko luketen galdetu diegu (43. taula). %5,8k baino ez du uste nahikoa parte hartzen duela gai publikoetan. Erdiak baino zertxobait gehiagok (%52,3k) ezetz erantzun du eta %31,9k parte-hartze maila handitzea nahi du.

Emakumezkoek eta gazteenek (15-19 urte) dute joera handiagoa aktiboago parte hartzeko. Aktiboago parte hartu nahi ez dutenen ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: gizonezkoen, zaharrenen, eskuindarren eta euren burua espainiar edo euskaldun/espainiarizat dutenen taldeetan.

Hala ere, gure ustez, hauxe azpimarratu behar da: aztertutako talde guztietan oso baxua dela nahikoa parte hartzen dutela uste dutenen ehunekoa (%6 ingurukoa). Horrek erakusten du herritarrek nolabaiteko erantzukizuna dutela interes faltan. Hau da, badirudi parte hartzeko interes falta erosotasun-jarreraren ondorioa dela gehienbat, eta ez bi alderdi hauen ondorioz: zein neurritan parte hartu behar den balioetsi dutelako edo sistema politikoaren ikuskera (parte-hartzailea edo ez hain parte-hartzailea) kontuan hartu dutelako.

43. taula: Nahiko al zenuke gai publikoetan aktiboago parte hartu?

| % horizontalak | Nahiko nuke | Nahikoa parte hartzen dudala uste dut | Ez nuke nahi | Ed/Ee | Guztira |
|-----------------------------|-------------|---------------------------------------|--------------|-------|---------|
| GUZTIRA | 31,9 | 5,8 | 52,3 | 10,0 | 1.364 |
| SEXUA | | | | | |
| Gizonezkoak | 26,2 | 5,9 | 57,4 | 10,5 | 695 |
| Emakumezkoak | 37,8 | 5,7 | 47,1 | 9,4 | 669 |
| ADIN-TALDEAK | | | | | |
| 15-19 | 38,5 | 5,1 | 45,3 | 11,1 | 371 |
| 20-24 | 31,8 | 6,1 | 52,7 | 9,4 | 510 |
| 25-29 | 26,9 | 6,1 | 57,3 | 9,7 | 473 |
| EZKER/ESKUIN ARDATZA | | | | | |
| Ezkertiarra | 36,6 | 6,4 | 48,3 | 8,7 | 470 |
| Zentrokoa | 35,7 | 5,3 | 47,4 | 11,6 | 95 |
| Eskuindarra | 36,0 | 5,4 | 54,1 | 4,5 | 111 |
| Ed/Ee | 27,5 | 5,5 | 55,5 | 11,5 | 688 |
| EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA | | | | | |
| Espainiarra | 31,3 | 4,5 | 56,7 | 7,5 | 67 |
| Euskalduna/espainiarra | 29,9 | 4,5 | 55,9 | 9,7 | 422 |
| Euskalduna | 34,4 | 6,8 | 49,2 | 9,6 | 768 |
| Ed/Ee | 22,4 | 4,7 | 57,9 | 15,0 | 107 |

EAEko eta Kataluniako gazteen erantzunak alderatu ditugu eta katalanek politikan parte hartzeko interes gutxiago dutela ikusi dugu. Izan ere, Kataluniako gazteen %22,2k baino ez du adierazi gai publikoetan aktiboago parte hartu nahi duela (Secretaria General de Joventut, 1999: 71); eta datu hori oso baxua da EAEko gazteen ehunekoarekin (%31,9) alderatuz gero.

5.2. JARRERA IDEOLOGIKOA


Alderdi ideologikoa aztertuko dugu jarraian. Horretarako, aldagai politikorik komunenak (ezker/eskuin, euskaldun/espainiar eta gertueneko alderdi politikoa) eta Europarekiko nortasun-sentimendua jorratuko ditugu.

5.2.1. Ezker/eskuin ardatza³

EAEko gazteen erdiak (13. grafikoa) ez du eskuin eta ezkerren artean ideologikoki jarrera hartu nahi. Horri dagokionez, ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: emakumezkoen, 15 eta 19 urte bitarteko mutilen eta gipuzkoarren taldeetan. Eta horrek erakusten du irizpide hori indarra galtzen ari dela identifikazio politikoaren barruan. Gainera,

³ Ondorengo ezaugarriek definitzen dute ezkerreko ideologia: zentro ezkerreko, ezkerreko edo ezker muturra; eskuineko ideologia, berriz, honakoek: zentro eskuina, eskuina edo eskuin muturra; zentroa izen bereko mailak definitzen du.

13. grafikoa: Ezkertiar/eskuindar ardatza (Guztira)



badirudi gazteek ez dakitela zer den eskuindarra izatea eta zer ezkertiarra. Alderdi politiko baten edo besteren alde agertzen dira, baina ez dira gai alderdi hori eta ezker/eskuin ardatza lotzeko.

Euren burua definitzen dutenen artean (44. taula), gehien-gehienek ezkerrean jotzen dute, gizonzkoek zerbait gehiago emakumezkoak baino, eta Gipuzkoan gehiago beste bi lurraldeetan baino. Eskuindarrak direla adierazten duten Arabako gazteen ehunekoak (%15,6), aldiz, Gipuzkoako gazteen ehunekoaren (%4,9) hirukoitza da eta Bizkaiko gazteen ehunekoaren (%7,9) bikoitza.

Gazteen jarrera ideologikoari dagokionez, adin-taldean araberako erantzunak azpimarratu behar ditugu. 25 eta 29 urte bitarteko 10 gaztetatik lauk adierazi dute ezkertiarra direla; 15 eta 19 urte bitartekoen artean, aldiz, %23,5ek baino ez du hori adierazi. Gainera, horrek ez du esan nahi eskuindar edo zentroko gehiago daudela gazteen artean, baizik eta gehiago direla jarrera hartzen ez dutenak.

44. taula: Eskuindar ala ezkertiar izateari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Eskuin muturra | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| Eskuina | 5,1 | 5,5 | 4,8 | 5,9 | 4,7 | 5,0 | 11,6 | 2,8 | 4,7 |
| Zentro eskuina | 2,9 | 3,2 | 2,7 | 1,3 | 2,7 | 4,3 | 4,0 | 1,9 | 3,2 |
| Zentroa | 7,0 | 7,1 | 6,7 | 6,2 | 7,5 | 7,0 | 4,5 | 4,0 | 9,3 |
| Zentro ezkerre | 5,7 | 6,2 | 5,2 | 2,7 | 6,5 | 7,2 | 4,0 | 5,2 | 6,5 |
| Ezkerre | 27,0 | 28,1 | 25,8 | 18,1 | 29,0 | 31,7 | 25,6 | 30,1 | 25,6 |
| Ezker muturra | 1,8 | 1,9 | 1,6 | 2,7 | 1,6 | 1,2 | 1,0 | 1,6 | 2,0 |
| Ed/Ee | 50,4 | 47,9 | 53,2 | 62,8 | 48,0 | 43,6 | 49,1 | 54,2 | 48,7 |
| Guztira ehunekotan . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 740 | 425 |

Datu horiek eta aurreko urteetako datuak (45. taula) alderatzen baditugu, hauxe ikusiko dugu: gaur egun gazte gutxiagok adierazten dutela ezkertiarra direla (%50ek

1996an eta %35ek gaur egun). Baina horrek ez du esan nahi gora egin dutela eskuineko edo zentroko ideologia dutenek. Izan ere, joera horiek oso gutxi aldatu baitira lau urte horietan (eskuinekoak %7 izatetik %8ra pasatu dira eta zentrokoak %11 izatetik %7 izatera). Beraz, gero eta gazte gehiagok ez dute jarrera ideologikorik azaltzen (18 puntuko igoera).

45. taula: EAEko gazteen jarrera ezker/eskuin ardatzean azken urteotan


| | EG'00 | EAE 98/99 | EAE 1997 | EAE 1996 |
|---------------------------|-------|-----------|----------|----------|
| Eskuin muturra | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Eskuina | 5 | 4 | 4 | 4 |
| Zentro eskuina | 3 | 4 | 3 | 3 |
| Zentroa | 7 | 11 | 11 | 11 |
| Zentro ezkerra | 6 | 6 | 8 | 7 |
| Ezkerra | 27 | 37 | 36 | 41 |
| Ezker muturra | 2 | 3 | 4 | 2 |
| Ed/Ee | 50 | 35 | 34 | 32 |
| Guztira ehunekatuta | 100 | 100 | 100 | 100 |

Iturria: bertan egina, honakoetan oinarrituta: Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1997 b: 39 (1996ko datuetarako); Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1998: 52 (1997ko datuetarako) eta Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1999: 56 (1998/99ko datuetarako).

5.2.2. Euskaldun/espainiar ardatza⁴

Jarraian beste ardatz ideologiko bat aztertu behar dugu, hau da, euskaldun edo espainiar sentitzeari dagokiona. EAEko gazteen erdiak baino gehiagok adierazi du (14. grafikoa)

14. grafikoa: Euskaldun/espainiar ardatza (Guztira)



⁴ Lan honetan irizpide hauek hartu ditugu kontuan: euskalduna da euskalduna soilik edo, espainiarra baino gehiago, euskalduna dela adierazi duena, eta espainiarra, berriz, euskalduna baino gehiago espainiarra edo soilik espainiarra dela adierazi duena.

euskalduntzat duela bere burua (%56,4k), eta ehunetik bostek baino ez dute adierazi espainiar sentitzen direla.

Euskaldun sentitzen direnen ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: mutilen, gazteenen eta gipuzkoarren taldeetan batez ere (46. taula).

Arabax baxuagoa da ondorengo bi taldeen arteko aldea, beste lurraldeetan baino: euren burua euskalduntzat dutenen (euskaldunak soilik edo euskaldunak espainiarrak baino gehiago) eta euskaldun bezain espainiartzat dutenen artean. Izan ere, gazteen %43,8 sentitzen da euskaldun soilik eta %40,7 euskaldun eta espainiar sentitzen da.

46. taula: Euskaldun edo espainiar izateari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|---|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Euskalduna soilik | 38,0 | 39,4 | 36,6 | 38,5 | 36,3 | 39,3 | 30,2 | 43,2 | 37,1 |
| Euskalduna, espainiarra baino gehiago | 18,4 | 18,7 | 17,9 | 21,6 | 19,0 | 15,1 | 13,6 | 20,0 | 18,6 |
| Euskaldun bezain espainiar | 30,9 | 29,2 | 32,7 | 27,8 | 32,7 | 31,5 | 40,7 | 26,4 | 31,0 |
| Espainiarra, euskalduna baino gehiago | 2,4 | 2,6 | 2,2 | 4,0 | 1,8 | 1,9 | 2,0 | 2,8 | 2,3 |
| Espainiarra soilik | 2,5 | 2,0 | 3,0 | 1,9 | 2,2 | 3,3 | 4,0 | 0,5 | 3,2 |
| Ed/Ee | 7,8 | 8,1 | 7,6 | 6,2 | 8,0 | 8,9 | 9,5 | 7,1 | 7,8 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 740 | 425 |

Datu horiek aurreko datu batzuekin alderatu ditugu (47. taula). Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Azterketa Soziologikoen Kabineteko Gazteriarren Deskripzioak hartu ditugu erreferentziatzat. Zera ikusi dugu: ez dagoela ia aldaketarik azken lau urteetan, eta gazte gehienak euskaldun sentitzen direla.

47. taula: EAEko gazteen jarrera euskaldun/espainiar ardatzean azken urteotan

| | EG'00 | EAE 98/99 | EAE 1997 | EAE 1996 |
|---|-------|-----------|----------|----------|
| Euskalduna soilik | 38 | 37 | 38 | 39 |
| Euskalduna, espainiarra baino gehiago | 18 | 19 | 20 | 17 |
| Euskaldun bezain espainiar | 31 | 32 | 32 | 34 |
| Espainiarra, euskalduna baino gehiago | 2 | 2 | 2 | 2 |
| Espainiarra soilik | 3 | 3 | 2 | 4 |
| Ed/Ee | 8 | 6 | 6 | 3 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 |

Txaria: bertan egina, honakoetan oinarrituta: Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1997 b: 41 (1996ko datuetarako); Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1998: 54 (1997ko datuetarako) eta Eusko Jaurlaritzako Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1999: 58 (1998/99ko datuetarako).

Hainbat Komunitate Historikotako gazteen jarrera aztertu dugu bertako/espainiar ardatzari dagokionez (48. taula). Datuak desberdinak dira kontsultatutako iturriaren⁵, araberak. Hala ere, bertakoak sentitzen diren ehunekoak antzekoak dira EAEn eta Nafarroan eta beste Komunitateetan baino dezente altuagoak.

48. taula: Bertako/espainiar jarrera zenbait Komunitate Autonomotan

| | EAE | | Nafarroa | Andaluzia | Katalunia | | Galizia |
|--|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | EG'00 (15-29) | SM 99 (15-24) | SM 99 (15-24) | SM 99 (15-24) | SM 99 (15-24) | GC 98 (15-29) | SM 99 (15-24) |
| KA soilik | 38 | 44 | 47 | 18 | 16 | 16 | 36 |
| KA, espainiarra baino gehiago | 18 | 19 | 13 | 16 | 17 | 25 | 17 |
| KA bezain espainiar ... | 31 | 30 | 32 | 43 | 38 | 36 | 22 |
| Espainiarra, KA baino gehiago | 2 | 2 | 0 | 5 | 21 | 9 | 5 |
| Espainiarra soilik | 3 | 4 | 4 | 18 | 8 | 7 | 20 |
| Ed/Ee | 8 | 1 | 3 | 1 | 0 | 8 | 0 |
| Guztira ehunekotan ... | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

⁵ bertan egina, honakoetan oinarrituta: Elzo, J. (Zuz.) et al., 1999: 114-115 (SM 99 datuetarako) eta Secretaria General de Joventut, 1999: 73 (GC 98 datuetarako).

5.2.3. Gertueneko alderdi politikoa

EAEko gazteei alderdi politikoren baten jarraitzaileak diren galdetu diegu (49. taula). Lautik batek ez du ezer adierazi nahi horri buruz. Gainera, %37,8k inolako talde politikoren jarraitzailea ez dela adierazi du. Datuak ikusirik, badirudi nolabaiteko hoztasuna dagoela

49. taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsamoldetik gertuen?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| PP | 2,3 | 1,6 | 3,0 | 2,9 | 2,7 | 1,2 | 5,5 | 2,1 | 1,5 |
| EAJ-PNV | 11,8 | 12,7 | 10,9 | 8,9 | 11,9 | 13,9 | 13,1 | 5,4 | 15,1 |
| PSE/EE | 3,9 | 3,6 | 4,2 | 2,4 | 5,3 | 3,5 | 5,5 | 1,9 | 4,6 |
| IU/EB | 4,3 | 4,5 | 4,2 | 2,7 | 5,3 | 4,6 | 4,0 | 3,1 | 5,1 |
| EH/HB | 11,6 | 12,9 | 10,3 | 11,9 | 12,2 | 11,0 | 9,1 | 15,1 | 10,4 |
| UA | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 0,0 |
| EA | 2,5 | 2,6 | 2,4 | 1,6 | 2,0 | 3,7 | 0,5 | 4,0 | 2,2 |
| Beste batzuk | 0,6 | 0,4 | 0,9 | 0,5 | 1,0 | 0,4 | 0,5 | 0,2 | 1,0 |
| Bat ere ez | 37,8 | 41,0 | 34,4 | 39,6 | 35,7 | 38,5 | 44,2 | 43,3 | 32,8 |
| Ed/Ee | 25,1 | 20,6 | 29,7 | 29,1 | 23,9 | 23,2 | 17,1 | 24,9 | 27,3 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 740 | 425 |

⁵ EAEn kasuan, Javier Elzok Espainiako gazteen inguruan eginiko azterketaren arabera (Elzo, J. (Zuz.) et al., 1999: 114), gazteen %63k du euskalduntzat bere burua. Gure azterketaren arabera, ordea, %56koa da ehuneko hori. Kataluniaren kasuan, aldiz, joera alderantzizkoa da; katalan soilik sentitzen diren gazteen ehunekoak altuagoak da Kataluniako Generalitateak eginiko azterketan (Secretaria General de Joventut, 1999: 73) lehen aipatutakoan baino (%41 eta %33, hurrenez hurren). Edonola ere, kontuan izan behar da adin-taldeak ez direla homogeneoak. Izan ere, kasu batzuetan 15 eta 24 urte bitarteko gazteak hartu baitira eta beste batzuetan, berriz, 15 eta 29 urte bitartekoak.

EAEko gazteen eta alderdi politikoaren artean. Ondorengoak izan daitezke aipatutakoaren arrazoiak: gazteek ideologiarik ez dutela, edo bestela, erakunde politikoak ez direla gai gazteen interesak erakartzeko edo interes horietara moldatzeko.

Edonola ere, EAJ-PNV eta EH/HB alderdiekin identifikatzen dira gehien EAEko gazteak (%11,8 eta %11,6, hurrenez hurren), eta ondoren, IU/EBrekin (%4,3) eta PSE/EErekin (%3,9).

Mutil gehiagok adierazi dute ez daudela inolako alderdi politikotik gertu, neskak baino. Nesken kasuan, ordea, gehiago dira ezer adierazi nahi ez dutenak, mutilak baino. Sexuaren arabera ez dago bestelako alde nabarmenik ideologiari dagokionez.

Adinaren arabera alde handiagoak daude. Gazteenen artean altuagoak dira «Ez daki/Ez du erantzuten» aukeraren ehunekoak, beste adin-taldeetan baino. Gainera, EAJ-PNV alderdia aukeratu dutenen ehunekoak gero eta altuagoak dira adinean gora egin ahala: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %8,9k hartu du aukera hori, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, berriz, %13,9k.

Lurraldean arteko aldeei dagokionez, Gipuzkoan gazte gutxiagok aukeratu dute EAJ-PNV alderdia (%5,4k), beste lurraldeetan baino (%13,1ek Araban eta %15,1ek Bizkaian). EH/HBren kasuan kontrakoa gertatzen da (%15,1 Gipuzkoan eta %9,1 Araban eta %10,4 Bizkaian); EAren kasuan ere antzekoa gertatzen da, baina aldeak txikiagoak dira. Araban gazte gehiagok hautatu dute PP alderdia (%5,5ek), Gipuzkoan (%2,1ek) eta Bizkaian (%1,5ek) baino.

5.2.4. Europarekiko nortasun-sentimendua

Europa eraikitzeke prozesuak goieneko unea bizi du orain. Hori aprobetxatuz, ondorengo hau jakin nahi izan dugu: zein neurritan egiten duten bat EAEko gazteek errealitate sozial horrekin. Hau da, Europako Batasuneko datozen belaunaldietako herritarren iritzia ezagutu nahi izan dugu.

Gure inkestako datuen arabera, Europarekiko nortasun-sentimendua nahiko baxua da EAEko gazteen artean. Zehazki (50. taula), hamarretik seik adierazi dute ez direla batere europar sentitzen edo oso gutxi sentitzen direla.

Mutilen eta nesken artean ia ez dago alderik, baina adin-taldeen artean bai. Gazteenak dira gehien identifikatzen direnak Europako proiektuarekin. Izan ere, euren burua oso edo nahiko europartzat dutenen artean, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen ehunekoak 7/8 puntu altuagoa da beste adin-taldeetako ehunekoak baino.

Lurraldean arteko aldeei dagokionez, Arabako gazteek Europarekiko nortasun-sentimendu handiagoa dute. Arabako gazteen ia %40k du bere burua nahiko edo oso europartzat; gipuzkoarren kasuan, ordea, %26,4k baino ez du hori adierazi.

Ezker/eskuin ardatzari dagokionez, ezkertiarrek lotura txikiagoa sentitzen dute Europarekiko (%29 baino ez da oso edo nahiko europar sentitzen); zentrokoeen eta eskuindarren artean, berriz, askoz gehiagok azaldu dute europar sentitzen direla (%45ek inguru).

Gauza bera gertatzen da euskaldun/espainiar ardatza aztertuz gero. Nagusiki espainiar sentitzen direnen artean, erdiak nahiko edo oso europar sentitzen dira; soilik euskaldun edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnen artean, ordea, %27,8k baino ez du Europarekiko nortasun-sentimendu garbia.

50. taula: Zein neurritan duzu zure burua europartzat?

| % Horizontalak | Oso | Nahikoa | Gutxi | Batere ez | Ed/Ee | Guztira |
|------------------------------------|------|---------|-------|-----------|-------|---------|
| GUZTIRA | | | | | | |
| | 8,1 | 24,7 | 36,8 | 21,0 | 9,4 | 1.364 |
| SEXUA | | | | | | |
| Gizonezkoak | 8,1 | 25,2 | 35,8 | 22,7 | 8,2 | 695 |
| Emakumezkoak | 8,1 | 24,2 | 37,8 | 19,3 | 10,6 | 669 |
| ADIN-TALDEAK | | | | | | |
| 15-19 | 9,2 | 29,6 | 32,7 | 18,3 | 10,2 | 371 |
| 20-24 | 8,0 | 22,0 | 37,9 | 23,3 | 8,8 | 510 |
| 25-29 | 7,2 | 23,9 | 38,9 | 20,7 | 9,3 | 473 |
| LURRALDEA | | | | | | |
| Araba | 11,6 | 27,6 | 37,2 | 14,1 | 9,5 | 199 |
| Gipuzkoa | 5,9 | 20,5 | 32,7 | 29,8 | 11,1 | 425 |
| Bizkaia | 8,4 | 26,4 | 39,1 | 17,8 | 8,4 | 740 |
| EZKER/ESKUI ARDATZA | | | | | | |
| Ezkeriarra | 7,9 | 21,1 | 38,9 | 25,5 | 6,6 | 470 |
| Zentrokoa | 13,7 | 31,6 | 43,1 | 7,4 | 4,2 | 95 |
| Eskuindarra | 15,3 | 28,8 | 35,2 | 15,3 | 5,4 | 111 |
| Ed/Ee | 6,3 | 25,6 | 34,7 | 20,8 | 12,6 | 688 |
| EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA | | | | | | |
| Espainiarra | 13,4 | 37,3 | 25,4 | 14,9 | 9,0 | 67 |
| Euskalduna/espainiarra | 13,0 | 30,1 | 39,8 | 10,9 | 6,2 | 422 |
| Euskalduna | 5,5 | 22,3 | 38,2 | 26,7 | 7,3 | 768 |
| Ed/Ee | 3,7 | 13,1 | 21,5 | 24,3 | 37,4 | 107 |
| GERTUENEN ALDERDI POLITIKOA | | | | | | |
| PP | 32,3 | 29,0 | 22,6 | 16,1 | 0,0 | 31 |
| EAJ-PNV | 8,7 | 29,8 | 47,2 | 9,3 | 5,0 | 161 |
| PSE-EE | 20,8 | 35,8 | 30,2 | 9,4 | 3,8 | 53 |
| IU-EB | 8,5 | 25,4 | 45,8 | 16,9 | 3,4 | 59 |
| EH/HB | 1,9 | 15,7 | 40,9 | 34,0 | 7,5 | 159 |
| UA | 100 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1 |
| EA | 8,8 | 35,3 | 35,3 | 20,6 | 0,0 | 34 |
| Beste batzuk | 11,1 | 11,1 | 44,5 | 22,2 | 11,1 | 9 |
| Bat ere ez | 8,3 | 24,9 | 35,6 | 22,3 | 8,9 | 515 |
| Ed/Ee | 5,6 | 23,4 | 32,7 | 21,6 | 16,7 | 342 |

Gai hau, bestalde, gertueneko alderdi politikoen arabera ere aztertu dugu. PP eta PSE/EE alderdiak aukeratu dituzten gazteen artean, gehienek agertu dute Europarekiko nortasun-sentimendu garbia dutela (%61,3k eta %56,6k, hurrenez hurren). Bestetik, alderdi abertzaleak eta IU/EB aukeratu dituztenen artean, EBrekiko lotura-sentimendua askoz ere baxuagoa da (%17,6koa baino ez EH/HB alderdia aukeratu dutenen artean).

EAEko gazteek lotura baxuagoa erakutsi dute Europako proiektuarekiko, Kataluniako gazteek baino. Izan ere, Kataluniako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %50,4k adierazi baitu oso edo nahiko europar sentitzen dela (Secretaria General de Joventut, 1999: 73); EAEn, ordea, %32,8k baino ez du hori adierazi. Kataluniako merkataritza-tradizio indartsuak izan dezake eragin horretan, historian zehar lotura handia izan baitu Europarekin.

ONDORIOAK

- EAEko gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok adierazi du ez lukeela nahi gai publikoetan gehiago parte hartu; bestalde, herenak baino ez du parte-hartze maila handitzea nahi. Emakumezkoek eta gazteenek dute joera handiagoa aktiboago parte hartzeko. Aktiboago parte hartu nahi ez dutenen ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: gizonezkoen, zaharrenen, eskuindarren eta euren burua espainiar edo euskaldun/espainiarizat dutenen taldeetan.
- EAEko gazteen erdiak ez du eskuin eta ezkeraren artean ideologikoki jarrera hartu nahi. Horri dagokionez, ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: emakumezkoen, 15 eta 19 urte bitarteko mutilen eta gipuzkoarren taldeetan. Eta horrek erakusten du irizpide hori indarra galtzen ari dela identifikazio politikoaren barruan.
- EAEko gazteen %56,4k bere burua euskalduntzat duela adierazi du, eta ehunetik bostek baino ez dute adierazi espainiar sentitzen direla batez ere.
- Euskaldun sentitzen direnen ehunekorik altuenak talde hauetan lortu dira: mutilen, gazteenen eta gipuzkoarren taldeetan batez ere. Araban ia antzekoak dira euskaldun eta espainiar sentitzen direnen ehunekoak (%40,7) eta euren burua euskalduntzat dutenena (%43,8) (azken ehunekoak hauek hartzen ditu barne: euskaldunak soilik eta euskaldunak espainiarrak baino gehiago).
- EAEko gazteen artean, lautik batek ez daki edo ez du ezer adierazi nahi gertue-neko alderdi politikoari buruz galdetzen zaionean. Gainera, %37,8k inolako talde politikoren jarraitzailea ez dela adierazi du. Datuak ikusirik, badirudi nolabaiteko hoztasuna dagoela EAEko gazteen eta alderdi politikoen artean.
- EAJ-PNV eta EH/HB alderdiekin identifikatzen dira gehien EAEko gazteak (%11,8 eta %11,6, hurrenez hurren), eta ondoren, IU/EBrekin (%4,3) eta PSE/EErekin (%3,9).
- Europarekiko nortasun-sentimendua nahiko baxua da EAEko gazteen artean. Hala ere, gai horrek ezker/eskuin eta euskaldun/espainiar ardatzekin lotura handia duela azpimarratu behar dugu: ezkertiar eta euskaldun sentitzen direnen artean, gehienek ez dute inolako loturarik sentitzen Europarekiko edo oso lotura txikia sentitzen dute; zentrokoen eta eskuindarren artean eta nagusiki espainiar sentitzen direnen artean, dezente altuagoak dira oso edo nahiko europar sentitzen direnen ehunekoak.
- Ondorengo bi alderdiak izan behar ditugu kontuan bereziki:
 - Badirudi gai publikoetan parte hartzeko interes falta erosotasun-jarreraren ondorioa dela gehienbat, eta ez bi alderdi hauen ondorioz: zein neurritan parte hartu behar den balioetsi dutelako edo sistema politikoaren ikuskera (parte-hartzailea edo ez hain parte-hartzailea) kontuan hartu dutelako. Horrek ez du esan nahi beste eragile posible bat ahaztu behar dugunik: sistema politikoa herritarren errealitatetik eta arazoetatik urruti egotea.
 - Esan dugu Europarekiko nortasun-sentimenduaren gaiak lotura handia duela ezker/eskuin eta euskaldun/espainiar ardatzekin. Hori, agian, Europako proiektuaren pluraltasun ezaren adierazgarria da. Agian, joera neoliberalerako politika makroekonomikotan gehiegi oinarriturik dagoela uste dute gazteek eta, halaber, estatu-nazioetatik eraikia dela.



6

Erljioaren papera

Erligioak gizartean duen paperaren inguruko azken azterketetan bi ikuspuntu nagusitu dira. Batzuek sekularizazio-prozesuaren barruan kokatzen dute erlijioa eta prozesu horren adierazgarritzat honakoa aipatzen dute: gizarte modernoan galdu egin dela erlijioaren arrastoaren eragina. Beste batzuek, ordea, erlijio-adierazpen berriak aztertzen dituzte, instituzionalizatutako erlijiozkotasuna versus esperientzia-erlijiozkotasuna dikotomiaren esparruan (Elzo, J. et al., 1996: 93, 94).

Gure azterketan, ikuspuntu instituzionaletik baino ez dugu erlijiozkotasunaren gaia jorratu behar, hau da, erlijio edo Eliza jakin baten ortodoxiaren esparruan. Esperientzia-erlijiozkotasuna, beraz, alde batera utzi dugu, hots, erlijio-autopertzepzio edo -autoesperimentazioan edo espiritualaren eskaeran oinarritutakoa.

Kapitulu honetan EAEko gazteen jarrera ezagutu nahi izan dugu, erlijioari dagokionez. Horretarako, alderdi hauek aztertu ditugu:

- ▶ *Erlijiozkotasuna.*
- ▶ *Erljio-praktika.*
- ▶ *Erljio-ospakizun jakin batzuekiko jarrera.*


6.1. GAZTEEN ERLIJIOZKOTASUNA

Erljiozkotasuna ikuspuntu instituzionaletik aztertuz gero, EAEko gazteak bi taldetan banatuko ditugu: fededunak eta fedegabeak. Honakoek osatzen dute fededunen taldea: katoliko praktikanteak, katoliko ez-praktikanteak eta beste erlijio batzuetakoak direla adierazi dutenek. Fedegabeena, berriz, honakoek: Jainkoagan bai, baina erlijioetan sinesten ez dutenek, interesik gabekoek edo agnostikoek eta sinesgabeek edo ateoek (15. grafikoa).

EAEko gazteen artean, erlijiozkotasun-tasa %57koa da, hau da, 30 urtetik beherako EAEko 10 gaztetatik ia lauk adierazi dute sinesgabeak direla.

Sinesgabeen ehunekoa altuagoa da gizonezkoen eta 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Beraz, badirudi sexuak eta adinak eragina dutela gazteen erlijio-jarreran

15. grafikoa: Erlijioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?



(51. taula). Emakumezko fededunen ehunekoa altuagoa da gizonezko fededunen ehunekoa baino (10 puntu baino gehiago; %62,5 eta %51,8, hurrenez hurren). Bestetik, badirudi erlijio-sena altuagoa dela gazteriaren lehen garaian (15 eta 19 urte bitartean) eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

51. taula: Erlijioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Fededuna | 57,0 | 51,8 | 62,5 | 58,5 | 54,7 | 58,3 | 58,3 | 56,5 | 57,0 |
| Fedegabea | 38,8 | 44,0 | 33,3 | 36,1 | 42,2 | 37,4 | 40,2 | 36,7 | 39,6 |
| Ed/Ee | 4,2 | 4,2 | 4,2 | 5,4 | 3,1 | 4,3 | 1,5 | 6,8 | 3,4 |
| Guztira ehunekotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 |

Gainera, Araban handiagoa da erlijioaren inguruko polarizazioa, EAeko beste lurraldeetan baino. Izan ere, bertako fededunen eta fedegabeen ehunekoak altuenak baitira (%58,3 eta %40,2, hurrenez hurren). Arabako gazteek erlijio-jarrera argiagoa dutela esan dezakegu, EAeko gainerako gazteek baino, batez ere gipuzkoarrek baino; izan ere, gipuzkoarren kasuan, gazteen %6,8k ez daki edo ez du bere burua definitu nahi izan erlijioari dagokionez.

Bestalde, euren burua fededuntzat duten EAeko ia gazte guztiek katolikoak direla adierazi dute; oso gutxik adierazi dute beste erlijio batzuetakoak direla, %0,9k baino ez (gazteriaren %0,5, oro har).

Amaitzeko, beste ikerketa batzuetako datuekin konparatu ditugu goiko datuak (52. taula). Konparaketaren arabera, EAeko gazteen artean baxuagoa da erlijiozkotasuna, Espainiako estatuko gazteen artean baino. Hala ere, are baxuagoa da Kataluniako eta Balearretako gazteen artean.

52. taula: Erlijio-jarrera

(Datu konparatiboak: EAE, Estatuak, Katalunia eta Balearrak)

| | EG'00 | EAE 98/99 | ESTATUA 97 | KATALUNIA 98 | BALEARRAK 97 |
|------------------------------|-------|-----------|------------|--------------|--------------|
| Fededuna | 57 | 60 | 76 | 50 | 53 |
| Fedegabea | 39 | 38 | 22 | 44 | 45 |
| Ed/Ee | 4 | 2 | 2 | 6 | 2 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Iturria: bertan egina, honakoetan oinarrituta: Azterketa Soziologikoen Kabinetea, 1999: 20 (EAEko 1998/99ko datuetarako); Centro de Investigaciones Sociológicas, 1997: 26 (Estatuko 1997ko datuetarako); Secretaría General de Joventut, 1998: 77 (Kataluniako 1998ko datuetarako) eta Direcció General de Joventut i Família del Govern Balear, 1997: 260 (Balearretako 1997ko datuetarako).

6.2. ERLIJIO-PRAKTIKA

Esan dugu nahiko baxua dela erlijiozkotasuna EAEko gazteen artean, gazte dezentek adierazi baitute euren burua fedegabetzat dutela. Horrez gain, ondorengoa ere azpimarratu behar dugu: fededunen artean oso gutxi direla praktikanteak.

Gazteek erlijioari dagokionez euren burua definitzen dutenean ikusten da argi eta garbi aipatutakoa. Beraz, gazte katolikoek (ia fededun guztiak dira katolikoak) %22k baino ez du praktikantetzat bere burua. Hau da, EAEko gazteen %12,5ek baino ez du adierazi katoliko praktikantea dela. Oraingoan ere 15 eta 19 urte bitarteko gazteen taldea azpimarratu behar dugu. Izan ere, praktikanteen ehunekorik altuena lortu baita talde horretan (53. taula).

53. taula: Katoliko praktikanteak eta ez-praktikanteak

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Praktikanteak | 22,0 | 21,0 | 22,9 | 33,6 | 17,6 | 17,6 | 24,6 | 19,7 | 22,7 |
| Ez-praktikanteak | 78,0 | 79,0 | 77,1 | 66,4 | 82,4 | 82,4 | 75,4 | 80,3 | 77,3 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 771 | 357 | 414 | 214 | 279 | 278 | 114 | 238 | 419 |

Gazte katoliko praktikanteei eta beste erlijio batzuetako gazteei Elizara zein maiztasunez joaten diren galdetu diegu (54. taula). Gehienek astean behin joaten direla erantzun dute; gutxiengo batek egunero edo ia egunero joaten dela erantzun du. Baina ondorengo hau da harrigarriena: galdetutako gazteen %43 inguru (fededunak izanik eta, katolikoek kasuan, praktikanteak) ez dela igandeko elizkizunetara joaten. Ondorioz, EAEko gazteen %5,6 soilik joaten da gutxienez astean behin elizkizunetara.

Orain arte ateratako ondorioek kontrakoak pentsarazi arren, emakumezkoak gutxiagotan joaten dira Elizara gizonetzkoak baino.

Adinean aurrera egin ahala gero eta praktikante gutxiago daude, eta beraz, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak joaten dira gutxien Elizara.

54. taula: Zein maiztasunez joaten zara Elizara?
(Katoliko praktikanteak eta beste erlijio batzuetako gazteak soilik)

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--------------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| Egunero edo ia egunero | 1,7 | 2,6 | 1,0 | 1,3 | 2,0 | 1,9 | 0,0 | 2,0 | 2,0 |
| Astean behin baino gehiagotan. | 7,4 | 5,1 | 9,1 | 8,0 | 8,2 | 5,7 | 10,0 | 8,2 | 6,2 |
| Astean behin | 46,9 | 56,4 | 39,4 | 49,3 | 46,9 | 43,4 | 43,3 | 49,0 | 46,9 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 42,9 | 34,6 | 49,5 | 40,0 | 42,9 | 47,2 | 46,7 | 36,7 | 44,9 |
| Ed/Ee | 1,1 | 1,3 | 1,0 | 1,4 | 0,0 | 1,8 | 0,0 | 4,1 | 0,0 |
| Guztira ehunetotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 177 | 78 | 99 | 75 | 49 | 53 | 30 | 49 | 98 |

Bestalde, Elizara astero joaten diren praktikanteen ehunekoa Gipuzkoan da altuena. Baina, hiru lurraldeen artean, Gipuzkoak du katoliko praktikanteen tasarik baxuena. Hala ere, praktikante horiek maizago hartzen dute parte erlijio-praktiketan besteek baino. Araban alderantzizkoa gertatzen da.

6.3. ERLIJIO-OSPAKIZUNAK

EAEko gazteen erlijiozkotasun-tasak ez dira oso altuak (%57) eta ohiko erlijio-praktikak ez daude oso hedatuta (ezta fededunen artean ere). Hala ere, 30 urtetik beherako hamar gaztetatik zazpi zenbait egoeratan erlijio-ospakizunak egitearen alde daude, esate baterako, jaiotza, ezkontza edo heriotza. Gainera, %16 baino ez dago erlijio-praktika horien kontra erabat.

Ez dakigu erlijio-ospakizun horiek onartzeak EAEko gazteek nolabaiteko erlijio-sentimendua dutela adierazten duen, edo bestela, gazteek formalismo sozial horiek onartzen dituzte, gizartean erabat errotuta daudelako, nahiz eta inolako zentzu teologikorik ez izan eurentzat.

Edonola ere, talde hauek dira kritikoan erlijio-ospakizunei dagokienez: gizonezkoak, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak, bizkaitarrak eta, nola ez, fedegabeak.

55. taula: Bizitzako zenbait egoeratan erlijio-ospakizunak egitearen alde al zaude?

| | Guztira | Sexua | | Adina | | | Lurraldea | | | Fededuna | |
|--------------------------|---------|--------|-------|-------|-------|-------|-----------|----------|---------|----------|------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Bai | Ez |
| Bai, oro har | 70,2 | 67,0 | 73,5 | 78,5 | 71,1 | 65,2 | 71,4 | 69,2 | 70,6 | 87,2 | 46,9 |
| Batzuetan baino ez .. | 11,1 | 10,1 | 12,1 | 8,4 | 11,0 | 13,3 | 12,6 | 12,0 | 10,1 | 6,9 | 17,4 |
| Ez, oro har | 16,0 | 19,9 | 12,0 | 12,9 | 15,5 | 18,8 | 14,6 | 15,8 | 16,5 | 3,9 | 34,0 |
| Ed/Ee | 2,7 | 3,0 | 2,4 | 3,2 | 2,4 | 2,7 | 1,4 | 3,0 | 2,8 | 1,9 | 1,7 |
| Guztira ehunetotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 590 | 483 | 199 | 425 | 740 | 778 | 529 |

ONDORIOAK

- Erlijiozkotasuna nahiko baxua da EAEko gazteen artean, gazte dezentek adierazi baitute euren burua fedegabetzat dutela (hamarretik lauk, gutxi gorabehera). Horrez gain, ondorengoa ere azpimarratu behar dugu: fededunen artean oso gutxi direla praktikanteak.
- Emakumezko gehiagok adierazi dute fededunak direla, gizonezkoek baino.
- Euren burua fededuntzat duten EAEko ia gazte guztiek katolikoak direla adierazi dute; oso gutxi adierazi dute beste erlijio batzuetakoak direla.
- Hona hemen bi adierazgarri, EAEko gazteek erlijioa oso gutxi praktikatzen dutela ikusteko: batetik, gazte katolikoek (ia fededun guztiak dira katolikoak) %22k baino ez du praktikantetzat bere burua (EAEko gazteen %12,5ek soilik); bestetik, katoliko praktikanteen eta beste erlijio batzuetako gazteen %43 inguru ez da igandero elizkizunetara joaten. Izan ere, EAEko gazteen %5,6 soilik joaten da gutxienez astean behin elizkizunetara.
- EAEko gazteen erlijiozkotasun-tasak ez dira oso altuak (%57) eta ohiko erlijio-praktikak ez daude oso hedatuta (ezta fededunen artean ere). Hala ere, 30 urte-tik beherako hamar gaztetatik zazpi zenbait egoeratan erlijio-ospakizunak egite-aren alde daude, esate baterako, jaiotza, ezkontza edo heriotza.
- Ondorengo gai hau izan behar da kontuan bereziki:
 - EAEko gazteen erlijiozkotasun instituzionalaren atzerakada justifikatzeko erlijio-balioen galera azpimarratzen da. Baina ez da alderdi hori soilik hartu behar kontuan. Azterketa hau esparru instituzionalean oinarritu da gehienbat; baina azterketa sakonagoa egin beharko litzateke. Esperientzia-erlijiozkotasunari loturiko balioak hartu beharko lirateke kontuan, hala nola, bizitzaren esanahiaz kezkatzea, Jainkoak, erlijioak edo espiritualtasunak norberarentzat duen garrantzia, norbere burua fededuntzat hartzea edo ez, otoitzen maiztasuna, etab. Horrela, erlijio-balioak benetan galdu diren ikusi ahal izango dugu, edo bestela, balio horiek ikuspuntu intimistagoren bidez berrorientatu diren, Elizaren ortodoxiatik aparte.



7

Gizarte-balioak

Kapitulua honetan EAEko gazteek honako bi arlotan dituzten balioak zeintzuk diren jakiten saiatuko gara:

- ▶ *Gizarte-arloa. Hor elkarbizitzaren inguruko balioak aztertuko ditugu, hots, gazteek honako gizarte alorrei buruz duten ikuspegia:*

- Oinarrizko gizarte-balioak.
- Gizarte-portaerak.
- Osasunerako ohitura kaltegarriak.

- ▶ *Besteen arloa. Hor inguruko pertsonak nola ikusten ditugun aztertuko dugu: gu bezalakoak edo desberdinak ikusten ditugun, ezaugarri desberdinak dituztelako, talde jakin bateko kideak direlako edo gurea ez bezalako ideologia dutelako. Atal horretan honako gaiak aztertuko ditugu:*

- Auzokideekiko tolerantzia.
- Tolerantzia ideologikoa.
- Inmigrazioarekiko jarrera.
- Gaez kalera ateratzeko beldurra.

7.1. GIZARTE-ARLOA

7.1.1. Oinarrizko gizarte-balioak

Euskadiko gazteei dibortzioaz, abortuaz, eutanasiar eta harreman homosexualez gald egin zaie. 56. taulan ikus daitekeenez, gazte gehienek portaera horiek guztiak onartu egiten badituzte ere, badira hainbat xehetasun garrantzitsu.

Harreman homosexualak eta dibortzioa dira gizarte-onarpen handiena duten bi portaerak. Hain zuzen, harreman homosexualak gazteen %81,5ak guztiz onartzen ditu (beste %10,6ak onartu egiten ditu zenbait erreparorekin). Guztien artean gizarte-gaitzespen txikiena dibortzioak du (%2,1), gutxiago dira, baina, baldintzarik gabe onartzen dutenak (%57,4). Hots, gazteak, oro har, guztiz toleranteak dira besteen sexu-aukerarekiko; baina

ezkontza desegiteko, desegite hori arrazoizko bihurtzen duten zenbait baldintza eman behar direla adierazten dute gazteen hamarretik lauk.

Beste alde batetik, Euskadiko gazteen %87 inguruk abortua eta eutanasia onartu egiten badute ere, gehienek (%57) baldintza batzuk jartzen dituzte onartzeko. Gainera, abortua eta eutanasia gaitzetsi egiten dituzte EAEko gazteen hamarretik batek (%11 eta %9,3, hurrenez hurren). Hau da, arrazoiak ezinbestekoak dira bizitza balioari eragiten dioten portaerak defendatzeko.

Balio horiekiko jarrera taldeka aztertzen baditugu, talde guztietan gehiengoak lau portaerak onartzen dituztela ikusten da. Dena den, badira aldeak onarpen-mailari dago-kionean.

Oro har, ez dago sexuaren araberako alde handirik. Hala ere, neskak portaera horien aurrean toleranteagoak direla adieraz daiteke, baina bizitzarekin zerikusia dutenetan (eutanasia eta abortua) zenbait baldintza behar dira hori onartzeko.

56. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | |
|---------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee |
| HARREMAN HOMOSEXUALAK | | | | | | | | | | |
| Beti | 81,5 | 77,7 | 85,5 | 77,9 | 83,6 | 82,2 | 91,1 | 76,8 | 81,1 | 75,7 |
| Egoera batzuetan soilik | 10,6 | 10,7 | 10,6 | 12,9 | 8,0 | 11,6 | 5,7 | 12,6 | 10,8 | 13,7 |
| Inoiz ez | 4,7 | 6,9 | 2,4 | 5,4 | 5,7 | 3,1 | 2,3 | 9,5 | 8,1 | 5,1 |
| Ed/Ee | 3,2 | 4,7 | 1,5 | 3,8 | 2,7 | 3,1 | 0,9 | 1,1 | 0,0 | 5,5 |
| DIBORTZIOA | | | | | | | | | | |
| Beti | 57,4 | 55,5 | 59,5 | 49,1 | 58,2 | 62,9 | 72,4 | 52,6 | 60,4 | 47,4 |
| Egoera batzuetan soilik | 39,4 | 40,1 | 38,6 | 44,1 | 40,2 | 34,9 | 26,4 | 44,2 | 36,9 | 48,0 |
| Inoiz ez | 2,1 | 2,7 | 1,3 | 4,6 | 1,0 | 1,2 | 0,6 | 2,1 | 2,7 | 2,9 |
| Ed/Ee | 1,1 | 1,7 | 0,6 | 2,2 | 0,6 | 1,0 | 0,6 | 1,1 | 0,0 | 1,7 |
| ABORTUA | | | | | | | | | | |
| Beti | 30,1 | 31,1 | 29,1 | 24,3 | 33,3 | 31,3 | 45,7 | 21,1 | 25,2 | 21,5 |
| Egoera batzuetan soilik | 56,4 | 54,0 | 59,1 | 56,9 | 55,1 | 57,5 | 49,8 | 58,9 | 58,6 | 60,3 |
| Inoiz ez | 11,7 | 12,7 | 10,6 | 16,4 | 10,4 | 9,3 | 3,6 | 18,9 | 15,3 | 15,6 |
| Ed/Ee | 1,8 | 2,2 | 1,2 | 2,4 | 1,2 | 1,9 | 0,9 | 1,1 | 0,9 | 2,6 |
| EUTANASIA | | | | | | | | | | |
| Beti | 29,5 | 30,8 | 28,1 | 22,6 | 33,3 | 30,6 | 42,8 | 21,1 | 23,4 | 22,5 |
| Egoera batzuetan soilik | 57,2 | 53,8 | 60,7 | 55,5 | 56,3 | 59,4 | 51,5 | 61,1 | 63,1 | 59,6 |
| Inoiz ez | 9,3 | 11,7 | 6,9 | 13,5 | 8,0 | 7,5 | 3,4 | 12,6 | 11,7 | 12,5 |
| Ed/Ee | 4,0 | 3,7 | 4,3 | 8,4 | 2,4 | 2,5 | 2,3 | 5,2 | 1,8 | 5,4 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 |

Adinari dagokionean, jarduera guzti horiekiko onarpen-mailarik handiena 20 eta 29 urte bitarteko gazteen taldean ematen da.

Oinarrizko balio horietan alderik nabarmenena sortzen duen baldintza ideologia politikoa da. Horrela, gizarteko jarduera horiekiko jarrera irekiena ezkerreko gazteek

dute, izan ere hamarretik lauk abortua eta eutanasia onartzen dituzte, baldintzarik gabe.

Euskadiko eta Kataluniako gazteek gai horiekiko duten jarrera alderatuz gero (57. taula), honakoa ikusten da: Kataluniako gazte gehiagok onartzen dituzte abortua eta eutanasia baldintzarik gabe; eta, aitzitik, Euskadiko gazte gehiagok onartzen dituzte harreman homosexualak.

57. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?
(EAE eta Kataluniako datuen konparazioa)

| | Beti | | Egoera batzuetan soilik | | Inoiz ez | | Ed/Ee | |
|-----------------------------|-------|-------|-------------------------|-------|----------|-------|-------|-------|
| | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 |
| Dibortzioa | 57,4 | 58,8 | 39,4 | 34,6 | 2,1 | 4,8 | 1,1 | 1,8 |
| Abortua | 30,1 | 40,7 | 56,4 | 45,1 | 11,7 | 11,9 | 1,8 | 2,3 |
| Eutanasia | 29,5 | 43,1 | 57,2 | 40,3 | 9,3 | 12,3 | 4,0 | 4,2 |
| Harreman homosexualak | 81,5 | 71,8 | 10,6 | 14,1 | 4,7 | 9,7 | 3,2 | 4,5 |

Iturria: bertan egina honako datuetan oinarrituta: Secretaria General de Joventut, 1999: 84-85 (Kataluniako datuetarako).

Beste alde batetik, Euskadiko (eta Kataluniako) gazte gehiagok adierazten dute eutanasiaren⁶ alde daudela Europako 15 eta 24 urte bitarteko gazteak baino (Comission Européenne, 1997: 85), izan ere azken horien %34,5ak eutanasiaren aurka dagoela adierazten du. Hainbat herrialdetan, gainera, kopuruak handiagoak dira Grezia (%68,5), Italia (%56,5) eta Irlanda (%53,9). Eta, aldiz, Euskadiko gazteen artean eutanasia inola ere onartzen ez dutenak %9,3 soilik dira.

7.1.2. Gizarte-portaerak

Atal honetan gizarteko zenbait portaerari buruz (politikoek euren egoerari etekina atera nahi izatea, zenbait unetan legez kanpoko drogak hartzea, alkoholaren eraginpean gidatzea, kalea zikintzea edo Ogasunari iruzur egitea) zein iritzi duten galdetu zaie Euskadiko gazteei.

Gazte gehienek portaera guzti horiek gaitzetsi egiten dituzte (58. taula), baina ez dute jarrera berbera portaera guztiekiko. Horrela, ustelkeria politikoa da gutxien onartzen dena, izan ere neska-mutilen %87,6ak ez bailuke inoiz defendatuko. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen gaitzespena batezbestekoa baino zerbait txikiagoa da.

Horren ondoren, gehien gaitzesten den portaera alkoholaren eraginpean gidatzea da, hain zuzen, Euskadiko %70ak ez baitu inoiz ere onartzen. Gaitzespena orokorra bada ere, mutilek errazago onartzen dute neskek baino, eta ezkerrekoek zentrokoek eta eskuinekoek baino errazago. Aitzitik, gazteen artean (15 eta 19 urte bitartekoak) gutxiago onartzen da gainerako gazteen artean baino.

⁶ Eutanasiari buruzko iritzian soilik egin ahal izan da Euskadiko eta Europako gazteen arteko konparazioa, izan ere Europako ikerketan ez baitzen galdetu abortuaz, dibortzioaz eta harreman homosexualaz.

58. taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?

| | Gutzira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | |
|--|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee |
| <i>POLITIKOEN EUREN EGOERARI ETEKINA</i> | | | | | | | | | | |
| <i>ATERA NAHI IZATEA</i> | | | | | | | | | | |
| Beti | 2,6 | 2,6 | 2,7 | 4,3 | 2,4 | 1,7 | 3,2 | 3,2 | 0,9 | 2,5 |
| Egoera batzuetan soilik | 7,0 | 6,6 | 7,3 | 9,4 | 6,3 | 5,8 | 7,7 | 3,2 | 6,3 | 7,1 |
| Inoiz ez | 87,6 | 88,3 | 86,8 | 80,9 | 90,0 | 90,3 | 87,9 | 92,6 | 92,8 | 85,9 |
| Ed/Ee | 2,8 | 2,5 | 3,2 | 5,4 | 1,3 | 2,2 | 1,2 | 1,0 | 0,0 | 4,5 |
| <i>ALKOHOLAREN ERAGINPEAN GIDATZEA</i> | | | | | | | | | | |
| Beti | 0,7 | 0,9 | 0,4 | 1,1 | 0,6 | 0,4 | 0,4 | 0,0 | 0,9 | 0,9 |
| Egoera batzuetan soilik | 19,6 | 23,0 | 16,1 | 16,2 | 21,4 | 20,5 | 23,2 | 16,8 | 16,2 | 18,2 |
| Inoiz ez | 79,0 | 75,1 | 83,1 | 81,7 | 77,5 | 78,5 | 75,5 | 83,2 | 82,9 | 80,1 |
| Ed/Ee | 0,7 | 1,0 | 0,4 | 1,0 | 0,5 | 0,6 | 0,9 | 0,0 | 0,0 | 0,8 |
| <i>KALEA ZIKINTZEA</i> | | | | | | | | | | |
| Beti | 1,5 | 1,7 | 1,2 | 1,3 | 1,8 | 1,2 | 1,3 | 0,0 | 3,6 | 1,5 |
| Egoera batzuetan soilik | 31,5 | 32,7 | 30,2 | 38,8 | 29,6 | 27,7 | 31,1 | 32,6 | 27,0 | 32,3 |
| Inoiz ez | 65,5 | 64,0 | 67,1 | 57,1 | 67,8 | 69,6 | 66,2 | 67,4 | 67,6 | 64,5 |
| Ed/Ee | 1,5 | 1,6 | 1,5 | 2,8 | 0,8 | 1,5 | 1,4 | 0,0 | 1,8 | 1,7 |
| <i>ZENBAIT UNETAN LEGEZ KANPOKO</i> | | | | | | | | | | |
| <i>DROGAK HARTZEA</i> | | | | | | | | | | |
| Beti | 5,1 | 7,3 | 2,7 | 3,3 | 4,3 | 7,2 | 9,6 | 2,1 | 5,4 | 2,3 |
| Egoera batzuetan soilik | 34,3 | 36,8 | 31,7 | 31,5 | 34,9 | 35,8 | 50,2 | 33,7 | 29,7 | 24,3 |
| Inoiz ez | 58,9 | 54,8 | 63,1 | 63,6 | 58,4 | 55,7 | 38,9 | 63,2 | 64,0 | 71,1 |
| Ed/Ee | 1,7 | 1,1 | 2,5 | 1,6 | 2,4 | 1,3 | 1,3 | 1,0 | 0,9 | 2,3 |
| <i>OGASUNARI IRUZUR EGITEA</i> | | | | | | | | | | |
| Beti | 11,1 | 14,8 | 7,3 | 9,2 | 12,0 | 11,8 | 13,6 | 9,5 | 9,9 | 9,9 |
| Egoera batzuetan soilik | 30,4 | 28,2 | 32,6 | 24,5 | 29,8 | 35,4 | 36,6 | 29,5 | 36,0 | 25,3 |
| Inoiz ez | 53,8 | 53,4 | 54,3 | 56,6 | 55,3 | 50,1 | 46,4 | 57,9 | 52,3 | 58,6 |
| Ed/Ee | 4,7 | 5,6 | 5,8 | 9,7 | 2,9 | 2,7 | 3,4 | 3,1 | 1,8 | 6,2 |
| Gutzira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 |

Kalea zikintzea gaitzesgarria da gazteen %65,5entzat. Dena den, gazteen %31 baino gehiagoren iritziz, zenbait egoeratan ulergarria izan daiteke. Alderdi horretan gazteenek dute jarrerarik malguena.

Gazteen %58,9ak guttiz gaitzesten du une zehatz batean legez kanpoko drogak hartzea, eta %39,4ak onartu egiten du. Dena den, azken horietatik gehienek egoera batzuetan soilik onartzen dute, eta gutxi batzuk dira (%5) edozein egoeratan legez kanpoko drogak hartzearen aldekoak. Gutxiengo horren artean, portaera hori gehien onartzen dutenak gizonak, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak, eta, batez ere, ezkerreko gazteak dira (izan ere ezkerrekoen artean %60ak onartzen du legezko drogak hartzea, horietatik batzuek zenbait egoeratan soilik).

Euskadiko gazteen artean, Ogasunari iruzur egitea da gaitzespen gutxien duen portaera (%53,8ak soilik gaitzesten du beti), eta, bereziki, ezkerrekoen artean onartzen da gehien (horietatik erdiak baino gehiagok herritarrek zergarik ez ordaintzea onartu egiten dute kasu gutzietan edo zenbait kasutan).

Alde batetik, oro har, ezkerreko gazteak dira legez kanpoko edo gizarte-ordenaren aurkako portaerak gehien onartzen dituztenak. Eta, beste alde batetik, 15 eta 19 urte bitartean beste adinetan baino gehiago gaitzesten da alkoholaren eraginpean gidatzea (%81,7), zenbait unetan legez kanpoko drogak hartzea (%63,6) edo Ogasunari iruzur egitea (%56,6).

Beste alde batetik, EAeko gazteek bortizkeriarekiko duten jarrera ere aztertu nahi izan da; hain zuzen, zenbait bortizkeria motaren aurrean duten iritzia: animaliak jotzea, bikote edo ezkontza barruko bortizkeria, haurrak jotzea eta bortizkeria politikoa. (59. taula)

59. taula: Honako portaera bortizzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | |
|---------------------------------------|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee |
| ANIMALIAK JOTZEA | | | | | | | | | | |
| Beti | 0,5 | 0,6 | 0,4 | 0,5 | 0,8 | 0,2 | 0,6 | 0,0 | 0,0 | 0,6 |
| Egoera batzuetan soilik | 6,7 | 8,8 | 4,6 | 8,4 | 6,5 | 5,8 | 5,7 | 7,4 | 7,2 | 7,3 |
| Inoiz ez | 91,9 | 89,9 | 94,1 | 90,0 | 91,7 | 93,6 | 93,0 | 92,6 | 91,9 | 91,1 |
| Ed/Ee | 0,9 | 0,7 | 0,9 | 1,1 | 1,0 | 0,4 | 0,7 | 0,0 | 0,9 | 1,0 |
| BORTIZKERIA FISIKOA BIKOTEAN | | | | | | | | | | |
| Beti | 0,4 | 0,1 | 0,6 | 0,8 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,7 |
| Egoera batzuetan soilik | 0,7 | 0,9 | 0,4 | 0,3 | 1,0 | 0,6 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 1,0 |
| Inoiz ez | 98,5 | 98,6 | 98,4 | 98,1 | 98,2 | 99,0 | 99,4 | 100,0 | 100,0 | 97,4 |
| Ed/Ee | 0,4 | 0,4 | 0,6 | 0,8 | 0,4 | 0,4 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,9 |
| HAURRAK JOTZEA | | | | | | | | | | |
| Beti | 0,3 | 0,1 | 0,4 | 0,5 | 0,2 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,6 |
| Egoera batzuetan soilik | 8,4 | 8,5 | 8,4 | 7,3 | 7,8 | 9,9 | 10,0 | 9,5 | 9,9 | 7,0 |
| Inoiz ez | 90,7 | 90,9 | 90,4 | 91,4 | 91,4 | 89,4 | 89,8 | 90,5 | 89,2 | 91,6 |
| Ed/Ee | 0,6 | 0,5 | 0,8 | 0,8 | 0,6 | 0,5 | 0,2 | 0,0 | 0,9 | 0,8 |
| HELBURU POLITIKOKO BORTIZKERIA | | | | | | | | | | |
| Beti | 0,6 | 0,6 | 0,6 | 1,1 | 0,8 | 0,0 | 1,1 | 0,0 | 0,0 | 0,4 |
| Egoera batzuetan soilik | 9,0 | 10,5 | 7,6 | 9,4 | 9,6 | 8,1 | 17,9 | 3,2 | 6,3 | 4,2 |
| Inoiz ez | 87,8 | 86,3 | 89,2 | 85,7 | 87,1 | 90,1 | 78,5 | 96,8 | 92,8 | 92,0 |
| Ed/Ee | 2,6 | 2,6 | 2,6 | 3,8 | 2,5 | 1,8 | 2,5 | 0,0 | 0,9 | 3,4 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 |

Oro har, Euskadiko ia gazte guztiak bortizkeria mota guztien aurka daude, eta, bereziki, bikote edo ezkontza barruko bortizkeriaren aurka, izan ere %98,5ak gaitzetsi egiten baitu.

Helburu politikoak lortzeko bortizkeriak du, hain zuzen, gizarte-gaitzespen txikiena, baina, hala ere, %87,8koa da. Jarrera ideologikoen atal horretan dute eragin handiena: ezkerreko gazteen %19ak onartu egiten du helburu politikoa lortzeko bortizkeria (%18ak egoera batzuetan soilik); aitzitik, zentroko gazteen %3,2ak eta eskuineko gazteen 6,3ak soilik onartzen dute, eta guztiak ere egoera batzuetan soilik.

Gainerako bortizkeria motetan ez dago ia desberdintasunik aztertutako taldeen artean.

7.1.3. Osasunerako ohitura kaltegarriak

Atal honetan Euskadiko gazteek osasunari kalte egiten dioten ohiturak dituzten jakin nahi da: ariketa fisiko gutxi egiten duten (bizitza sedentarioa), orekarik gabe elikatzen diren, arazo psikologikoak dituzten (estresa, depresioa...), babes-neurririk hartu gabe harreman sexualak izaten dituzten, edo legezko drogak (tabakoa, alkohola) edo legez kanpokoak (haxixa, kokaina, pilulak) hartzen dituzten.


Gazteen beraien ikuspegiari jarraiki, euren bizitzan guztiz errotuta daude osasunerako kaltegarriak diren gizarte-ohitura horiek guztiak (16. grafikoa). Horietatik errotuena droga legalak hartzea da, alkohola eta tabakoa, bereziki. Hain zuzen, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %92,7aren iritziz, euren ingurunean nahikoa edo oso zabaldua dago.

Gazteen %73,7ak dioenez, legez kanpoko drogak (haxixa, kokaina, pilulak...) oso zabaldua daude. Gainera, %69aren iritziz, gazteen elikadura ez da oso orekatua.

Ariketa fisiko gutxi egitea edo arazo psikologikoak izatea, ordea, ez da hain ohikoa: Euskadiko gazteen %56aren iritziz, nahikoa ohikoa edo oso ohikoa da ariketa gutxi egitea, eta %53,9aren iritziz arazo psikologikoak izatea.

Harreman sexualtan, ordea, osasunerako onak diren ohiturak ohikoagoak dira kaltegarriak baino. Horrela, gazteen %37,9aren iritziz, euren inguruko gazteek behar adinako babes-neurriak hartu gabe izaten dituzte sexu-harremanak.

16. grafikoa: Gazteen artean ohikoak diren ohiturak



60. taulan ikus daitekeenez, neskek mutilek baino ikuspegi ezkorragoa dute osasuneraren inguruko alderdi guztietan, eta aldea bereziki adierazgarria da osasun mentalari dagokionean. Horrela, 15 eta 29 urte bitarteko nesken iritziz %62,5aren arazo psikologikoak nahikoa ohikoak edo oso ohikoak dira euren ingurunean; eta adin horretako mutilen %45,7ak du, soilik, iritzi hori.

Beste alde batetik, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean arazo psikologikoak nahikoa ohikoak edo oso ohikoak direla uste dutenak gehiago dira gazteagoak baino (25 eta 29 urte bitartekoak %57,8; 15 eta 19 urte bitartekoak %50,4; 20 eta 24 urte bitartekoak %52,9).

Lurraldeen artean ere badira desberdintasunak: osasunerako kaltegarriak diren portaerak (orekarik gabeko elikadura, arazo psikologikoak, babes-neurririk hartu gabe sexu-harremanak izatea edo legez kanpoko drogak hartzea) nahiko ohikoak edo oso ohikoak diren iritzia zabalduagoa dago Bizkaiko gazteen artean.

60. taula: Zure iritziz, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo egoerak?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Lurraldea | | |
|--|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-----------|----------|---------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
| ARIKETA GUTXI EGITEA | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 15,3 | 12,5 | 18,2 | 16,7 | 17,1 | 12,4 | 14,1 | 16,7 | 14,9 |
| Nahikoa ohikoa | 40,7 | 39,7 | 41,7 | 41,5 | 38,4 | 42,4 | 42,7 | 38,6 | 41,4 |
| Ez ohikoa | 38,2 | 41,6 | 34,7 | 37,2 | 39,4 | 37,7 | 38,7 | 38,1 | 38,1 |
| Guztiz ez ohikoa | 4,0 | 4,9 | 3,1 | 3,5 | 3,3 | 5,2 | 3,5 | 5,2 | 3,5 |
| Ed/Ee | 1,8 | 1,3 | 1,2 | 1,1 | 1,8 | 2,3 | 1,0 | 1,4 | 2,1 |
| OREKARIK GABEKO ELIKADURA | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 21,3 | 18,7 | 23,9 | 22,6 | 22,5 | 18,8 | 20,1 | 21,4 | 21,5 |
| Nahikoa ohikoa | 47,7 | 47,1 | 48,3 | 46,4 | 44,3 | 52,2 | 42,7 | 45,4 | 50,3 |
| Ez ohikoa | 24,6 | 28,2 | 20,8 | 23,2 | 27,6 | 22,4 | 29,6 | 24,5 | 23,2 |
| Guztiz ez ohikoa | 4,6 | 4,0 | 5,2 | 5,1 | 4,1 | 4,8 | 5,5 | 6,6 | 3,2 |
| Ed/Ee | 1,8 | 2,0 | 1,8 | 2,7 | 1,5 | 1,8 | 2,1 | 2,1 | 1,8 |
| ARAZO PSIKOLOGIKOAK | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 13,9 | 9,9 | 18,1 | 13,2 | 13,3 | 15,1 | 15,1 | 14,6 | 13,2 |
| Nahikoa ohikoa | 40,0 | 35,8 | 44,4 | 37,2 | 39,6 | 42,7 | 31,2 | 36,9 | 44,2 |
| Ez ohikoa | 32,7 | 38,0 | 27,2 | 34,2 | 32,7 | 31,5 | 38,2 | 31,5 | 31,9 |
| Guztiz ez ohikoa | 9,5 | 12,2 | 6,7 | 10,8 | 10,5 | 7,7 | 13,1 | 12,7 | 6,8 |
| Ed/Ee | 3,9 | 4,1 | 3,6 | 4,6 | 3,9 | 3,0 | 2,4 | 4,3 | 3,9 |
| BABES-NEURRIRIK GABE SEXU-HARREMANAK IZATEA | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 8,1 | 6,2 | 10,0 | 8,6 | 7,5 | 8,3 | 6,5 | 9,6 | 7,6 |
| Nahikoa ohikoa | 29,8 | 28,5 | 31,1 | 30,5 | 28,4 | 30,6 | 28,1 | 25,6 | 32,6 |
| Ez ohikoa | 39,3 | 41,2 | 37,4 | 37,7 | 42,5 | 37,1 | 43,2 | 37,6 | 39,2 |
| Guztiz ez ohikoa | 12,8 | 14,5 | 11,1 | 12,9 | 12,2 | 13,5 | 15,6 | 15,1 | 10,8 |
| Ed/Ee | 10,0 | 9,6 | 10,4 | 10,3 | 9,4 | 10,5 | 6,6 | 12,1 | 9,8 |
| LEGEZKO DROGAK HARTZEA | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 58,0 | 55,4 | 60,7 | 57,7 | 59,2 | 56,9 | 59,3 | 60,7 | 56,1 |
| Nahikoa ohikoa | 34,7 | 36,1 | 33,2 | 34,8 | 32,0 | 37,6 | 33,7 | 31,5 | 36,8 |
| Ez ohikoa | 4,5 | 5,0 | 3,9 | 3,8 | 5,9 | 3,5 | 6,0 | 3,3 | 4,7 |
| Guztiz ez ohikoa | 1,7 | 2,2 | 1,2 | 2,2 | 1,6 | 1,4 | 1,0 | 2,4 | 1,5 |
| Ed/Ee | 1,1 | 1,3 | 1,0 | 1,5 | 1,3 | 0,6 | 0,0 | 2,1 | 0,9 |
| LEGEZ KANPOKO DROGAK HARTZEA | | | | | | | | | |
| Oso ohikoa | 29,5 | 26,6 | 32,6 | 29,6 | 30,2 | 28,8 | 26,1 | 29,2 | 30,7 |
| Nahikoa ohikoa | 44,2 | 46,2 | 42,2 | 41,5 | 45,9 | 44,5 | 42,2 | 42,1 | 45,9 |
| Ez ohikoa | 14,0 | 15,8 | 12,1 | 15,1 | 13,1 | 14,1 | 16,6 | 13,2 | 13,8 |
| Guztiz ez ohikoa | 9,1 | 8,8 | 9,4 | 9,2 | 8,4 | 9,7 | 11,1 | 11,8 | 7,0 |
| Ed/Ee | 3,2 | 2,6 | 3,7 | 4,6 | 2,4 | 2,9 | 4,0 | 3,7 | 2,6 |
| Guztira ehunetotan .. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 |

Euskadiko gazteen eta Kataluniako gazteen ikuspegia alderatuz gero, honakoa azpimarratu behar da: 61. taulan adierazitako osasunerako jarduera kaltegarriak euren inguruan ohikoak direla (oso ohikoak edo nahiko ohikoak) adierazten duten gazteen kopurua antzekoa da EAEn eta Katalunian. Badira, ordea, bi salbuespen: katalanen artean babes-neurririk gabeko harremanetan, dirudienez, ohikoagoak dira (%45,6) euskaldunen artean baino (%37,9); eta orekarik gabeko elikadura ohikoagoa da euskaldunen artean (%69) katalanen artean baino (%59,4). Dena den, Kataluniako gazteen iritziak muturrekoagoak dira, jarrera horiek oso ohikoak direla edo guztiz ez ohikoak direla adierazten dutenen ehunkoa handiagoa baita Katalunian EAEn baino.

61. taula: Zure iritzi, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo egoerak?⁷
(EAE eta Kataluniako datuen konparazioa)

| | Oso ohikoa | | Nahikoa ohikoa | | Ez ohikoa | | Guztiz ez ohikoa | | Ed/Ee | |
|-----------------------------------|------------|-------|----------------|-------|-----------|-------|------------------|-------|-------|-------|
| | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 | EG'00 | CT'98 |
| Arazo psikologikoak | 13,9 | 20,0 | 40,0 | 34,7 | 32,7 | 29,5 | 9,5 | 13,0 | 3,9 | 2,8 |
| Babes-neurririk gabeko sexua . . | 8,1 | 19,8 | 29,8 | 25,8 | 39,3 | 29,4 | 12,9 | 18,0 | 10,0 | 6,9 |
| Orekarik gabeko elikadura | 21,3 | 27,8 | 47,7 | 31,6 | 24,6 | 25,2 | 4,6 | 11,6 | 1,8 | 3,8 |
| Ariketa fisiko urria | 15,3 | 23,6 | 40,7 | 30,3 | 38,2 | 30,4 | 4,0 | 11,4 | 1,8 | 4,3 |

Iturria: bertan egin honako datuetan oinarrituta: Secretaria General de Joventut, 1999: 95-97 (Kataluniako datuak).

7.2. BESTEEN ARLOA

7.2.1. Auzokideekiko tolerantzia

Auzokidea talde jakin bateko kidea delako baztertzea, hain zuzen, gizarte-tolerantziarik ezaren adierazpena da. Bazterketa horri auzokideekiko tolerantziarik eza deitu diogu (62. taula).

Euskadiko gazte gehienak ez dira toleranteak neonaziekiko edo mutur-muturreko eskuineko pertsonetikiko. Horrela, gazteen %65,6ak adierazten duenez, ez luke nahi horrelako norbait auzokide izatea. Horiekiko tolerantziarik eza gora doa adinarekin eta gazte ezkertiarren artean zabalduago dago (%77)

Euskadiko gazteen zati handi batek drogen menpekoak ere baztertzen ditu. Eta bixia badirudi ere, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak baztertu egiten ditu. Zenbait unetan legez kanpoko drogak hartzea (beti edo egoera batzuetan) onartzen duten gazteen %45,2ak ere ez lituzke auzokidetzat onartuko. Horrek drogen menpeko terminoa oso estereotipatua dagoela adieraz dezake, izan ere askotan drogak hartzen dituen pertsona marjinatu eta arriskutsuarekin lotzen baita. Kontserbadoreek ezkertiarrek baino tolerantzia gutxiago dute pertsona horiekiko.

⁷ Katalunian egindako azterketan drogaren kontsumoari buruzko galdera desberdina da. Kataluniako inkestan (Secretaria General de Joventut, 1999: 95-97) droga «bigunak» eta droga «gogorak» desberdintzen dira, eta Euskadikoan legezko drogak eta legez kanpokoak. Beraz, datuak ezin dira alderatu.

62. taula: Axola al dizu honelako pertsonaren bat auzokide izatea?

| | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | |
|---|---------|--------|-------|--------------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee |
| NEONAZIA/ESKUIN-ESKUINEKO PERTSONA | | | | | | | | | | |
| Bai | 65,6 | 68,3 | 62,8 | 61,7 | 64,7 | 69,6 | 77,0 | 68,4 | 67,6 | 57,1 |
| Ez | 28,5 | 27,3 | 29,6 | 31,0 | 30,4 | 24,4 | 20,2 | 27,4 | 30,6 | 33,9 |
| Ed/Ee | 5,9 | 4,4 | 7,6 | 7,3 | 4,9 | 6,0 | 2,8 | 4,2 | 1,8 | 9,0 |
| DROGEN MENPEKOA | | | | | | | | | | |
| Bai | 49,5 | 48,5 | 50,5 | 47,4 | 50,0 | 50,5 | 43,8 | 54,7 | 60,4 | 50,9 |
| Ez | 43,0 | 44,5 | 41,4 | 43,9 | 43,1 | 42,0 | 49,4 | 38,9 | 36,0 | 40,3 |
| Ed/Ee | 7,5 | 7,0 | 8,1 | 8,7 | 6,9 | 7,5 | 6,8 | 6,4 | 3,6 | 8,8 |
| IJITOAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 40,3 | 40,7 | 39,9 | 37,7 | 37,3 | 45,5 | 34,7 | 49,5 | 54,1 | 40,7 |
| Ez | 52,9 | 53,8 | 52,0 | 55,8 | 56,9 | 45,6 | 58,1 | 46,3 | 41,4 | 52,2 |
| Ed/Ee | 6,8 | 5,5 | 8,1 | 6,5 | 5,8 | 7,9 | 7,2 | 4,2 | 4,5 | 7,1 |
| MILITARRAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 33,7 | 36,0 | 31,2 | 31,0 | 32,4 | 37,1 | 48,1 | 29,5 | 29,7 | 25,0 |
| Ez | 61,5 | 60,6 | 62,5 | 62,8 | 63,7 | 58,1 | 48,9 | 60,3 | 67,6 | 68,5 |
| Ed/Ee | 4,8 | 3,4 | 6,3 | 6,2 | 3,9 | 4,8 | 3,0 | 4,2 | 2,7 | 6,5 |
| POLIZIAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 25,4 | 26,9 | 23,8 | 21,6 | 24,9 | 28,8 | 36,4 | 18,9 | 18,9 | 19,8 |
| Ez | 70,9 | 70,1 | 71,7 | 74,7 | 72,2 | 66,7 | 60,4 | 77,9 | 78,4 | 75,9 |
| Ed/Ee | 3,7 | 3,0 | 4,5 | 3,7 | 2,9 | 4,5 | 3,2 | 3,2 | 2,7 | 4,3 |
| EZKER-EZKERREKO PERTSONA | | | | | | | | | | |
| Bai | 22,5 | 23,0 | 22,0 | 16,2 | 20,8 | 29,2 | 18,9 | 26,3 | 27,0 | 23,7 |
| Ez | 66,2 | 68,3 | 64,0 | 69,8 | 69,2 | 60,2 | 75,3 | 62,1 | 68,5 | 60,2 |
| Ed/Ee | 11,3 | 8,7 | 14,0 | 14,0 | 10,0 | 10,6 | 5,8 | 11,6 | 4,5 | 16,1 |
| PROSTITUTAK EDO GIGOLOAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 21,7 | 21,4 | 22,0 | 22,6 | 21,2 | 21,5 | 15,7 | 33,7 | 30,6 | 22,7 |
| Ez | 71,2 | 71,8 | 70,6 | 70,1 | 71,6 | 71,6 | 78,7 | 62,1 | 65,8 | 68,2 |
| Ed/Ee | 7,1 | 6,8 | 7,4 | 7,3 | 7,2 | 6,9 | 5,6 | 4,2 | 3,6 | 9,1 |
| KARTZELAN EGONDAKO PERTSONAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 20,7 | 19,4 | 22,0 | 21,0 | 18,0 | 23,2 | 14,7 | 28,4 | 26,1 | 22,8 |
| Ez | 70,2 | 72,9 | 67,3 | 72,0 | 72,5 | 66,3 | 75,7 | 61,1 | 68,5 | 67,9 |
| Ed/Ee | 9,1 | 7,7 | 10,7 | 7,0 | 9,5 | 10,5 | 9,6 | 10,5 | 5,4 | 9,3 |
| ETORKIN ATZERRITARRAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 9,2 | 10,6 | 7,8 | 8,9 | 8,8 | 9,9 | 6,0 | 13,7 | 14,4 | 10,0 |
| Ez | 86,7 | 85,6 | 87,7 | 87,9 | 87,5 | 84,9 | 90,2 | 80,0 | 82,9 | 85,8 |
| Ed/Ee | 4,1 | 3,8 | 4,5 | 3,2 | 3,7 | 5,2 | 3,8 | 6,3 | 2,7 | 4,2 |
| GIZON EDO EMAKUME HOMOSEXUALAK | | | | | | | | | | |
| Bai | 4,3 | 5,6 | 2,8 | 4,0 | 4,9 | 3,7 | 3,2 | 8,4 | 6,3 | 4,1 |
| Ez | 93,1 | 91,1 | 95,3 | 94,3 | 92,0 | 93,4 | 95,3 | 90,5 | 91,9 | 92,2 |
| Ed/Ee | 2,6 | 3,3 | 1,9 | 1,7 | 3,1 | 2,9 | 1,5 | 1,1 | 1,8 | 3,7 |
| Guztira ehunekatuta | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 688 |

Gazteen %40,3ak ijitoa auzokide izatea ez duela atsegin adierazten du. Auzokideeki-ko tolerantziarik eza hori handiagoa 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean eta zentroko edo eskuinekoen artean.

Beste alde batetik, eta estatuko segurtasun indarrek eragindako arbuioa asko gutxitu bada ere azken hamarkadan, gazteen zati handi batek ez ditu, oraindik, auzokidetzat onartzen. Horrela, gazteen %33,7ak ez luke militar bat auzokide izatea nahi eta %25,4ak polizia bat auzokide izatea.

Ezker-ezkerreko pertsonak, prostitutak edo gigoloak eta kartzelan izandako pertsonak gutxiago baztertzen dira, eta hamar neska-mutiletik bik ez dute horietako norbait auzokide izatea.


Euskadiko gazteentzat onarpen handiena homosexualak eta atzerriko etorkinek dute; izan ere, hurrenez hurren, %4,3ak eta %9,2ak soilik ez ditu onartzen auzokidetzat.

Oro har, adinean gora egiten den heinean, auzokideekiko tolerantzia gutxitu egiten dela adierazi behar da. Horrela, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak dira horrelako taldeak auzokide izateko eragozpen handiena adierazten dutenak. Adinak, ordea, ez du eraginik auzokidetzat atzerriko etorkinak, homosexualak eta prostituta eta gigoloak izateari buruz galdetzen denean.

Ezkerreko ideologiako gazteek gehiago gaitzesten dituzte gizarte-ordenaren inguruko pertsonak (poliziak eta militarrek) eta eskuin-eskuineko pertsonak edo neonaziak. Aitzitik, gazte kontserbadoreak (zentrokoak edo eskuinekoak) tolerantzia gutxiago adierazten dute marjinaltasunari lotutako taldeekiko (drogen menpekoak, etorkinak, kartzelan izandako pertsonak, ijitoak edo prostitutak eta gigoloak), bai eta homosexualak eta ezker-ezkerreko pertsonakiko.

Euskadiko gazteei buruzko beste azterketa batekin alderatzen badugu (Elzo, 1990: 198) auzokideekiko tolerantzia 1990ean baino handiagoa dela ikus daitezke, bi talderi dagokionean izan ezik: eskuin-eskuineko pertsonak eta neonaziak eta drogen menpekoak (17. grafikoa).

17. grafikoa: Auzokideekiko tolerantziarik eza (2000ko eta 1990ko datuen konparazioa)



Pertsona horiek dira, orain, gizarte arbuio handiena dutenak, eta estatuko segurtasun indarrek (militarrak eta poliziak) baino onarpen txikiagoa dute.

Euskadiko egungo gazteak auzokidearekiko tolerantzeagoak badira ere orain dela hamar urtekoak baino, estatuko gazteak baino gehiago arbuizatzen dituzte drogen menpekoak, kartzelan izandako pertsonak, atzerriko etorkinak eta, bereziki, ijitoak. Homosexualekiko tolerantzeagoak dira, ordea (63. taula).

63. taula: Auzokideen arteko tolerantziarik eza (EAE eta estatuko datuen konparazioa)

| | EG'00 | Estatua'99 |
|--|-------|------------|
| Eskuin-eskuinekoak/neonaziak | 66 | 68 |
| Drogen menpekoak | 50 | 46 |
| Ijitoak | 40 | 19 |
| Kartzelan izandakoak | 21 | 15 |
| Atzerriko etorkinak | 9 | 4 |
| Homosexualak | 4 | 8 |

Iturria: bertan egina honako datuetan oinarrituta: Elzo, J. (zuz) et al., 1999: 93 (estatuko 1999ko datuetarako).

7.2.2. Tolerantzia ideologikoa

Tolerantea izateko ez da nahikoa beste pertsona bat gizarte talde batekoa edo beste-koa dela kontuan izan gabe onartzea; beharrezkoa da, halaber, pertsona horren ideiak, sinesmenak edo balioak ere kontuan izan gabe onartzea. Tolerantzia ideologikoa deituko diogu horri.

Lehen ere adierazi dugu Euskadiko gazte askori asko axola diola auzokidetzat zenbait taldetako pertsonak izatea. Baina, dirudienez, ideologiak garrantzi gutxiago du. Izan ere, EAEko gazteen hamarretik batek soilik adierazi du bereak ez bezalako ideia, sinesmen edo balioak dituen pertsonekin oso desgogara edo nahiko desgogara sentitzen dela (64. taula).

64. taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | | Euskaldun/espainiar ardatza | | |
|--------------------------|---------|--------------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|-----------------------------|------------|-----------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Euskaldun | Biak berd. | Espainiar |
| Oso desgogara | 1,5 | 1,3 | 2,0 | 1,0 | 1,3 | 1,1 | 1,8 | 1,6 | 1,2 | 1,4 | 3,0 |
| Nahikoa desgogara . . . | 8,2 | 10,8 | 8,0 | 6,4 | 9,4 | 11,6 | 6,3 | 7,3 | 8,6 | 7,1 | 11,9 |
| Ez oso desgogara | 37,4 | 35,6 | 38,6 | 37,5 | 40,2 | 49,5 | 43,2 | 32,8 | 36,1 | 40,5 | 37,3 |
| Batere desgogara | 49,9 | 47,2 | 49,2 | 52,6 | 47,7 | 36,8 | 45,0 | 53,9 | 51,7 | 47,9 | 46,3 |
| Ed/Ee | 3,0 | 5,1 | 2,2 | 2,5 | 1,4 | 1,0 | 3,7 | 4,4 | 2,4 | 3,1 | 1,5 |
| Guztira ehunetotan . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztira balio absolutut. | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 | 768 | 422 | 67 |

Auzokideekiko tolerantziarekin ez bezala, tolerantzia ideologikoa handiagoa da adinean gora egiten den heinean, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteei eragiten die enbarazu gutxien euren ikuspegia ez duten pertsonekin egoteak.

Ideologian tolerantziarik ez duten gazte kopurua txikia bada ere (ez da %15era ere iristen) zentroko ideologia dutela adierazten dutenak desgogara goaude eurenaz bestelako ideologia duten pertsonekin, ezkerreko zein eskuineko ideologia dutenak baino, bestelakoa espero bazitekeen arren.

Beste alde batetik, euren burua espainiarizat dutenak (espainiarizat soilik edo espainiarizat euskalduntzat baino gehiago) intoleranteagoak dira euren burua euskalduntzat dutenak edo euskaldun zein espainiarizat dutenak baino.

EAE eta estatua alderatuz gero (65. taula), bieran ere gutxiengo batek adierazi du tolerantzia ideologikorik eza. Dena den, estatuko gazteek jarrera sendoagoa dute: %60ak adierazten duenez, ez da batere desgogara sentitzen bereak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituen jendearekin (EAEn %50 dira).

65. taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara?
(EAE eta estatuko datuen konparazioa)

| | EG'00 | Estatua'97 |
|---------------------------------|-------|------------|
| Oso desgogara | 1,5 | 1,9 |
| Nahikoa desgogara | 8,2 | 7,2 |
| Ez oso desgogara | 37,4 | 28,8 |
| Batere desgogara | 49,9 | 60,0 |
| Ed/Ee | 3,0 | 2,1 |
| Guztira ehunekotan | 100 | 100 |
| Guztira balio absolututan | 1.364 | 2.462 |

Iturria: bertan egina honako datuetan oinarrituta: Centro de Investigaciones Sociológicas, 1997 b: 6 (estatuko 1997ko datuetarako).

Tolerantzia ideologikoaren auzian gehiago sakonduz gero, Euskadiko gazteek arlo politikoan dagoen tolerantziarekiko zein ikuspegia duten jakin nahi izan dugu. Horrela, politikaz eztabaidatzeko aske sentitzen diren galdetu zaie. Horietatik, %36,5ak guztiz aske sentitzen dela adierazten du, %42,4ak pertsona batzuekin soilik sentitzen direla aske, eta %10ak ia inorekin (66. taula). Horrek adierazten duenez, Euskadiko gazteen hirutik batek soilik uste du euren gizarte-ingurunean tolerantzia politiko osoa dagoela.

Neskak mutilak baino askatasun gutxiago sumatzen dute edozeinekin politikaz eztabaidatzeko.

EH/HB, EAJ-PNV eta EA alderdietatik hurbil daudenak dira, hain zuzen, beste pertsona batzuen aurrean politikaz hitz egiteko eragozpen gutxien sumatzen dutenak; eta,

aitzitik, PPTik hurbil dauden gazteak dira politikaz hitz egiteko askatasun gutxien sumatzen dutenak.

Bestela esanda, mutilek eta Euskadiko alderdi abertzaleetatik hurbil daudenek euren gizarte ingurunean tolerantzia politiko handiagoa sumatzen dute; eta neskek eta PP alderditik hurbilen daudenek politikaz hitz egiterakoan ingurukoek baldintzatu egiten dituztela sumatzen dute.

66. taula: Politikaz hitz egiteko aske sentitzen al zara?

| % Horizontalak | Bai, edozeinekin | Pertsona batzuekin soilik | Ez, ia inorekin | Ed/Ee | Guztira ehunekotan | Guztira balio absolututan |
|-----------------------------------|------------------|---------------------------|-----------------|-------|--------------------|---------------------------|
| GUZTIRA | | | | | | |
| | 36,5 | 42,4 | 9,7 | 11,4 | 100 | 1.364 |
| SEXUA | | | | | | |
| Gizona | 42,2 | 37,8 | 9,8 | 10,2 | 100 | 695 |
| Emakumea | 30,6 | 47,1 | 9,6 | 12,7 | 100 | 669 |
| ADIN-TALDEAK | | | | | | |
| 15 eta 19 urte bitartekoak ... | 36,7 | 37,7 | 11,1 | 14,5 | 100 | 371 |
| 20 eta 24 urte bitartekoak ... | 36,3 | 42,7 | 10,2 | 10,8 | 100 | 510 |
| 25 eta 29 urte bitartekoak ... | 36,6 | 45,5 | 8,1 | 9,8 | 100 | 483 |
| GERTUKOAGOA DUTEN ALDERDIA | | | | | | |
| PP | 22,6 | 61,3 | 12,9 | 3,2 | 100 | 31 |
| EAJ-PNV | 53,4 | 39,8 | 6,2 | 0,6 | 100 | 161 |
| PSE-EE | 39,6 | 50,9 | 5,7 | 3,8 | 100 | 53 |
| IU-EB | 33,9 | 55,9 | 8,5 | 1,7 | 100 | 59 |
| EH/HB | 53,5 | 37,1 | 6,3 | 3,1 | 100 | 159 |
| UA | 100 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100 | 1 |
| EA | 50,0 | 47,1 | 0,0 | 2,9 | 100 | 34 |
| Besteren bat | 33,3 | 55,6 | 0,0 | 11,1 | 100 | 9 |
| Inor ez | 30,8 | 40,5 | 11,7 | 13,0 | 100 | 515 |
| Ed/Ee | 28,9 | 36,8 | 11,7 | 22,6 | 100 | 342 |

7.2.3. Inmigrazioarekiko jarrerak


Egun, komunikabideetan egunero agertzen zaigu inmigrazioaren gaia, eta horregatik Euskadiko gazteek inmigrazioarekiko duten jarrera ezagutu nahi izan dugu. Gai horrek, hain zuzen, bestearikiko zein jarrera dugun erakusten baitu.

EAEko gazteentzat (18. grafikoa) atzerriko etorkinez ari garenean, afrikarrez ari gara, eta, batez ere, Marokoarrez (%72,6). Beste %16,9arentzat ekialdekoek (txinarrak, japoniarak edo, oro har, asiarrak), eta beste %15,8arentzat hegoamerikarrez. Eta oso gutxi dira Europako Elkarteko hiritarrak aipatzen dituzten gazteak.

Estatuko gazteek (Centro de Investigaciones Sociológicas, 1997 a: 20 or.) ere marokoarrek parekatzen dituzte, batez ere (%76,9), beste afrikarrekin (%20,7) eta hegoameri-

karrekin (%17,8). EAeko gazteek baino gutxiagok parekatzen dituzte, ordea, ekialdekoekin (%4,6ak soilik)⁸.

18. grafikoa: Zeinekin parekatzen dituzu Euskal Herrian bizi diren etorkinak?



Azpimarratzekoa da Euskadiko zenbait gazterentzat estatuko beste elkarte batzuetako pertsonak (Extremadurakoak, gailegoak edo andaluziarrak) atzerriko etorkinak dira, eta ijitoak %3,3arentzat.

Euskadin bizi diren kanpoko pertsona kopuruari dagokionean, EAeko gazteen ia erdiaren iritziz dezente dira baina ez gehiegi, eta hamarretik hirurentzat oso gutxi dira. Berez, Euskadin atzerritar gehiegi daudela uste dutenak gutxiengoa dira, hain zuzen %11,7 (67. taula).

Dena den, langabetuen eta zentroko eta eskuinekoen artean zertxobait ugariagoak dira atzerritar gehiegi daudela pentsatzen dutenak.

Estatuan, ordea, gehiago dira Espainian atzerritar gehiegi bizi dela pentsatzen duten gazteak, izan ere 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lautik batek horrela pentsatzen du (Centro de Investigaciones Sociológicas, 1997 a: 18 or.).

Beste alde batetik, Euskadiko gazteen erdia administrazioak atzerriko etorkinak etortzeari mugak jartzearen aldekoa da; hots, lanerako baimena dutenei soilik sartzen uztearen aldekoa. %31,6 ez dago ados etorkinen etorrerari mugak jartzearekin, eta beste herrialdeetako langileak etortzea ahalik eta gehien erraztu behar dela adierazten

⁸ Kontuan izan behar da estatuko inkestan gehienera bi aukera erantzun daitezkeela, eta EAeko inkestan, al-diz, hiru.

67. taula: Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia

| % Horizontalak | Gehiegi | Dezente baina ez gehiegi | Gutxi | Ed/Ee | Guztira ehunekotan | Guztira balio absolututan |
|--------------------------------|---------|--------------------------|-------|-------|--------------------|---------------------------|
| GUZTIRA | | | | | | |
| | 11,7 | 47,4 | 31,3 | 9,6 | 100 | 1.364 |
| SEXUA | | | | | | |
| Gizona | 10,8 | 46,2 | 34,7 | 8,3 | 100 | 695 |
| Emakumea | 12,6 | 48,7 | 27,8 | 10,9 | 100 | 669 |
| ADIN-TALDEAK | | | | | | |
| 15 eta 19 urte bitartekoak ... | 12,4 | 52,3 | 27,5 | 7,8 | 100 | 371 |
| 20 eta 24 urte bitartekoak ... | 12,4 | 47,1 | 31,5 | 9,0 | 100 | 510 |
| 25 eta 29 urte bitartekoak ... | 10,4 | 44,1 | 34,0 | 11,5 | 100 | 483 |
| JATORRIA | | | | | | |
| Bertan jaiotakoa | 11,7 | 47,6 | 31,0 | 9,7 | 100 | 1.312 |
| Etorkina | 10,4 | 43,8 | 39,6 | 6,2 | 100 | 48 |
| LAN EGOERA | | | | | | |
| Langabetua | 15,1 | 57,6 | 20,2 | 7,1 | 100 | 99 |
| Ikasten | 10,0 | 48,6 | 32,1 | 9,3 | 100 | 582 |
| Lanean | 13,6 | 45,2 | 30,5 | 10,7 | 100 | 558 |
| Lanean eta ikasten | 7,4 | 44,4 | 39,8 | 8,4 | 100 | 108 |
| EZKERRA/ESKUINA ARDATZA | | | | | | |
| Ezkerrekoa | 9,1 | 48,3 | 35,5 | 7,1 | 100 | 470 |
| Zetrokoa | 15,8 | 43,2 | 30,5 | 10,5 | 100 | 95 |
| Eskuinekoa | 15,3 | 47,7 | 29,7 | 7,3 | 100 | 111 |
| Ed/Ee | 12,2 | 47,4 | 28,8 | 11,6 | 100 | 688 |
| EUSKALDUN EDO ESPAINIAR | | | | | | |
| Euskalduna | 12,9 | 47,9 | 39,2 | 10,0 | 100 | 768 |
| Euskalduna bezain espainiarra | 10,7 | 49,5 | 32,2 | 7,6 | 100 | 422 |
| Espainiarra | 9,0 | 41,8 | 40,2 | 9,0 | 100 | 67 |

dute. Mugak zeharo ixtearen aldekoak Euskadiko gazteen %3,3 dira soilik. Hala ere, gazte askok (%15) ez du horri buruzko jarrera argirik, edo ez du horri buruzko iritzia adierazi nahi (68. Taula).

Etorkinak sartzeari mugak jartzearen aldeko gazteen iritiz, etorkinek bertako biztanleen lana arriskuan jartzen dute. Baina, bestela izango zela pentsa bazitekeen ere, gehiago dira etorkinen sarrerari mugak jartzearen aldekoak gehiago dira lana dutenen artean langabetuen artean baino. Badirudi, beraz, Euskadiko gazte langabetuen iritiz kanpotik datozen langileek ez dutela arriskuan jartzen etorkizunean lana izateko aukera.

Beste alde batetik, atzerritarrak Euskadin sartzea ahalik eta gehien erraztearen aldeko gehien dituenak emakumeak, 25 urtetik beherakoak, ezkerreko gazteak, euren burua euskalduntzat dutenak eta EAEn jaiotakoak dira.

68. taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke?

| % Horizontalak | Sarrera ahalik eta gehien erraztea | Lanerako kontratua dutenei soilik uztea sartzen | Sarrera debekatzea | Ed/Ee | Guztira ehunekotan | Guztira balio absolututan |
|-------------------------------|------------------------------------|---|--------------------|-------|--------------------|---------------------------|
| GUZTIRA | 31,6 | 50,1 | 3,3 | 15,0 | 100 | 1.364 |
| SEXUA | | | | | | |
| Gizona | 29,1 | 52,7 | 4,9 | 13,3 | 100 | 695 |
| Emakumea | 34,2 | 47,5 | 1,6 | 16,7 | 100 | 669 |
| ADIN-TALDEAK | | | | | | |
| 15 eta 19 urte bitartekoak | 32,6 | 47,7 | 4,3 | 15,4 | 100 | 371 |
| 20 eta 24 urte bitartekoak | 34,1 | 48,6 | 3,7 | 13,6 | 100 | 510 |
| 25 eta 29 urte bitartekoak | 28,2 | 53,6 | 2,1 | 16,1 | 100 | 483 |
| JATORRIA | | | | | | |
| Bertan jaiotakoa | 31,9 | 49,7 | 3,4 | 15,0 | 100 | 1.312 |
| Etorkina | 27,1 | 64,6 | 0,0 | 8,3 | 100 | 48 |
| LAN EGOERA | | | | | | |
| Langabetua | 42,4 | 44,4 | 2,0 | 11,2 | 100 | 99 |
| Ikasten | 32,8 | 50,3 | 2,1 | 14,8 | 100 | 582 |
| Lanean | 26,0 | 52,9 | 5,0 | 16,1 | 100 | 558 |
| Lanean eta ikasten | 46,3 | 38,0 | 0,9 | 14,8 | 100 | 108 |
| EZKERRA/ESKUINA ARDATZA | | | | | | |
| Ezkerrekoa | 42,3 | 41,7 | 2,1 | 13,9 | 100 | 470 |
| Zentrokoa | 30,5 | 56,8 | 2,1 | 10,6 | 100 | 95 |
| Eskuinekoa | 26,1 | 57,7 | 5,4 | 10,8 | 100 | 111 |
| Ed/Ee | 25,3 | 53,8 | 3,9 | 17,0 | 100 | 688 |
| EUSKALDUN EDO ESPAINIAR | | | | | | |
| Euskalduna | 36,7 | 43,6 | 3,9 | 15,8 | 100 | 768 |
| Euskalduna bezain espainiarra | 26,1 | 58,3 | 2,6 | 13,0 | 100 | 422 |
| Espainiarra | 13,4 | 73,1 | 1,6 | 11,9 | 100 | 67 |

Estatuko gazteekin alderatuta, EAeko gazteak jarrera irekiagoa dute inmigrazioarekiko, 69. taulan ikus daitekeen bezala. Hain zuzen, Euskadiko gazteen %31,6aren iritziz beste herrialdeetako langileei mugak ireki egin behar zaizkie, eta estatuan iritzi bereko gazteak %15,5 dira soilik. Gainera, lanerako baimena dutenei soilik sartzen uztearen aldekoak EAEn baino askoz gehiago dira (hain zuzen, 20 puntu gehiago); eta atzerriko etorkinei sarrera debekatzearen aldekoak ia bi aldiz gehiago (%6, %3,3aren ordez).

Estatuko gazteek mugetan kontrol gehiago ezartzeko eskaera handiagoa Espainian bizi diren atzerriarren kopuruaren buruzko iritziak eragin dezake. Izan ere, lehen ere adierazi bezala, Espainiako gazteen artean atzerriar asko edo gehiegi daudela adierazten dutenak gehiago dira Euskadiko gazteen artean baino.

69. taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke?
(EAE eta estatuko datuen konparazioa)

| | EG'00 | Estatua'97 |
|---|-------|------------|
| Sarrera ahalik eta gehien erraztea | 31,6 | 15,5 |
| Lanerako kontratua dutenei soilik uztea sartzen | 50,1 | 70,4 |
| Langile etorkinei sarrera debekatzeta | 3,3 | 6,0 |
| Ed/Ee | 15,0 | 8,0 |

Iturria: bertan egin honako datuetan oinarrituta: Centro de Investigaciones Sociológicas, 1997 a: 20 (Estatuko 1997ko datuetarako).

7.2.4. Gaez kalera ateratzeko beldurra

Gaez kalera ateratzeko beldurra, batetik, herriko hiri-segurtasun mailaren adierazle izan daiteke, hots, eraso bat izateko edo beste edozein delitu jasateko arriskuaren adierazle; baina, bestetik, bestearekiko dugun jarrera ere adierazten du, bestela esanda, kalean ikusten ditugun pertsoenez zer pentsatzen dugun: arriskutsuak iruditzen zaizkigun edo berdintzat jotzen ditugun.

Euskadiko gazteen artean (70. taula) %14,2ak soilik adierazten du gaez herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten duela. Datu orokor horien azpian, ordea, bi errealitate daude, izan ere mutilen %3,3ak soilik adierazten baitu beldur hori, baina nesken artean lautik batek.

70. taula: Gaez herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten al zaitu?

| | Guztira | Sexua | | Adina | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | | Euskaldun/espainiar ardatzaa | | |
|--------------------|---------|-------|--------|-------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|------------------------------|-----------|-----------|
| | | Emak. | Gizon. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Euskaldun | Biak ber. | Espainiar |
| Bai | 14,2 | 3,3 | 25,6 | 16,4 | 13,5 | 13,3 | 10,2 | 16,8 | 14,4 | 16,6 | 10,3 | 18,7 | 26,9 |
| Ez | 84,5 | 96,0 | 72,6 | 82,5 | 84,9 | 85,7 | 89,2 | 82,1 | 84,7 | 81,7 | 81,8 | 80,1 | 70,1 |
| Ed/Ee | 1,3 | 0,7 | 1,8 | 1,1 | 1,6 | 1,0 | 0,6 | 1,1 | 0,9 | 1,7 | 0,9 | 1,2 | 3,0 |
| Guzt., eh. | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guzt., os. | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 590 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 | 768 | 422 | 67 |

Adinaren araberako aldeak ez dira oso handiak, baina urteetan gora egin eta heldutasunera hurbiltzen den heinean gaez kalera ateratzeko beldurra murriztu egiten da.

Ideologia politikoak eragina du gaez kaletik ibiltzeko beldurrarekin. Ohikoagoa da beldur izatea kontserbadoreenen (zentrokoak eta eskuinekoak) eta euren burua espainiarizat soilik edo batez ere espainiarizat dutenen artean.

ONDORIOAK

- Oro har, Euskadiko gazteak oso tolerantzak dira homosexualitatearekiko. Dibortziari, abortuari eta eutanasiari dagokionean, gehienek onartu egiten badute ere, horiek onartzeko hainbat baldintza eskatzen dituzte. 20 eta 29 urte bitarteko gazteek onartzen dituzte gehien jarrera horiek.
- Gazteek ustelkeria politikoa, alkoholaren eraginpean gidatzea edo kalea zikitzea gaitzetsi egiten dute, bai eta, gutxiago bada ere, Ogasunari iruzur egitea edo legez kanpoko drogak hartzea.
- Ezkerreko gazteek errazago onartzen dituzte legez kanpoko edo gizarte ordenaren aurkako jarrerak.
- Euskadiko ia gazte gehienek bortizkeria mota guztiak gaitzesten dituzte, eta, bereziki, bikoteko edo ezkontzako bortizkeriaren aurka agertzen dira. Helburu politikoak lortzeko bortizkeria ere gaitzetsi egiten dute, eta, batez ere, zentro eta eskuineko gazteek.
- Osasunerako kaltegarriak diren zenbait gizarte-ohitura errotuta daude gazte askoren bizimoduan. Horietatik zabalduena legezko drogen kontsumoa da, eta horren atzetik legez kanpoko drogen kontsumoa, orekarik gabeko elikadura, ariketa fisiko gutxi egitea eta arazo psikologikoak. Osasunaren inguruko alderdi horietan, neskek eta Bizkaiko gazteek ikuspegi ezkorragoa dute.
- Euskadiko gazteentzat gizarte-gaitzespen handiena neonaziek edo eskuin-eskuineko pertsonak (%65,6), drogen menpekoak (%49,5) eta ijitoak (%40,3) dute. Estatuko segurtasun indarrek zuten gizarte-gaitzespena asko gutxitu da azken hamarkadan, baina hala ere Euskadiko zenbait gaztek ez ditu bizilagun izateko onartzen. Horrela, %33,7ak ez ditu militarrik nahi auzoan eta %25,4ak poliziak. EAEko gazteek gutxien gaitzesten dituzten taldeak homosexualak eta atzerriko etorkinak dira (talde horiekiko gaitzespena %10 baino txikiagoa da).
- Adinean gora egin ahala, auzokideekiko tolerantzia murriztu egiten da. Ezkerreko gazteek gehiago gaitzesten dituzte gizarte-ordenari lotutako pertsonak (poliziak eta militarrik) eta eskuin-eskuineko pertsonak edo neonaziak. Gazte konterbadoreek, aldiz, tolerantzia gutxiago dute talde marjinalekiko (drogen menpekoak, etorkinak, kartzelan izan diren pertsonak, ijitoak edo prostitutak eta gigoloak) eta homosexualekiko eta ezker-ezkerreko pertsonenekiko.
- Euskadiko gazte askori zenbait taldetako kideak auzokidetzat izatea axola dio; baina, aitzitik, badirudi berea ez bezalako ideologia duena auzokidea izatea harraretik batentzat soilik da eragozpena. Tolerantzia ideologikoa adinarekin batera handitzen da. Zentroko gazteak eta euren burua espainiartzat dutenak desgogorago sentitzen dira berea ez bezalako ideologia dutenekin eskuineko zein ezkerreko gazteak eta euren burua euskalduntzat dutenak baino.
- Gazteen %36,5ak soilik adierazten du askatasun osoz hitz egin dezakeela politikaz. Mutilek eta Euskadiko alderdi abertzaletatik hurbilago daudenek euren inguruan tolerantzia handiagoa sumatzen dute; neskek eta PPtik hurbilago daudenek, aldiz, politikaz eztabaidatzerakoan inguruko pertsonak gehiago baldintzatzen dituztela sumatzen dute.

.../...

.../...

- Atzerriko etorkinez ari garenean, EAeko gazteen % 72,6entzat afrikarrez ari gara, eta, bereziki, marokoz ari gara. Gazte gutxi batzuen iritziz (%11,7), Euskadin atzerritar gehiegi dago. Langabetuen artean eta zentroko edo eskuineko gazteen artean, ordea, gehiago dira iritzi horretakoak.
- Euskal Herriko gazteen erdia administrazioak atzerriko etorkinen sarrerari mugak jartzearen aldekoa da, hots, lanerako baimena dutenak soilik sartzearen aldekoa. Euskadin atzerritarak sartzea ahalik eta gehien erraztu behar dela adierazten dutenak ugariagoak dira ezkerreko gazteen, langabetuen, aldi berean lanean eta ikasten ari direnen, euskaldunak sentitzen direnen eta EAEn jaiotako-en artean.
- Euskadiko gazteen %14 gauez bere herritik edo auzotik ibiltzeko beldur da; kopuru hori handiagoa da, ordea, emakumeen eta espainiarrak soilik edo batez ere espainiarrak sentitzen direnen artean.
- Badira azpimarratu beharreko bi gauza garrantzitsu:
 - Euskadiko gaztea pertsona bortizarekin parekatzea estereotipo bat besterik ez da, Euskadiko gazte gehienak bortizkeriaren aurka baitaude, bortizkeria politikoa izan edo gizartekoa izan.
 - Politikari buruzko kapituluan ikusi bezala, badirudi ezker-eskuin ardatza desagertzen ari dela, edo, bestela esanda, gazteentzat zaila dela ardatz horretan kokatzea eta eskuinekoa edo ezkerrekoa izatea zer den adieraztea. Baina gazteek gizarteko zenbait jarrera eta balioekiko duten iritzian erreparatuz gero, ardatz horrek oraindik balioa baduela adieraziko luke.



8

Euskara

EAEko gazteek euskararekiko duten jarrera ezagutzen saiatuko gara kapitulu honetan. Ondorengo hiru alderdiak aztertuko ditugu, horretarako:


- ▶ Ezagutza-maila.
- ▶ Erabilera (benetakoa eta ideala).
- ▶ Herri-administrazioek euskara sustatzeari buruzko iritzia.

8.1. EUSKARAREN EZAGUTZA

Oro har, 15 urtetik 29 urtera bitarteko EAEko gazteen %48,4k nahikoa ongi edo ongi hitz egiten du euskaraz eta %42,1ek zertxobait hitz egiten du edo hitz batzuk esaten ditu euskaraz. Oso gutxi dira, azkenik, euskaraz ezer ere ez dakitenak (%9,5).

Idatziz komunikatzeko gaitasunari dagokionez, euskaraz irakurtzen eta idazten dakitenen ehunekoa handixeagoa da (19. grafikoa). Ahozko ulermenari dagokio ehunekorik handiena, gazteen %58,6 baita euskara ulertzeko gai.

19. grafikoa: Nolako ezagutza-maila duzu euskaraz?



Datu horiek eta Euskal gazteak 1990 (Elzo, 1990: 451) ikerlaneko emaitzak ezin ditugu, ordea, zehatz-mehatz alderatu, galdera ez baita berdin-berdina izan. Hala ere, bistakoa da 1990etik 2000ra euskararen ezagutzak gora egin duela euskal gazteen artean. Elzo irakaslearen ikerlanaren arabera, gazteen %36,2k ez zekien euskaraz eta ez zuen, gainera, ezer ere ulertzen; gure emaitzen arabera, %5,2koa da horrelakoen porzentaia.

Alde handia dago, bestalde, EAEko datuen eta euren hizkuntza duten gainontzeko Autonomia Elkarrekin datuen artean. Aipa ditzagun, adibidez, Balearrak eta, batez ere, Katalunia: gazteen %55,7k eta %74,8k ongi hitz egiten du mallorkeraz eta katalanez, hurrenez hurren (Direccio General de Joventut i Familia del Govern Balear, 1997: 233 eta Secretaria General de Joventut, 1998: 101).

71. taulan ikusten denez, gazteenak (15-19 urte) dira euskaraz gehien dakitenak eta, adinak gora egin ahala, jaitsi egiten da euskaldunen ehunekoa. Hezkuntza-sisteman azken urteotan euskalduntzearen alorrean egin diren ahaleginak izango dira, ziur aski, horren guztiaren iturburuak.

Arabako gazteei dagozkie ehunekorik txikiak: %24 baino ez da euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gai (ulermenaren emaitzak hobeak dira: %42). Gipuzkoan, aldiz, gazteen %69,2k badaki euskaraz.

Emaitzetan zerikusi handia du euskalduna/espainola ardatzak. Horrela, euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat dutenen %13,4k baino ez daki euskaraz; euren burua euskalduntzat dutenen %67,4k, aldiz, badaki euskaraz.

71. taula: Nolako ezagutza-maila duzu euskaraz?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Euskalduna/espainola ardatza | | | |
|----------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|------------------------------|--------|-----------|-------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Euskaldun | Berdin | Espainiar | Ed/Ee |
| ULERTU | | | | | | | | | | | |
| Ez | 5,2 | 2,1 | 4,5 | 8,3 | 9,1 | 2,6 | 5,7 | 2,2 | 7,3 | 20,9 | 8,4 |
| Zerbait | 36,2 | 29,4 | 35,7 | 42,0 | 48,7 | 18,4 | 43,1 | 21,3 | 56,3 | 59,7 | 48,6 |
| Bai | 58,6 | 68,5 | 59,8 | 49,7 | 42,2 | 79,0 | 51,2 | 76,5 | 36,4 | 19,4 | 43,0 |
| HITZ EGIN | | | | | | | | | | | |
| Ez | 9,5 | 6,2 | 8,2 | 13,3 | 17,1 | 5,4 | 9,7 | 4,3 | 14,0 | 28,4 | 16,8 |
| Zerbait | 42,1 | 35,0 | 42,5 | 47,2 | 58,8 | 25,4 | 47,4 | 28,3 | 61,4 | 58,2 | 56,1 |
| Bai | 48,4 | 58,8 | 49,3 | 39,5 | 24,1 | 69,2 | 42,9 | 67,4 | 24,6 | 13,4 | 27,1 |
| IRAKURRI | | | | | | | | | | | |
| Ez | 10,4 | 6,2 | 8,0 | 16,1 | 21,6 | 6,6 | 9,6 | 5,5 | 14,9 | 29,9 | 15,9 |
| Zerbait | 34,9 | 27,7 | 35,7 | 39,5 | 42,7 | 19,8 | 41,5 | 22,4 | 51,2 | 50,7 | 50,4 |
| Bai | 54,7 | 66,1 | 56,3 | 44,4 | 35,7 | 73,6 | 48,9 | 72,1 | 33,9 | 19,4 | 33,7 |
| IDATZI | | | | | | | | | | | |
| Ez | 11,2 | 7,0 | 8,4 | 17,4 | 23,6 | 7,3 | 10,1 | 5,9 | 16,6 | 28,4 | 17,7 |
| Zerbait | 36,9 | 29,6 | 38,2 | 41,0 | 45,3 | 22,6 | 42,8 | 23,8 | 53,8 | 56,6 | 51,4 |
| Bai | 51,9 | 63,4 | 53,4 | 41,6 | 31,1 | 70,1 | 37,1 | 70,3 | 29,6 | 15,0 | 30,9 |
| Guztizkoa ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztizko osoa | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 768 | 422 | 67 | 107 |

8.2. EUSKARAREN ERABILERA

8.2.1. Benetako erabilera

72. taulako datuen arabera, nahikoa gutxi dira euskara ahoz eta idatziz erabiltzen duten gazte euskaldunak. Gainera, euskaraz badakitenen artean, %36,4k baino ez du beti edo ia beti euskaraz hitz egiten (gaztelerari dagokionez, %62,6koa da horrelakoen portzentaia). Idatzizko erabilera are txikiagoa da: %32, hain zuzen.

72. taula: Zenbat hitz egiten/idazten duzu euskaraz eta zenbat gazteleraz, gutxi gorabehera?
(Euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten/idazten dutenen datuak baino ez ditugu kontuan hartu)

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Euskalduna/espainola ardatza | | | |
|-------------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|------------------------------|--------|-----------|-------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Euskaldun | Berdin | Espainiar | Ed/Ee |
| <i>HITZ EGIN</i> | | | | | | | | | | | |
| Beti/ia beti euskaraz . | 17,9 | 20,6 | 19,1 | 13,1 | 0,0 | 27,9 | 11,3 | 22,0 | 2,9 | 11,1 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz . . . | 18,5 | 15,6 | 18,7 | 21,5 | 6,3 | 24,1 | 15,1 | 21,8 | 6,7 | 0,0 | 6,9 |
| Gehiago gazteleraz . . | 47,1 | 49,1 | 44,6 | 48,2 | 52,1 | 37,8 | 55,0 | 44,6 | 53,8 | 55,6 | 61,5 |
| Beti/ia beti gazteleraz | 15,5 | 14,2 | 16,3 | 15,7 | 39,6 | 9,9 | 17,0 | 10,4 | 36,5 | 33,3 | 24,1 |
| Ed/Ee | 1,0 | 0,5 | 1,3 | 1,5 | 2,0 | 0,3 | 1,6 | 1,2 | 0,1 | 0,0 | 3,5 |
| Gutzizkoa ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzizko osoa | 660 | 218 | 251 | 191 | 48 | 294 | 318 | 518 | 104 | 9 | 29 |
| <i>IDATZI</i> | | | | | | | | | | | |
| Beti/ia beti euskaraz . | 15,8 | 22,1 | 16,5 | 7,5 | 8,1 | 26,5 | 8,0 | 19,6 | 4,0 | 10,0 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz . . . | 16,2 | 18,3 | 15,4 | 14,9 | 9,7 | 18,1 | 15,8 | 20,0 | 2,4 | 10,0 | 9,1 |
| Gehiago gazteleraz . . | 42,7 | 42,6 | 38,6 | 48,3 | 32,3 | 39,9 | 46,8 | 41,5 | 48,0 | 30,0 | 45,5 |
| Beti/ia beti gazteleraz | 24,6 | 16,6 | 28,7 | 28,4 | 50,0 | 14,8 | 28,4 | 18,1 | 45,6 | 50,0 | 41,4 |
| Ed/Ee | 0,7 | 0,4 | 0,7 | 1,0 | 0,0 | 0,7 | 0,9 | 0,7 | 0,0 | 0,0 | 3,0 |
| Gutzizkoa ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzizko osoa | 708 | 235 | 272 | 201 | 62 | 298 | 348 | 540 | 104 | 10 | 33 |

Gazte euskaldunen %15ek ez du inoiz euskaraz hitz egiten eta %25ek ez du inoiz euskaraz idazten. Emaitzak adin-taldeka hartuz gero, 15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira euskaraz gehien dakitenak (aurreko atalean ikusi dugun moduan) eta gehien idazten dutenak: beti euskaraz idazten dutenen ehunekoa beti gazteleraz idazten dutenena baino handiagoa da (%22,1 eta %16,6, hurrenez hurren). Izan ere, adin-talde horri dagozkion hezkuntza-mailak erabat euskaldundu dira, baina goi-mailako hezkuntzan eta, batik bat, lan-munduan (19 urtetik gorakoan esparruetan, alegia) oraindik ez da, inondik inora, benetako elebitasunik lortu.


Euskal abertzale direnen kopuruak eta erabilerarenak bat datoz, gainera, euren burua euskalduntzat edo batez ere euskalduntzat dutenei baitagozkie ehunekorik handienak (ahozko erabilera %43,8koa da eta idatzizkoa %39,6koa). Oso gutxi dira, bestalde, euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat duten gazte euskaldunak eta, beraz, ezin izan dugu horien inguruko balioespenik egin.

Euskararen erabilerari dagokionez, alde handiak daude EAEko lurralde historikoen artean. Gipuzkoako gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; izan ere, gehiago baiti-

ra euskaraz hitz egiten dutenak gaztelera hitz egiten dutenak baino. Arabako gazteak dira, aldiz, euskara gutxien erabiltzen duenak. Ondorioz, euskararen eta gaztelaren erabilera Gipuzkoan baino ez dira parekoak.

Bi ondorio argi aterako ditugu adierazitakoak kontuan hartuta. Batetik, euskaraz badakiten gazteek ez dituzte EAEko bi hizkuntza ofizialak berdin erabiltzen, gaztelera erabiltzeko joera baita nagusi (Gipuzkoa da salbuespen bakarra). Bestetik, euskara gehiago erabiltzen da ahoz idatziz baino (20. grafikoa), euskaraz hitz egiteko gaitasuna txikiagoa den arren (aurreko atalean adierazi dugun moduan).

20. grafikoa: Gazte euskaldunek euskaraz eta gaztelaniaz zenbat hitz egin eta idatzen duten



8.2.2. Euskararen erabilera ideala


Beste galdera hau ere egin diegu gazteei: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean? (21. grafikoa). Gehienek (ia hamarretik zortzik) elebitasunaren alde egin dute. Dena den, %17ren ustez, euskara hutsean hitz egin beharko litzateke eta %4,2ren ustez, gaztelera hutsean.

Ekar ditzagun, oraingoan, gogora duela hamar urte izandako emaitzak (Elzo. 1990: 46). Elebitasunaren aldeko jarrerak gero eta indar handiagoa hartu du: 1990ean, gazteen %31,7k euskara baino ez zela erabili behar uste zuen (21. grafikoa).

Euren lurraldean euskara hutsean hitz egin beharko litzatekeela uste duten 15 eta 19 urte bitarteko gazteei dagokienez, ehunekoak beste adin-taldeetakoak baino handiagoak dira Gipuzkoan bizi direnen artean, euren burua euskalduntzat edo batez ere euskalduntzat dutenen artean eta euskaldunen artean (ikus 73. taula).

Euskaraz ez dakitenei dagokienez, bi talde hauetan dira nagusi euren lurraldean gaztelera hutsean hitz egin beharko litzatekeela uste dutenak: Araban bizi direnen artean eta euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat dutenen artean.

21. grafikoa: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko lizateke zure lurraldean?
(1990-2000ko datuak)



73. taula: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke zure lurraldean?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Euskalduna/espainola ardatza | | | Badakizu euskaraz? | | |
|-------------------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|------------------------------|--------|-----------|--------------------|---------|------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Euskaldun | Berdin | Espainiar | Ez | Zerbait | Bai |
| Gazteleraz baino ez | 4,2 | 4,3 | 4,3 | 3,9 | 10,6 | 1,6 | 3,9 | 2,0 | 5,7 | 16,4 | 14,7 | 5,6 | 0,9 |
| Euskaraz baino ez | 17,2 | 21,3 | 17,8 | 13,5 | 8,0 | 24,5 | 15,5 | 29,0 | 1,2 | 4,5 | 1,6 | 4,3 | 31,5 |
| Bietan | 77,2 | 73,3 | 76,7 | 81,0 | 79,9 | 72,5 | 79,3 | 68,5 | 91,7 | 76,1 | 82,2 | 88,2 | 66,8 |
| Ed/Ee | 1,4 | 1,1 | 1,2 | 1,6 | 1,5 | 1,4 | 1,2 | 0,5 | 1,4 | 84,0 | 1,5 | 1,9 | 0,8 |
| Gutzizkoa ehunekotan. . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzizko osoa | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 768 | 422 | 67 | 129 | 575 | 660 |

Aurrerago aipatu bezala, elebitasunaren aldekoak nagusi dira talde guztietan, baina batez ere euren burua euskaldun eta espainoltzat dutenen artean, euskaraz zertxobait dakitenen artean eta 25-29 urtekoen artean.

Argi dago, beraz, EAeko gazte gehienak elebitasunaren alde daudela. Baina elebitasun hori ez da benetan lotu, euskaren ezagutzari eta erabilerari buruzko datuetan ikusten denez. Horrela, gazteen %77,2ren ustez, euskaraz eta gazteleraz hitz egin beharko litzateke, baina gazteen %51,6 ez da euskaraz ezer edo ia ezer esateko gai. Gainera, euskaraz badakitenen %62,6k gazteleraz hitz egiten du ia beti edo beti.

8.3. HERRI-ADMINISTRATIOEK EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO IRITZIA

EAeko gazte gehienek ustez, herri-administratioek euskara sustatu egin behar dute. 30 urtetik beherakoek erdiak baino gehiagok adierazi duenez, euskal administratioek in-

bertsio gehiago egin beharko lituzkete alor horretan eta %4,5 baino ez dago horrelako inbertsioak murriztearen alde (74. taula).

74. taula: Zenbat inbertitu behar dute, zure ustez, euskal administrazioek euskararen alorrean: orain arte beste, gutxiago edo gehiago?

| | Guztira | Adin-taldeak | | | Lurraldeak | | | Euskalduna/espainola ardatza | | | Badakizu euskaraz? | | |
|------------------------------|---------|--------------|-------|-------|------------|----------|---------|------------------------------|--------|-----------|--------------------|---------|------|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Euskaldun | Berdin | Espainiar | Ez | Zerbait | Bai |
| Gehiago | 50,2 | 52,3 | 21,6 | 47,2 | 46,7 | 54,1 | 48,9 | 69,7 | 25,4 | 16,4 | 20,2 | 36,9 | 67,7 |
| Orain arte beste | 34,6 | 32,3 | 32,5 | 38,5 | 38,7 | 27,5 | 37,6 | 21,5 | 55,5 | 50,8 | 54,3 | 45,9 | 20,9 |
| Gutxiago | 4,5 | 3,0 | 6,1 | 3,9 | 6,5 | 4,0 | 4,2 | 0,8 | 8,1 | 17,9 | 12,4 | 5,9 | 1,7 |
| Ed/Ee | 10,7 | 12,4 | 9,8 | 10,4 | 8,1 | 14,4 | 9,3 | 8,0 | 11,0 | 14,9 | 13,2 | 11,3 | 9,7 |
| Guztizkoa ehunekotan. . . | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Guztizko osoa | 1.364 | 371 | 510 | 483 | 199 | 425 | 740 | 768 | 422 | 67 | 129 | 575 | 660 |

Euskaraz badakitenen artean du indarririk handiena herri-administrazioek euskara sustatzeko diru gehiago erabiltzearen aldeko jarrerak. Eta euskaraz ez dakitenek besteek baino gehiago aipatu dute horrelako inbertsioak murriztearen aldeko iritzia: dena den, iritzi hori dutenen ehunekoa ez da oso handia (%12 baino ez). Bistakoa da, beraz, herri-administrazioek euskararen alorrean inbertsio gehiago egiteari buruzko jarrera ez dela hizkuntza hori ikasteko gogoaren araberakoa. Dirudenez, ideologia-arrazoiak dira aipatutako gaiaren inguruko jarreraren oinarriak. Horrela, euren burua euskalduntzat edo batez ere euskalduntzat dutenen %69,7k herri-administrazioek euskararen alorrean diru gehiago inbertitu behar dutela uste du, baina euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat dutenen %16,4 baino ez da horren aldekoa.

Gainera, euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat dutenen artean, euskararen esparruko inbertsioak murriztearen alde dauden ehunekoa (%17,9) horrelako inbertsioak ugartzearen alde daudenena (%16,4) baino zertxobait handiagoa da.

ONDORIOAK

- EAEko gazteen erdiak, gutxi gorabehera, nahikoa ongi edo ongi hitz egiten du euskaraz. Idatziz komunikatzeko (hau da, irakurtzeko eta idazteko) gai direnen ehunekoa zertxobait handiagoa da, gainera. Baina ahozko ulermenari dagozkio emaitzarik onenak, gazteen %58,6 baita euskara ulertzeko gai.
- Gazteenak, gipuzkoarrak eta euren burua euskalduntzat dutenak dira euskaraz gehien dakitenak.
- Euskaraz badakiten gazteek ez dituzte EAEko bi hizkuntza ofizialak berdin erabiltzen, gaztelera erabiltzeko joera baita nagusi. Euskararen eta gaztelaren erabilerak Gipuzkoan baino ez dira parekoak.
- Oro har, euskara gehiago erabiltzen da ahoz idatziz baino.
- EAEko gazte gehienak elebitasunaren alde daude, baina benetan ez da horrelakorik lortu. Gazteen %77,2ren ustez, euskaraz eta gaztelaraz hitz egin beharko litzateke, baina %51,6k ez daki ezer edo ia ezer euskaraz. Gainera, euskaraz badakitenen %62,6k gaztelaraz hitz egiten du beti edo ia beti.
- EAEko gazte gehienek ustez, herri-administrazioek euskara sustatu egin behar dute. Euskal administrazioek euskararen alorrean inbertsio gehiago egin behar dituztela uste du %50,2k eta %4,5 baino ez da horrelako inbertsioak murriztearen aldekoa.
- Herri-administrazioek euskararen alorrean inbertsio gehiago egiteari buruzko jarrerera ez da euskara ikasteko gogoaren arabera (izan ere, euskaldunak dira gehienbat jokabide horren aldekoak). Badirudi euskalduna/espainola ardatza dela aipatutako jarreraren oinarria.
- Bi ondorio nabarmendu behar dira:
 - 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazteek dituzte ehunekorik handienak euskararen ezagutzan eta idatzizko erabileran. Beraz, baikorrak izan behar dugu euskararen etorkizunari dagokionez.
 - Badirudi euskalduna/espainola ardatza dela euskararekiko jarreraren oinarria. Horrela, euren burua espainoltzat edo batez ere espainoltzat dutenek jarrera negatiboagoa dute euskararekiko: oso gutxik dakite euskaraz, gutxi erabiltzen dute eta ez zaie hain egokia iruditzen herri-administrazioek euskararen aldeko inbertsioak egitzea.



9

Gazteak eta
sexualitatea

Euskal gazteek sexualitateari buruz duten ikuspegia ezagutzen saiatuko gara kapitulu honetan. Ondorengo alderdiak aztertuko ditugu, horretarako:

- ▶ Nolako garrantzia ematen dioten sexualitateari.
- ▶ Zerekin identifikatzen duten.
- ▶ Sexualitateari buruzko komunikazioa familian.

9.1. SEXUALITATEAREN GARRANTZIA

15 eta 29 urte bitarteko EAEko ia gazte guztiek (hamarretik zortzik baino gehiagok) sexualitatea garrantzitsua dela uste dute. Horrela, %24rentzat oso garrantzitsua da eta %57rentzat nahikoa garrantzitsua. Oso gutxi dira (%3,1) inolako garrantzirik ematen ez diotenak (75. taula).

75. taula: Nolako garrantzia du zuretzat sexualitateak?

| | Guztira | Sexua | | Adina | | | Ezkerra-eskuina ardatza | | | | Fededuna | |
|----------------------------------|---------|--------|-------|-------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|----------|------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Bai | Ez |
| Oso garrantzitsua da .. | 24,0 | 26,9 | 20,9 | 18,6 | 23,9 | 28,2 | 32,3 | 15,8 | 22,5 | 19,6 | 20,7 | 29,3 |
| Nahikoa garrantzitsua da | 57,3 | 58,4 | 56,1 | 51,5 | 58,0 | 60,9 | 57,4 | 60,0 | 66,7 | 55,2 | 57,1 | 57,7 |
| Garrantzi gutxi du ... | 13,6 | 11,5 | 15,8 | 19,9 | 14,3 | 8,1 | 8,1 | 21,1 | 7,2 | 17,4 | 16,7 | 9,5 |
| Ez du inolako garrantzirik | 3,1 | 2,0 | 4,2 | 7,3 | 1,8 | 1,2 | 1,5 | 2,1 | 2,7 | 4,4 | 3,9 | 1,9 |
| Ed/Ee | 2,0 | 1,2 | 3,0 | 2,7 | 2,0 | 1,0 | 0,7 | 1,0 | 0,9 | 3,4 | 1,6 | 1,6 |
| Gutzizkoa ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzizko osoa | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 590 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 | 778 | 529 |

Mutilek neskek baino balio handiagoa eman diote: sexua garrantzitsua iruditzen zaien mutilen ehunekoa handiagoa da (mutilen %85,3 eta nesken %77) eta garrantzi handiagoa ematen diote, gainera (oso garrantzitsua: mutilen %27k eta nesken %21ek).

Alde nabarmenak daude adinen arabera ere. Zenbat eta helduagoak, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari. 15-19 urteko gazteen %70,1ari nahikoa edo oso garrantzitsua iruditzen zaio; 25-29 urtekoen artean, aldiz, %89,1 da iritzi horretakoa.


Ideologia soziopolitikoari dagokionez, euren burua ezkerrekotzat dutenek garrantzi handiagoa eman diote (%32,3rentzat oso garrantzitsua) eskuinekotzat dutenek baino (%22,5) eta, batez ere, zentrokoek baino (%15,8).

Ideologia politikoak ez ezik, fedeak ere badu eragina sexualitateari buruzko balioespenean. Izan ere, sexua nahikoa edo oso garrantzitsua iruditzen zaie gazte fededunen ehunekoia fededun ez direnena baino txikiagoa da (%77,8 eta %87, hurrenez hurren).

9.2. ZEREKIN IDENTIFIKATZEN DUTEN SEXUALITATEA

Aipatu dugunez, sexualitatea garrantzitsua iruditzen zaie ia gazte guztiei, baina denek ez dute berdin ulertzen (22. grafikoa). Batzuei (%27,9) sexualitateak bikotea ekartzen die burura, beste batzuei (%19,1) neurriak hartzeko beharra (haurdun ez gelditzeko edo sexu-transmisiozko gaixotasunik eta, batez ere, HIESik ez harrapatzeko) eta beste hainbati maitasuna (%17,9). Gutxi izan dira, azkenik, honako erantzun hauek eman dituztenak: desioa (%10,5), koitoa (%8,8) eta dibertsioa, festa, poztasuna edo gozamena (%6,6).

22. grafikoa: Zerekin identifikatzen duzu sexualitatea?



Askotan esan izan da gizonen eta emakumeek ez dutela sexualitatea berdin ulertzen eta, gure datuen arabera, badirudi hipotesi hori ez dela okerra. 76. taulan ikusten denez, nesken erantzunek lotura handiagoa dute, batetik, maitasunarekin, hau da, afektibitatearekin edo sentimenduekin, eta bestetik, neurriak hartzeko behararekin (antisorgailuak, sexu-transmisiozko gaixotasunak...). Mutilek, ordea, neskek baino gehiago aipatu dituzte bikotea, koitoa (amodioa egitea, orgasmoa...) eta dibertsioa.

Erantzunak ez dira berdinak izan adin guztietan. Zenbat eta helduagoak, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diete maitasunari eta desioari (erakarpina, plazerra, pasioa...) eta gero eta gutxiago aipatzen dute koittoa. Bestalde, 20 eta 24 urte bitarteko gazteek gainontzekoek baino gehiago aipatu dute neurriak hartzeko beharra.

76. taula: Zerekin identifikatzen duzu sexualitatea?

| | Guztira | Sexua | | Adina | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | | Fededuna | |
|-----------------------|---------|--------|-------|-------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|----------|------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Bai | Ez |
| Bikotearekin | 27,9 | 33,5 | 22,0 | 29,4 | 27,8 | 26,7 | 32,6 | 37,9 | 26,1 | 23,5 | 25,3 | 32,3 |
| Neurriekin | 19,1 | 16,0 | 22,4 | 19,4 | 22,8 | 16,4 | 18,9 | 20,0 | 22,5 | 18,6 | 20,2 | 18,5 |
| Maitasunarekin | 17,9 | 13,8 | 22,1 | 14,3 | 17,5 | 21,1 | 17,2 | 15,8 | 29,7 | 16,7 | 19,4 | 16,6 |
| Desioarekin | 10,5 | 10,2 | 10,8 | 4,6 | 10,8 | 14,7 | 16,0 | 9,5 | 6,3 | 7,6 | 8,5 | 13,4 |
| Koitoarekin | 8,8 | 11,4 | 6,1 | 14,3 | 6,6 | 5,8 | 7,0 | 8,4 | 9,9 | 9,9 | 8,7 | 8,9 |
| Dibertsioarekin | 6,6 | 7,5 | 5,7 | 5,4 | 7,1 | 7,0 | 9,1 | 5,3 | 9,0 | 4,7 | 4,9 | 9,3 |

Galdera bananduak.

Ideologia politikoak ere badu eragina horretan guztian, ezkerrekoek eta eskuinekoek ez baitute sexualitateari buruzko ikuspegi berbera. Ezkerrekoek gehiago lotu dute desioarekin eta bikotearekin eta eskuinekoek, berriz, maitasunarekin, neurriak hartzeko behararekin eta koitoarekin.

Fededunek ere gehiago aukeratu dituzte maitasuna eta neurriak hartzeko beharra fededun ez direnek baino. Bikotea, desioa eta dibertsioa izan dira nagusi bigarren horien erantzunetan.

9.3. SEXUALITATEARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA FAMILIAN

EAEko etxe askotan ez da sexualitateari buruz hitz egiten. Gazteen %23,5k etxean inoiz ez du hitz egin sexuari buruzko inkesta honetan aipatu diren gaiez: antisorgailuez, amodioa nola egiten den, sexu-transmisiozko gaixotasunez, haurrak nola sortzen diren eta maitasun-sentimenduez. Badirudi, beraz, sexualitatea tabua dela oraindik familia askotan. Gazteen %13,5ek baino ez du hitz egin edo egiten etxearekin aipaturako gai guztiei buruz. Erdiak baino zertxobait gehiagok, bestalde, gai horietakoren bati buruz, gutxienez, hitz egin edo egiten du etxean (77. taula). Amodioa egiteko modua da salbuespen bakarra, %16k baino ez baitu etxean horretaz hitz egin.

Familiatan hainbat ikuspegitatik heltzen zaio sexualitateari, baina honako hau izaten da nagusi: maitasun-sentimenduen gaia. Esan bezala, amodioa egiteko modua ez da ia inoiz aipatzen.

Oro har, neskek mutilek baino gehiago hitz egiten dute etxean sexualitateari buruz, baina alde nabarmenak daude sorkuntzari (haurrak sortzeko modua eta antisorgailuak) eta maitasun-sentimenduei lotutako gaien artean.

Helduenak dira etxean sexuari buruz gutxien hitz egin edo egiten dutenak (maitasun-sentimenduak dira salbuespen bakarra).

77. taula: Aipatu dituzue inoiz edo aipatzen dituzue etxean ondoren adieraziko dizkizuegun gaiak?

| | Guztira | Sexua | | Adina | | | Ezkerra/eskuina ardatza | | | | Fededuna | |
|------------------------------------|---------|--------|-------|-------|-------|-------|-------------------------|---------|---------|-------|----------|------|
| | | Gizon. | Emak. | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Ezkerra | Zentroa | Eskuina | Ed/Ee | Bai | Ez |
| ANTISORGAILUAK | | | | | | | | | | | | |
| Bai | 55,7 | 50,5 | 61,1 | 55,0 | 59,2 | 52,6 | 56,0 | 60,3 | 55,0 | 54,2 | 56,6 | 55,4 |
| Ez | 43,7 | 48,9 | 38,3 | 44,3 | 40,6 | 46,6 | 43,6 | 33,7 | 43,2 | 45,2 | 42,9 | 44,0 |
| Ed/Ee | 0,6 | 0,6 | 0,6 | 0,7 | 0,2 | 0,8 | 0,4 | 0,0 | 1,8 | 0,6 | 0,5 | 0,6 |
| MAITASUNA NOLA EGITEN DENE | | | | | | | | | | | | |
| Bai | 16,0 | 15,1 | 16,9 | 18,1 | 16,3 | 14,1 | 15,3 | 9,5 | 16,2 | 17,3 | 16,1 | 16,1 |
| Ez | 83,5 | 84,2 | 82,8 | 81,1 | 83,5 | 85,3 | 84,5 | 89,5 | 82,9 | 82,1 | 83,4 | 83,6 |
| Ed/Ee | 0,5 | 0,7 | 0,3 | 0,8 | 0,2 | 0,6 | 0,2 | 1,0 | 0,9 | 0,6 | 0,5 | 0,3 |
| SEXU-TRANSMIS. GAIXOTASUNAK | | | | | | | | | | | | |
| Bai | 57,3 | 52,9 | 61,7 | 56,9 | 61,6 | 53,0 | 55,3 | 63,2 | 63,1 | 56,8 | 57,2 | 58,6 |
| Ez | 42,2 | 46,6 | 37,5 | 42,6 | 38,0 | 46,2 | 43,8 | 36,8 | 36,0 | 42,7 | 42,3 | 40,6 |
| Ed/Ee | 0,5 | 0,5 | 0,8 | 0,5 | 0,4 | 0,8 | 0,9 | 0,0 | 0,9 | 0,5 | 0,5 | 0,8 |
| HAURRAK NOLA SORTZEN DIREN | | | | | | | | | | | | |
| Bai | 53,7 | 47,1 | 60,5 | 52,8 | 56,9 | 50,9 | 52,6 | 64,2 | 54,1 | 52,9 | 53,6 | 53,7 |
| Ez | 45,3 | 51,8 | 38,6 | 46,6 | 42,7 | 47,0 | 45,7 | 35,8 | 44,1 | 46,5 | 45,6 | 45,2 |
| Ed/Ee | 1,0 | 1,1 | 0,9 | 0,6 | 0,4 | 2,1 | 1,7 | 0,0 | 1,8 | 0,6 | 0,8 | 1,1 |
| MAITASUN-SENTIMENDUAK | | | | | | | | | | | | |
| Bai | 59,0 | 49,6 | 68,8 | 55,8 | 60,8 | 59,6 | 59,6 | 63,2 | 64,9 | 57,1 | 61,4 | 56,5 |
| Ez | 40,3 | 49,4 | 30,9 | 43,7 | 38,6 | 39,5 | 40,0 | 36,8 | 34,2 | 42,0 | 38,2 | 42,5 |
| Ed/Ee | 0,7 | 1,0 | 0,3 | 0,5 | 0,6 | 0,9 | 0,4 | 0,0 | 0,9 | 0,9 | 0,4 | 0,9 |
| Gutzizkoa ehunekotan | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Gutzizko osoa | 1.364 | 695 | 669 | 371 | 590 | 483 | 470 | 95 | 111 | 688 | 778 | 529 |

Badira zenbait alde ezkerreko eta eskuineko gazteen artean. Datu bitxi bat aipatu behar dugu: ezkerrekoek gutxiago hitz egiten dute etxean sexuari buruz ideologia kontserbadoreagoa dutenek baino. Dena den, ez dakigu nolako ideologia duten batzuen eta besteentzen gurasoek.

Ez dago ia inolako alderik fededunen eta fededun ez direnen ehunekoaren artean. Datu bakar bat da aipatzekoa: etxean maitasun-sentimenduei buruz hitz egin izan duten fededunen ehuneko handiagoa dela.

ONDORIOAK

- 15 eta 29 urte bitarteko EAEko ia gazte guztiek (hamarretik zortzik baino gehiagok) sexualitatea garrantzitsua dela uste dute eta oso gutxi dira (%3,1) inolako garrantzirik ematen ez diotenak. Sexualitatea garrantzitsuagoa da mutilentzat neskentzat baino, ezkerrekoentzat eskuineko edo zentrokoentzat baino eta federik gabekoentzat fededunentzat baino. Heldu ahala, gero eta balio handiagoa emate diote.
- Gazte guztiek ez dute sexualitatea berdin ulertzen. Nesken erantzunak lotura handiagoa dute maitasunarekin (afektibitatea eta sentimenduak) eta neurriak hartzeko behararekin (antisorgailuak, sexu-transmisiozko gaixotasunak...). Mutilek, ordea, neskek baino gehiago aipatu dituzte bikotea, dibertsioa eta koittoa (amodioa egitea, orgasmoa...).
- Ideologia politikoak eta fedea eragin nabarmena dute sexualitateari buruzko ikuspegian. Horrela, fededun ez diren ezkerreko gazteentzat sexualitateak desioarekin du, gehienbat, zerikusia eta fededun diren eskuineko gazteentzat, al-diz, maitasunarekin eta neurriak hartzeko behararekin.
- EAEko gazteen %23,5aren etxean sexualitatea tabua da oraindik eta inoiz ez dute inkestako gai bakar bati buruz ere hitz egin.
- Neskek mutilek baino gehiago hitz egiten dute etxean sexualitateari buruz. Baina hiru gai hauek aipatzen dituzte, batez ere: maitasun-sentimenduak, haurrak nola sortzen diren eta antisorgailuak.
- Hona hemen datu bitxi bat: ezkerreko gazteek gutxiago hitz egiten dute etxean sexuari buruz ideologia kontserbadoreagoa dutenek baino.
- Bi ondorio hauek azpimarratu behar dira:
 - Mutilek eta neskek ez dute sexu-hezkuntza bera hartzen (neskei gehiago hitz egiten zaie sexualitateari buruz: maitasun-sentimenduak, haurrak nola sortzen diren eta antisorgailuen gaia aipatzen zaizkie, gehienbat) eta horrek eragin handia izaten du, gero, sexualitatearekiko ikuspegian. Horrela, neskek maitasunarekin eta neurriak hartzeko behararekin lotu dute gehienbat eta mutilek, berriaz, neskek baino gehiago aipatu dituzte dibertsioa eta koittoa.
 - Beti uste izan da ezkerrekoek ikuspegi liberalagoa dutela sexu-kontuetan. Gure datuen arabera, ezkerreko gazteek eskuinekoek baino garrantzi handiagoa ematen diote sexuari, baina, hala ere, etxean gutxiago hitz egiten omen dute gai horretaz.



10
Ondorioak

Sarreran adierazi dugun bezala, azterlan honen oinarrizko helburua EAEko gazteen ezaugarri nagusiak ematea da. Horretarako, bederatzi kapituluetan, gai bakoitzari dagozkion datuak zehatz-mehatz aztertu eta taldeen arteko aldeak sartu ditugu. Bestalde, azterketa hau konparatu egin dugu EAEn edo beste eremu geografiko batzuetan aurretik egindako azterketekin. Gainera, kapitulu bakoitzaren amaieran, gai buruzko ondoriorik garrantzitsuenak bildu ditugu.

Jarraian, ondorio guztiak laburbildu behar ditugu, EAEko gazteen ezaugarriak argi eta garbi gera daitezen. Hona hemen laburpena:

- ▶ Egoera sozioekonomikoa neurtzeko erabiltzen diren adierazle makroekonomikoen egoera positiboa erakusten dute. Hala ere, lana da EAEko gazteen arazorik larriena, oraindik ere. Gainera, kontua ez da lana izatea edo ez izatea; gazte gehienek nahiko egoera kaskarretan egiten dute lan: egonkortasun gutxi, lanordu gutxi eta baldintza ekonomiko kaskarrak. Egoera horrek emakumei eta Bizkaian bizi direnei eragiten die batez ere.
- ▶ Egoera horren eta etxebizitzaren garestitzearen ondorioz, EAEko gazteak denbora luzeagoan bizi dira familiaren menpe, ezin baitira joan euren kontura bizitzera. Hala ere, gazte batzuek argi eta garbi adierazten dute oso gustura bizi direla familiarekin, eta horregatik atzeratzen dutela emantzipazioa, beste faktore batzuen artean. EAEko gazteek oso positiboki balioetsi dituzte familiako elkartzasun afektiboari dagozkion alderdiak eta familian oso gustura daudela adierazi dute.
- ▶ EAEko gazteen aisiak mendebaldeko gizarte modernoek jarraibide kulturalak eta gure herrialde eta inguruko jarraibide espezifikokoak jarraitzen dituzte. EAEko gazteen ohiko aisialdi-jarduerak honakoak dira: lagunekin egotea, telebista ikustea eta prentsa eta aldizkariak irakurtzea, bai astegunetan, baita asteburuetan ere. Beste jarduerak batzuk ere egiten dituzte astegunetan eta asteburuetan, baina aurrekoak baino gutxiagotan, hala nola, paseatu, liburuak irakurri, kirola egin eta ordenagailuarekin ibili. Azkenik, asteburuetan tabernetara joaten dira, kultura- eta kirol-ikuskizunetara, diskoteketara eta mendira ere bai.
- ▶ Elkarte zaletasuna nahiko hedatuta dago EAEko gazteen artean; kirol-elkarteek biltzen dute jende gehien, eta jarraian, bestelako elkarteek (txokoek, elkar-tee, konpartsek, blusak, «peñak»...).

- ▶ EAEko gazte gutxik erabiltzen dute Interneta, eta gainera, nahiko fenomeno berria da eurentzat.
- ▶ EAEko gazteak gustura daude egoera pertsonalarekin, baina EAEko gazteen egoera, eta EAEkoa oro har, erdipurdikoa dela esan dute. Horrek adierazten du gazteak nahiko eszeptikoak direla eta ez dutela konfiantzarik EAEko gizartean. Horri dagokionez, honako hauek dira EAEko gazteek gehien aipatutako arazoak: lana, etxebizitza, terrorismoa, arazo politikoak, ikasketak, arazo ekonomikoak eta drogak.
- ▶ Politikari dagokionez, gazteek ez dute gai publikoetan gehiago parte hartu nahi. Badirudi interes falta hori erosotasun- edo eszeptizismo-jarreraren ondorioa dela gehienbat, eta ez bi alderdi hauen ondorioz: zein neurritan parte hartu behar den balioetsi dutelako edo sistema politikoaren ikuskera (parte-hartzailea edo ez hain parte-hartzailea) kontuan hartu dutelako. Ideologiari dagokionez, EAEko gazteen erdiak ez du eskuin, zentro eta ezkerraren artean aukeratu nahi. Ideologia azaldu dutenen artean, gehienak ezkertiarrek dira. Euskaldun/espainiar ardatzari dagokionez, EAEko gazteen erdiak baino gehiagok adierazi du euskalduntzat duela bere burua, eta ehunetik bostek baino ez dute adierazi espainiar sentitzen direla batez ere. Azkenik, Europarekiko nortasun-sentimendua nahiko baxua da EAEko gazteen artean.
- ▶ Erlijiozkotasuna (ikuspuntu instituzionalistatik ikusita) nahiko baxua da EAEko gazteen artean, gazte dezentek adierazi baitute euren burua fedegabetzat dutela, eta oso praktikante gutxi daudelako fededunen artean. Hala ere, 30 urte-tik beherako hamar gaztetatik zazpi zenbait egoeratan erlijio-ospakizunak egitearen alde daude, esate baterako, jaiotza, ezkontza edo heriotza. Ondorioz, badirudi praktika horiek lotura handiagoa dutela ohitura sozialekin erlijioarekin baino.
- ▶ Oro har, EAEko gazteak oso toleranteak dira homosexualitatearekiko. Dibortzioa, abortua eta eutanasia gehienek onartzen dituzte, baina justifikatuko dituzten egoera jakin batzuen baldintzapean. EAEko gazteek ez dituzte honakoak onartzen: ustelkeria politikoa, alkoholaren eraginpean gidatzea eta kalea zikintzea. Ondorengo hauek ere ez dituzte onartzen, nahiz eta aurrekoak baino gazte gutxiagok errefusatu: Ogasunari iruzur egitea edo legez kanpoko drogak kontsumitzea. Indarkeria EAEko ia gazte guztiek errefusatzeko dute, batez ere senar-emazte edo bikote barruko indarkeria. Halaber, helburu politikoekin erabilitako indarkeria askok eta askok errefusatzeko dute.
- ▶ EAEko gazteek talde hauek arbuizatzen dituzte gehien: neonaziak edo eskuin-muturrekoak, drogazaleak eta ijitoak. Azken hamarkadan asko jaitzi da Estatuko Segurtasun Indarreko (ESI) arbuio soziala. Hala ere, EAEko hainbat gaztek ez dituzte ESiko kideak auzokidetzat onartzen, oraindik ere. EAEko gazteek homosexualak eta atzerriko etorkinak onartzen dituzte hobekien auzokidetzat. Alde ideologikoak EAEko hamar gaztetatik bati baino ez zaizkio axola.
- ▶ Atzerriko etorkinak hartzeari dagokionez, EAEko gazteen erdia erakunde publikoek zenbait kontrol ezartzearen alde dago, eta zera pentsatzen dute: lan-baimena dutenei soilik utzi behar zaiela sartzeko. Gazteen herenak uste du murrizketarik gabe utzi behar zaiela etorkinei sartzeko. Atzerritarrei gure herrialdean sartzeko erraztasun guztiak ematearen alde agertzen diren gazte gehienak ezkertiarrek dira.

- ▶ EAEko gazteen erdiek, gutxi gorabehera, euskaraz nahiko ondo edo zuzen hitz egiten dute; idatziz euskaraz komunikatzeko gaitasun linguistikoa (euskaraz irakurtzen eta idazten jakitea) zerbait altuagoa da. EAEko gazteek ahozko euskara ulertzerakoan dute zailtasun gutxien, %58,6k adierazi baitu euskara ulertzen duela. Hala ere, euskaraz dakitenek gaztelania aukeratzen dute nagusiki (EAEko bi hizkuntza ofizialetatik), nahiz eta EAEko ia gazte gehienak dauden elebitasunaren alde. Gipuzkoan euskararen ahozko erabilera gaztelaniaren erabilerearen antzekoa da; beste bi lurraldeetan ez da halakorik gertatzen.
- ▶ EAEko gazte gehienak daude euskararen sustapen publikoaren alde. %50,2k uste du EAEko Administrazioek inbertsio gehiago egin beharko lituzketela arlo horretan; %4,5 baino ez dago inbertsio horiek murriztearen alde.
- ▶ Euskaldun/espainiar ardatzean jarrera hartzea eta euskararekiko jarrera lotuta daudela dirudi. Bada, espainiar (soilik edo nagusiki) sentitzen direnek jarrera negatiboagoa dute. Izan ere, ezagupen- eta erabilera-maila baxuak baitituzte gazte horiek, eta oso interes gutxi dute euskararen sustapen publikorako inbertsioak handitzeko.
- ▶ Sexualitatea garrantzitsua da 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazte gehienentzat. Mutilek gehiago balioetsi dute neskek baino; euren burua ezkertiarizat definitzen dutenek gehiago eskuindarrek edo zentrokoek baino; eta fedegabeek gehiago balioetsi dute fededunek baino. Gainera, adinean gora egin ahala, gehiago balioesten dute sexualitatea gazteek.
- ▶ Gazte guztiek ez dute berdin interpretatzen sexualitatea. Neskek maitasunarekin (afektibitatea eta sentimenduak) eta ardurarekin (metodo antisorgailuak, sexu-transmisiozko gaixotasunak...) lotzen dute gehiago sexualitatea mutilek baino. Mutilek, ordea, bikotearekin, dibertsioarekin eta sexu-harremanarekin (koittoa, orgasmoa...) lotzen dute gehiago sexualitatea neskek baino. Interpretazioa ere ideologia politikoaren eta erlijiozkotasunaren arabera izaten da: gazte ezkertiarrek eta fedegabeek desirarekin lotzen dute gehiago; eskuindarrek eta fededunek, berriz, maitasunarekin eta ardurarekin.
- ▶ Neskek gehiago hitz egiten dute sexualitateari buruz familian mutilek baino, batez ere maitasun-sentimenduen ikuspuntutik, haurrak sortzeko moduari buruz eta metodo antisorgailuei buruz. Hala ere, lau etxetatik batean sexualitatea tabua da, oraindik ere.

Azken ondorio gisa honakoa aipatuko dugu: lanaz, emantzipazioaz eta etxebizitzaz osatutako triangelua ixtea dela gazteen arazorik larriena, oraindik ere. Gazte horiek, hain zuzen ere, oso parametro pluralak erakutsi dituzte familia, aisia, balioak, erlijioa eta sexualitatearen inguruan, batere hausleak eta inguruko beste lurralde batzuetako gazteen antzekoak.

Bestalde, ondorengo bi hauek dira gure gazteriaren ezaugarriarik nabarmenenak: euskal nortasuneko sentimendu handia eta euskara bultzatzeko gogo. Alderdi hauek, ordea, kezkatzekoak dira: gai publikoetan parte hartzeko interes falta eta gazteen eta EAEn egoera erdipurdikotzat balioestea.



11
Metodologia

11.1. LAGINA

Ikerketaren azterketaren unibertsoa EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak dira. Unibertso horretan oinarrituta, lagin bat aukeratzeko eskatu zaio EUSTAT elkarteari. Lagin horrek lurraldeen arteko proportzionaltasuna gordeko du, bai eta honako proportzio errealak bete:

► **Sexua:**

- Gizona
- Emakumea

► **Adin-taldeak:**

- 15-19
- 20-24
- 25-29

► **Herriaren neurria:**

- Hiru hiriburuak
- 50.001-100.000 biztanle artekoak
- 25.001-50.000 biztanle artekoak
- 10.001-25.000 biztanle artekoak
- 10.000 biztanle baino gutxiagokoak

Irizpide horietan oinarrituta, EUSTATEk ematen duen lagina ia izenduna da: hautatu den gaztearen helbide zehatza, sexua eta adina adierazten dira, baina ez horren izena.

Lagin horretan 4.509 gazte daude: 1.503 titularrak izango dira (horiekin jarriko da, lehenbizi, harremanetan), beste 1.503 lehen ordezkioak izango dira (titularrarekin harremanetan jartzeko hiru saiakerak huts egiten badute, horiekin harremanetan jarriko dira), eta beste 1.503ak bigarren ordezkioak dira (titularrak eta lehengo ordezkioak huts eginez gero, horiekin harremanetan jarriko dira).

Horrela, titular bakoitzak lehenengo eta bigarren ordezkoa ditu, sexu eta adin berekoak, eta, ahal izanez gero, horren herri berekoak edo hurbilekoak.

Azken lagineko 1.364 elkarrizketak osatzeko 3.942 bisita egin dira. Beraz, egin diren bisitetatik %34,6an inkesta osatu egin da, eta %65,4an ezin izan da egin. Hori, batez ere, hautatutako gaztea etxean ez zegoelako gertatu da. Beste zenbait kasutan —askoz urriagoak, ordea— inkesta ez egiteko arrazoiak honakoak izan dira: gaztearen adina ez zeto-rrrelako lagineko adin-mailarekin, hautatuak ez zuelako inkesta egin nahi, jada ez zelako helbide horretan bizi, eta garrantzi handirik gabeko beste hainbat arrazoi. Inkestatuen artean, hirutik lauri lehen bisitan egin zaie inkesta. 78. taulan inkesta egitean izandako gorabehera guztiak ikus daitezke.

78. taula: Bisitetan izandako gorabeherak

| | | |
|-------------------------------|-------|------|
| Bisitatutakoak | 3.942 | 87,4 |
| Bisitatu ez d. | 567 | 12,6 |
| Guztira | 4.509 | 100 |
| | | |
| Bete gabeko ink. | 2.578 | 65,4 |
| Betetako inkestak | 1.364 | 34,6 |
| Bisitatutakoak guztira | 3.942 | 100 |
| | | |
| Lehen bisitan | 976 | 71,5 |
| Bigarren bisitan | 226 | 16,6 |
| Hirugarren bisitan | 157 | 11,5 |
| Laugarren bisitan | 1 | 0,1 |
| Bosgarren bisitan | 1 | 0,1 |
| Ez dago daturik | 3 | 0,2 |
| Betetako inkestak, guztira | 1.364 | 100 |
| | | |
| Ez zen etxean | 1.115 | 43,3 |
| Ez da adin horretakoa | 366 | 14,2 |
| Ez du inkesta egin nahi | 359 | 13,9 |
| Ez da etxe horretan bizi | 335 | 13,0 |
| Ezin harremanetan jarri | 267 | 10,4 |
| Etxebizitza hutsik dago | 39 | 1,5 |
| Ezin izan da etxebiz. aurkitu | 38 | 1,5 |
| Ez da adierazitako sexukoa | 37 | 1,4 |
| Eraikina ez da etxebizitza | 17 | 0,7 |
| Etxebizitza aurrian dago | 3 | 0,1 |
| Bestelakoak | 2 | 0,1 |
| Bete gabeko inkestak, guztira | 2.578 | 100 |

Lehen ere adierazi bezala, landa-lana eta ondorengo arazketa egin ondoren, 1.364 laguni egin zaie inkesta. Laginaren hasierako mailaren proportzioa eta azterketaren xedeko unibertsoa ia berdinak zirenez, ez da ponderaziorik egin. Horrela, lehen adierazitako lagin-irizpideen arabera horrela banatuta daude gazteak:

► Sexua eta adina:

- 15 eta 19 urte bitarteko gizonak: 191
- 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak: 180
- 20 eta 24 urte bitarteko gizonak: 257
- 20 eta 24 urte bitarteko emakumeak: 253

- 25 eta 29 urte bitarteko gizonak: 247
- 25 eta 29 urte bitarteko emakumeak: 236

► Herria

- Gasteiz: 164
- Bilbo: 195
- Donostia: 113
- Bizkaian 25.000-100.000 biztanle artekoak: 292
- Gipuzkoan 25.000-100.000 biztanle artekoak: 88
- Arabian 10.000-25.000 biztanle artekoak: 11
- Bizkaian 10.000-25.000 biztanle artekoak: 118
- Gipuzkoan 10.000-25.000 biztanle artekoak: 132
- Arabian 10.000 biztanle baino gutxiagokoak: 24
- Bizkaian 10.000 biztanle baino gutxiagokoak: 135
- Gipuzkoan 10.000 biztanle baino gutxiagokoak: 92

11.2. LANDA-LANA

11.2.1. Landa-lana

Landa-lana Ikertalde enpresak egin du, 2000ko ekainean eta uztailean.

Inkestariak EUSTATEk emandako zerrendako titularra elkarrizketatzeko hiru saiakera egingo ditu. Hiru saiakera egin ondoren, titularrak galde-sorta betetzea lortzen ez badu, lehenengo ordezkorengana joko du. Eta horrekin ere lortzen ez badu bigarren ordezkariarengana. Dena den, hautatutako pertsonaren etxera egindako bisitan hurrengo bisita egiteko eguna eta ordua zehazten saiatzen dira inkestariak.

Etxebizitza berean kuotek ezarritako baldintza berberak dituen lagun bat baino gehiago badago, horietatik gazteena aukeratu da.

11.2.2. Landa-lanaren kontrola

Landa-lana behar bezala egingo dela bermatzeko, horren arduradunak —Ikertalde— eta Prospekzio Soziologikorako Kabineteak honako kontrolak ezarri ditu.

- Galde-sortaren gainbegira. Galde-sortako galderak aztertu dira akatsik badagoen ikusteko: erantzun gabe uzteko aukera edo «ez daki/ez du erantzun» aukera gehiegi dagoen ikusteko, baztertzeko galderak egin diren edo erantzunetan kontraesan argiak dauden ikusteko. Kontraesan horiek hiru motako arauen inguruan gerta daitezke:

- 1. motako araua: derrigorrez galdera aldatzea eskatzen dute. Honakoari buruzko kontraesanak izan daitezke:

- Adina eta ikasketa-maila.

- *Jarduera nagusia, lanaren iraupena, lan-baldintzak eta aldizkako lan-mota.*
- *Diru-iturri nagusia eta hilean izan dezakeen diru-kopurua.*
- *Diru-iturriak eta norbera bere kontura bizitzea.*
- *Famili egoera eta etxeko lanen banaketa.*
- *Erlijiozalea den eta erlijio-jardueretan parte hartzen duen.*
- *Euskararen ezagutza eta erabilera.*

—2. motako araua: inkestatuak baieztatzea eskatzen du, eta erantzuna aldatzea eragin dezake. Honi buruzko kontraesanak izan daitezke:

- *Ezkerrekoa-eskuinekoa ardatza, eta alderdi politiko hurbilena.*
- *Erlijiozalea den eta erlijio-ospakizunetara joaten den.*

—3. motako araua: dena berrikustea eskatzen du, eta gorabeheren txostenean adieraztea. Honi buruzko kontraesanak izan daitezke:

- *Erlijiozaletasuna eta oinarrizko gizarte-balioak.*
- *Euskararen benetako erabilera eta erabilera ideala.*

► **Kontrol fisikoa.** Bi motako kontrola egin da:

—*Telefono bidezkoa: elkarrizketa adierazitako moduan, lekuan eta datan egin dela egiaztatzeko. Zenbait galdera egiten dira, aukeratu gabeak edo 1. motako arauetan kontraesanak eragin dituztenak. Egindako elkarrizketen %43,9 kontrolatu da telefonoz.*

—*Bikoiztekoa: aurrekoa bezalakoa da, baina beste inkestatzaile bat bidaltzen da inkestatuaren etxera. Lehenengo inkestatzaileak telefono zenbakirik adierazi ez badu edo ezarritako bidea ez duela bete susmatzen bada egiten da. Inkesten %15,9ari egin zaio kontrol hori.*

► **Kontrol informatikoa.** Inkestetako datuen arazketa egiten da. Horretarako, inkesta kopuruaren eta inkestak egin diren lekuaren (lurraldea, herria, barrutia, sekzioa) kontrol logikoa egiten da, bai eta aldagarri barruko ezaugarriak eta aldagarri arteko iraukortasun araua betetzen dela ere. Halaber, lurralde bakoitzeko inkesten eta lurraldeko datu orokorren artean sei aldagarri demografikotan (sexua, adina, ikasketa-maila, lan-egoera, jatorria eta euskalduntze maila) alde handirik baden ere aztertzen da (EUSTATen urtekarietako erreferentzien arabera).

11.3. EMAITZEN AZTERKETA

Galdiker enpresak egin du emaitzen azterketa eta txostenaren idazketa. Enpresa horrek, *Prospekzio Soziologikorako Kabineteak* egindako galde-sortako datuetan oinarrituta, gaikako hainbat atal egin ditu datuak aztertzeko.

Atal bakoitzean hainbat adierazle soziologiko aztertzen dira. Lehendabizi, azterketa orokorra egin da, 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztien emaitza orokorretan oinarrituta; eta, ondoren, taldeka aztertzen dira, hainbat segmentazio-faktoreren arabera edo aldagarriren arabera portaera desberdinak dituzten taldeak sortzen baitira.

Gainera, beste zenbait lekutan (estatu osoan, Katalunian, Andaluzian edo Balearretan) adierazle horietako bati buruzko daturik baldin badago, datuak konparatu egin dira.

Azkenik, eta Euskadiko gazteek aisialdian burutzen dituzten jarduerak desberdintze-ko, elementu nagusien azterketa faktoriala egin da. Horretarako, asteburuko aisialdiari buruz egindako galderak aztertu dira. Azterketa faktorialaren bidez, aisialdiko zenbait jardueren euren artean duten loturaz baliatuz, jarduerak taldeka bildu dira eta talde bakoitzari faktore izena eman zaio (aisialdiko jarduera mota baten irudikapena). Eranskinean korrelazioen matrizea ikus daiteke.

11.3.1. Adierazle soziologikoak

Azterketa bederatzi atal handitan banatuta dago, eta atal bakoitzak gai bat aztertzen du, hain zuzen, honako adierazle soziologiko bati dagokiona:

► Lan-mundua

- Lan-egoera
- Lanaren egonkortasuna
- Lanaldi-mota
- Baldintza ekonomikoak
- Autoenplegua
- Lan-mugikortasuna

► Familia

- Famili egoera
- Independentzia ekonomikoa
- Etxetik joateko adin egokiena
- Etxetik joateko zailtasunak
- Familian zenbateraino dagoen pozik
- Familiaren eginbeharrak
- Seme-alaba kopurua
- Etxeko lanen banaketa

► Aisialdia

- Aisialdirako zenbat denbora duten
- Aisialdiko jarduerak
- Elkartegintza
- Interneti buruzko esperientzia eta horren erabilera

► Egoeraren balioespena

- Norberaren egoera nola ikusten duten
- Euskadiko gazteen egoera nola ikusten duten
- Euskal Herriko egoera nola ikusten duten
- Norberaren kezkak
- Hezkuntza-sistemaren balioespena

► *Jarrera politikoak*

- *Politikan parte hartzeko nahia*
- *Norbera ezkerrekoa/eskuinekoa ardatzean kokatzea*
- *Norbera euskalduna/espainiarra ardatzean kokatzea*
- *Europarra sentitzea*

► *Erljioaren garrantzia*

- *Erljiozaletasuna*
- *Erljioan parte hartzea*
- *Erljio-ospakizunak*

► *Gizarte-balioak*

- *Oinarrizko gizarte-balioak.*
- *Gizarte-portaerak*
- *Osasunerako ohitura kaltegarriak*
- *Auzokideekiko tolerantzia.*
- *Tolerantzia ideologikoa.*
- *Inmigrazioarekiko jarrerak.*
- *Gauzez kalera ateratzeko beldurra.*

► *Euskara*

- *Euskararen ezagutza*
- *Euskararen benetako erabilera*
- *Euskararen erabilera ideala*
- *Euskararen sustapen publikoari buruzko balioespena*

► *Gazteak eta sexualitatea*

- *Sexualitatearen garrantzia*
- *Sexualitatea zerekin identifikatzen duten*
- *Sexualitateari buruzko komunikazioa familian*

11.3.2. Segmentazio-faktoreak

Segmentazio-faktoreak desberdinak dira adierazle bakoitzarekiko, baina ohikoenak honakoak dira⁹:

- *Sexua: gizona, emakumea.*
- *Adin-taldeak: 15 eta 19 urte bitartekoak, 20 eta 24 urte bitartekoak eta 25 eta 29 urte bitartekoak.*

⁹ Batzuetan, segmentazio-faktoreen bidez egindako hainbat taldetan jende gutxi biltzen da, eta horregatik lagina ez da adierazgarria izaten. Hori dela eta, tauletan talde bakoitzaren guztirako osoa soilik adierazi da.

- ▶ **Lurraldea:** Araba, Gipuzkoa, Bizkaia.
- ▶ **Gizarte-klasea:** altua (altua eta ertaina-altua), ertaina, behea (behea eta ertaina-behea).
- ▶ **Jatorria** (inkestaturako gaztearen jaioterriaren arabera): bertakoa (EAEko edozein lurraldetakoa), inmigrantea (Nafarroakoa edo estatuko beste herrialde batetako).
- ▶ **Ezkerrekoa/eskuinekoa ardatza:** ezkerrekoa (zentro-ezkerrekoa, ezkerrekoa edo ezker-ezkerrekoa), zentrokoa, eskuinekoa (zentro-eskuinekoa, eskuinekoa edo eskuin-eskuinekoa).
- ▶ **Euskalduna/espainiarra ardatza:** euskalduna (euskalduna soilik edo euskalduna espainiarra baino gehiago), biak berdin (espainiarra bezain euskalduna), espainiarra (espainiarra euskalduna baino gehiago edo espainiarra soilik).
- ▶ **Euskararen ezagutza:** Ez (ez daki ezer), zerbait (hitz batzuk), bai (nahikoa ongi edo ongi daki).
- ▶ **Ikasketa-maila:** lehen mailakoak; OHO/DBH; LH/REM/BBB/UBI (lanbide heziketa, batxilergoak, REM, BBB edo UBI); Diplomatura (erdi-mailakoak); Goi-mailakoak (lizentziatura, doktoregoa, graduondoa).
- ▶ **Lan-egoera:** ikasten, lanean¹⁰, ikasten eta lanean, langabezian (langabetua, lehen lan egin dutenak eta lehen lanaren bila dabiltzanak), etxeko lanak, beste-lakoak (aurrekoetan sartzen ez diren guztiak).
- ▶ **Famili egoera:** ezkongabea, ezkondua, elkarrekin bizi¹¹.
- ▶ **Alderdi politikoa:** PP, EAJ-PNV, PSE/EE, IU/EB, EH/HB, UA, EA, beste alderdiren bat, inor ez.

11.3.3. Galderak birkodetzea

Galdera-sortako zenbait galdera birkodetu egin dira, dela galdera irekiak zirelako, dela horiekin grafikoa edo taula bat egin nahi zelako:

| 11. galdera: Autoenpleguarekiko jarrera Inoiz pentsatu al duzu zuk zeuk zure lanpostua sortzea, langile autonomo, langile liberal edo enpresari txiki egitea? | |
|--|--|
| Baiezkoa | 3. Horri buruz hausnartzen ari naiz 4. Egin dut |
| Zalantza | 2. Oraindik ez dut horretaz pentsatu, baina, beharbada, etorkizunean beharrezkoa izango da 5. Ed/Ee |
| Ezezkoa | 1. Ez dut horretaz hausnartu |

¹⁰ Hiru aukera soilik (ikasten, lanean, langabezian) soilik eman diren inkestetan, ikasten eta lanean ari ziren gazteak «lanean» aukeraren barruan sartu dira, biztanleria aktiboaren barruan baitaude.

¹¹ Gainerako aukerak (banandua, dibortziatua edo alarguna) ez dira kontuan izan, gazteen artean talde horietako inor gutxi baitzegoen.

| 30. GALDERA: Zein hiru arazok kezkatzen zaituzte gehien gazte bezala? | |
|--|--|
| 01 | LANA <i>Lanik ez izatea, Egonkortasunik ez duen lana izatea, Lanean segurtasunik ez izatea</i> |
| 02 | ETXEBIZITZA <i>Etxebizitza garestia izatea, Etxebizitzarik ez izatea</i> |
| 03 | TERRORISMOA <i>Bakerik ez izatea, ETA, Bortizkeria</i> |
| 04 | DROGAK <i>Drogak hartzea</i> |
| 05 | POLITIKA <i>Euskal Herriko egoera politikoa, Espainiakoa</i> |
| 06 | PRESOAK <i>Hurbiltzea, Egoera</i> |
| 07 | ALKOHOLA |
| 08 | ADISKIDETASUNA |
| 09 | IKASKETAK <i>Ikasketak amaitzea, Azterketak</i> |
| 10 | DIRUA <i>Dirurik ez izatea</i> |
| 11 | EKOLOGIA <i>Ingurumena, Kutsadura</i> |
| 12 | OSASUNA <i>Gaixotasunak, HIESa</i> |
| 13 | EUSKARA <i>Arazoak, Lehen hizkuntza</i> |
| 14 | FAMILIA <i>Famili harremanak</i> |
| 15 | ETORKIZUNA <i>Ziurgabetasuna</i> |
| 16 | POBREZIA <i>Hirugarren munduko egoera</i> |
| 17 | BIKOTEA <i>Maitasuna</i> |
| 18 | BESTELAKOAK <i>Gizartearen egoera, Kirolak, Gazteen egoera, Arrazakeria</i> |

| 48. GALDERA: Euskal Herrian bizi diren atzerriko inmigrantez hitz egiten denean, zein etortzen zaizkizu, bat-batean, burura? | |
|--|---|
| 01 | AFRIKARRAK <i>Mairuak, Marokoarrak</i> |
| 02 | HEGOAMERIKARRAK <i>Kolonbiarrak, Kubatarrak, Brasildarrak, Dominikarrak</i> |
| 03 | IJITOAK |
| 04 | EUROPAKO EKIALDEKOAK <i>Jugoslaviarrak, Bosniarrak, Albaniarrak, Errusiarrak</i> |
| 05 | BELTZAK |
| 06 | EKIALDETARRAK <i>Txinatarrak, Japoniarrak, Asiarrak</i> |
| 07 | ARABIARRAK <i>Turkiarrak</i> |
| 08 | PORTUGALDARRAK |
| 09 | BESTEAK <i>Espainiatik kanpokoak, Euskal Herriatik kanpokoak, Ingelesak, Frantziarrak</i> |

| 54. GALDERA: SEXU hitza aipatzen badizut, zein bi hitz, adjektibo edo espresio bururatzen zaizkizun? | |
|--|--|
| 01 | MAITASUNA <i>Maitasuna, Afektua</i> |
| 02 | BIKOTEA <i>Gizona/Emakumea, Mutila/Neska, Ezkontidea, Harremana, Ezkontza</i> |
| 03 | SEXU HARREMANAK IZATEA <i>Amodioa egin, Sexua, Larrua jo, Koitoa, Orgasmoa, Ohea, Ñaka egitea</i> |
| 04 | UGALKETA <i>Seme-alabak, Haurdunaldia</i> |
| 05 | GRINA <i>Erakarpena, Pasioa, Plazerra, Morboa</i> |
| 06 | DIBERTSIOA <i>Festa, Poztasuna, Gozamina</i> |
| 07 | NATURALA <i>Natura, Normala, Beharrezkoa, Askatasuna</i> |
| 08 | OSASUNTSUA <i>Ona, Sanoa, Polita, Atsegina, Ederra, Zoriona, Guai</i> |
| 09 | KOMUNIKAZIOA <i>Adiskidetasuna, laguntasuna, Elkarbizitza, Intimitatea, Leialtasuna, Egonkortasuna, Ligatu</i> |
| 10 | NEURRIAK HARTZEA <i>Presebatiboak, Antisorgailuak, HIESa</i> |
| 11 | GAZTAROA |
| 12 | GORPUTZAREN ATALAK <i>Zakila, Titiak, Bagina</i> |
| 13 | BESTELAKOAK |



1.
eranskina
Erabilitako
galderak



EUSKADIKO GAZTERIARI IRITZI INKESTA
2.000KO EKAINA

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|------------------|---|-----|-----|-----|-----|--|--|--|--|-------------------|---|-----|-----|-----|--|--|--|
| ELKARRIZKETA ZB. | <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="width: 20px; text-align: center;">(1)</td> <td style="width: 20px; text-align: center;">(2)</td> <td style="width: 20px; text-align: center;">(3)</td> <td style="width: 20px; text-align: center;">(4)</td> </tr> <tr> <td style="height: 20px;"></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </table> | (1) | (2) | (3) | (4) | | | | | INKESTATZAILE ZB. | <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="width: 20px; text-align: center;">(5)</td> <td style="width: 20px; text-align: center;">(6)</td> <td style="width: 20px; text-align: center;">(7)</td> </tr> <tr> <td style="height: 20px;"></td> <td></td> <td></td> </tr> </table> | (5) | (6) | (7) | | | |
| (1) | (2) | (3) | (4) | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| (5) | (6) | (7) | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | |

(INKESTATZAILE: BIZITATUTAKO HELBIDEAN AUKERATUTAKO PERTSONARI BAKARRIK EGIN INKESTA. INKESTA EUSKARAZ EGIN HORRETARAKO BALDINTZA EGOKIAK BADIRA)

EGUNON IARRATSALDEON. EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEKO GAZTEEI BURUZKO INKESTA BAT EGITEN ARI GARA EUSKO JAURLARITZARENZAT. GALDERA BATZUK ERANTZUNGO DIZKIDAZU? ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK. GALDERA HAUEI ERANTZUTEA EZ DA DERRIGORREZKOA

| <p>01.G- SEXUA: (8)</p> <p>- GIZONEZKOA 1</p> <p>- EMAKUMEZKOA 2</p> <p>02.G- ADINA: (9) (10)</p> <table border="1" style="margin: auto; width: 40px; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 20px;"></td> <td style="width: 20px;"></td> </tr> </table> <p>03.G- ZEIN PROBINTZIATAN JAIO ZINEN? ETA NON JAIO ZEN ZURE AITA? ETA ZURE AMA?</p> <table border="1" style="margin: auto; width: 100%; text-align: center;"> <thead> <tr> <th></th> <th>ELKARRIZ</th> <th>AITA</th> <th>AMA</th> </tr> <tr> <th></th> <th>(11)</th> <th>(12)</th> <th>(13)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>- ARABAN</td><td>1</td><td>1</td><td>1</td></tr> <tr><td>- BIZKAIA</td><td>2</td><td>2</td><td>2</td></tr> <tr><td>- GIPUZKOAN</td><td>3</td><td>3</td><td>3</td></tr> <tr><td>- NAFARROAN</td><td>4</td><td>4</td><td>4</td></tr> <tr><td>- GAINONTZEKOAN</td><td>5</td><td>5</td><td>5</td></tr> <tr><td>- ED/EE</td><td>6</td><td>6</td><td>6</td></tr> </tbody> </table> <p>04.G- ZEIN MAILA SOZIALETAN JARRIKO ZENUKE ZURE BURUA? (14)</p> <p>- GOI MAILAN 1</p> <p>- ERDI-GOI MAILAN 2</p> <p>- ERDI MAILAN 3</p> <p>- ERDI-BEHE MAILAN 4</p> <p>- BEHE MAILAN 5</p> <p>- ED/EE 6</p> <p>05.G- ONDORENGO ZEIN EGOERATAN ZAUDE GAUR EGUN? (15)</p> <p>- IKASI EGITEN DUZU (09.GRA JOAN) 1</p> <p>- LAN EGITEN DUZU (06.GRA JOAN) 2</p> <p>- IKASI ETA LAN EGITEN DUZU (06.GRA JOAN) 3</p> <p>- LANIK GABE ZAUDE ETA AURRETIK LAN EGITEN DUZU (06.GRA JOAN) 4</p> <p>- LEHENENGO LANAREN BILA ZABILTZA (09. GRA JOAN) 5</p> <p>- ETXEKO LANAK (09. GRA JOAN) 6</p> <p>- HORIETARIKO BAT ERE EZ (09. GRA JOAN) 7</p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-top: 10px;"> <p>(BAKARRIK LAN EGITEN DUTENENTZAT EDO AURRETIK LAN EGIN DUTENENTZAT)</p> <p>06.G- NOIZTIK ARI ZARA LANEAN ORAIN DAUKAZUN LANPOSTUAN (EDO ZENBAT DENBORA EMAN ZENUEN LANEAN AZKENEKO LANPOSTUAN, LANGABEZIAN DAUDENENTZAT)? (16)</p> <p>- URTEBETE BAINO GUTXIAGO 1</p> <p>- URTE BETE ETA HIRU BITARTEAN 2</p> <p>- HIRU URTE BAINO GEHIAGO 3</p> <p>- ED/EE 4</p> <p>- GAINONTZEKOAK (05.GN 1, 5, 6 EDO 7) 5</p> <p>07.G- NOLAKO LAN BALDINTZAK DITUZU (EDO ZENITUEN, LANGABEZIAN DAUDENENTZAT)? (17)</p> <p>- MUGAGABEKO KONTRATUA 1</p> <p>- ALDI BATERAKO KONTRATUA 2</p> <p>- NEURE KONTURA EGITEN DUT/EGITEN NUEN LANA 3</p> <p>- NOIZBEHINKA EGITEN DUT/EGITEN NUEN LANA 4</p> <p>- ED/EE 5</p> <p>- GAINONTZEKOAK (05.GN 1, 5, 6 EDO 7) 6</p> <p>08.G- ETA LAN HORI EGUN OSOKOA EDO ORDUKAKOA DA (EDO ZEN, LANGABEZIAN DAUDENENTZAT)? (18)</p> <p>- EGUN OSOKOA 1</p> <p>- ORDUKAKOA 2</p> <p>- ED/EE 3</p> <p>- GAINONTZEKOAK (05.GN 1, 5, 6 EDO 7) 4</p> </div> | | | | ELKARRIZ | AITA | AMA | | (11) | (12) | (13) | - ARABAN | 1 | 1 | 1 | - BIZKAIA | 2 | 2 | 2 | - GIPUZKOAN | 3 | 3 | 3 | - NAFARROAN | 4 | 4 | 4 | - GAINONTZEKOAN | 5 | 5 | 5 | - ED/EE | 6 | 6 | 6 | <p>(DENENTZAT)</p> <p>09.G- ONDOKOEN ARTETIK, ZEIN DA ZURE EGOERAREN ANTZEKOENA? (19)</p> <p>- NIRE FAMILIAREN DIRU SARRERETATIK BAKARRIK EDO BATEZ ERE BIZI NAIZ 1</p> <p>- NIRE DIRU SARRERETATIK BAKARRIK EDO BATEZ ERE BIZI NAIZ 2</p> <p>- NIRE BIKOTEKIDEAREN DIRU SARRERETATIK BAKARRIK EDO BATEZ ERE BIZI NAIZ 3</p> <p>- ED/EE 4</p> <p>10.G- ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILABETERO, BATAZ BESTE? (20)</p> <p>- 10.000 PTA BAINO GUTXIAGO 1</p> <p>- 10.001 ETA 50.000 PTA BITARTEAN 2</p> <p>- 50.001 ETA 100.000 PTA BITARTEAN 3</p> <p>- 100.001 ETA 150.000 PTA BITARTEAN 4</p> <p>- 150.000 PTA BAINO GEHIAGO 5</p> <p>- ED/EE 6</p> <p>11.G- INOIZ PENTSATU DUZU ZURE LANPOSTUA SORTZEA, ZEURE KONTURA LAN EGITEA, PROFESIONAL LIBERALA EDO ENPRESARIO TXIKIA IZATEA? (21)</p> <p>- EZ DUT INOIZ PENTSATU 1</p> <p>- EZ DUT ORAINDIK PENTSATU, BAINA ETORKIZUNEAN PENTSATU BEHARKO DUT AGIAN 2</p> <p>- BENETAN PENTSATZEN ARI NAIZ 3</p> <p>- EGIN DUT DAGOENKO 4</p> <p>- ED/EE 5</p> <p>12.G- BIZILEKUA ALDATUKO ZENUKE INTERESATZEN ZAIZUN LAN BAT ESKAINIKO BALIZUTE? (22)</p> <p>- BAI, MUNDUKO EDOZEIN LEKUTARA 1</p> <p>- BAI, EUROPAKO ELKARTEKO EDOZEIN LEKUTARA 2</p> <p>- BAI, ESPANIAN JARRAITUZ GERO 3</p> <p>- BAI, EUSKADIN JARRAITUZ GERO 4</p> <p>- BAI, INGURUKO UDALEN BATERA BADA 5</p> <p>- EZ NAGO SEGURU (ZEREN ARABERA) 6</p> <p>- EZ, INOLAZ ERE EZ 7</p> <p>- ED/EE 8</p> <p>13.G- ZER NOLAKO IKASKETAK BUKATU DITUZU? (23)</p> <p>- LEHEN MAILAKOAK 1</p> <p>- OHO (EGB) EDO DERRIGORREZKO BIGARREN MAILAKOAK (ESO) 2</p> <p>- LANBIDE-HEZIKETA, BATXILERGOA EE (REM), BBB (BUP), UBI (COU) 3</p> <p>- ERDI-GOI MAILAKOAK (DIPLOMATURA) 4</p> <p>- GOI-MAILAKOAK (LIZENTZIA, DOKTORETZA, GRADUONDOA) 5</p> <p>- ED/EE 6</p> |
|--|----------|------|------|----------|------|-----|--|------|------|------|----------------|---|---|---|-----------------|---|---|---|-------------------|---|---|---|-------------------|---|---|---|-----------------------|---|---|---|---------------|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | ELKARRIZ | AITA | AMA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | (11) | (12) | (13) | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - ARABAN | 1 | 1 | 1 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - BIZKAIA | 2 | 2 | 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - GIPUZKOAN | 3 | 3 | 3 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - NAFARROAN | 4 | 4 | 4 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - GAINONTZEKOAN | 5 | 5 | 5 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| - ED/EE | 6 | 6 | 6 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |



| <p>14.G- ETA, ZER IRITZI DUZU BERTAKO HEZKUNTZA SISTEMAZ? (24)</p> <ul style="list-style-type: none"> - OSO OÑA..... 1 - NAHIKO ONA..... 2 - EZ ONA, EZ TXARRA..... 3 - NAHIKO TXARRA..... 4 - OSO TXARRA..... 5 - ED/EE..... 6 <p>15.G- ZEIN DA ZURE EGOERA? (25)</p> <ul style="list-style-type: none"> - EZKONGABEA..... 1 - EZKONDUA..... 2 - BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN..... 3 - BANANUA/DIBORTZIATUA..... 4 - ALARGUNA..... 5 - ED/EE..... 6 | <p>(BAKARRIK BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIRENTZAT EDO EZKONDUENTZAT)</p> <p>16.G- ZUEN ETXEAN ZUK ETA BIKOTEKIDEAK EGITEN DITUZUEN LANETAN, LAN HORIEN ZENBATEKO ZATIA EGITEN DUZU ZUK, GUTXI GORABEHERA? (26)</p> <ul style="list-style-type: none"> - DENAK NIK NEUK..... 1 - GEHIENAK NIK ETA BIKOTEKIDEAK LAGUNDU EGITEN DU..... 2 - ERDI BANA EGITEN DITUGU..... 3 - GEHIENAK NIRE BIKOTEKIDEAK EGITEN DITU ETA NIK LAGUNDU EGITEN DUT..... 4 - DENAK BIKOTEKIDEAK EGITEN DITU..... 5 - ED/EE..... 6 - GAINONTZEKOAK (15.Gn 1,4,5 EDO 6)..... 7 <p>(DENENTZAT)</p> <p>17.G- ZURE EDO ZURE BIKOTEKIDEAREN DIRUTIK BIZI ZARA, HAU DA, ZURE KONTURA, FAMILIARENGANDIK INDEPENDIZATUTA BIZI ZARA? (27)</p> <ul style="list-style-type: none"> - BAI..... 1 - EZ..... 2 - ED/EE..... 3 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
